

## SOZIALISMOAREN ALDEKO KRISTAUAK

Paulo Agirrebaltzategi

Chile-n sortu zen "Cristianos por el socialismo" (*Sozialismoaren aldeko kristauak*) oldea. Marxisten eta kristauen arteko elkar lanaren garaiak ziren haiek. Gauregun olde haren sortzaileak Chiletik kanpora dabilta (1).

Garai batez, elkar kondenatuz eta elkarren kontrako burruka hutsean ziharduten kristauak eta marxistek. Gerora, teoriako elkarrizketari ekin zitzaizkion: eta zenbait aldetatik kidesunetik bazutela aurkitu zuten. Azkenik, elkarrekiko lanari eta ekintzari heldu diote: eta oso bat datozela ohartu dira (2). Bide honetatik sortu da, hain zuzen ere, *Sozialismoaren aldeko kristauak* oldea: sozialismoa eta kristautasuna ideologi bezala elkarrekin lotu dituztelako baino areago, kristau izanik marxista gertatu direlako eta marxista izanik kristau aurkitu dituztelako beren buruak. Oraindik kristau guztien artean gutxi dira kristau marxista direnak; baina hor daude kristau Herriaren barruan, eta kristautasunari eta Elizei gertakari berri bat jarri die aurrean, galdera zorrotz bezala eta kristau izateko bide bat bezala.

(1) SAK (Sozialismoaren aldeko kristauak) oldeari buruz idaztitxo bat *Anaitasuna* aldizkarian eman nuen (1974-eko apirilaren 15-ekoan, 273. zenbakian, 8-9 orrialdeetan). Oldearen sorreraren xehetasun batzu eta horren pentsakeraren bide nagusi batzu aurkeztu nituen han. "Kristauak sozialismo bidetik" izenez izendatu nuen orduan olde hori; geroztik idazki erdi-ofizial batetan ikusi dudanari helduz, SAK (Sozialismoaren aldeko kristauak) izena egokiago iruditu zait. Bestalde, artikulatu hartan eginiko bi okerren zuzenketa egin beharrean naiz hemen: ONIS eta SAL laburtzapenen esanahiak, alegia, Horien benetako esanahiak hauek dira: Oficina nacional de información social eta Sacerdotes para América Latina.

(2) Ik. G. Girardi, Los cristianos de hoy ante el marxismo, in: *Iglesia Viva* (1974, 52-53) 325-354 or.

Bada gertaera honi garrantziarik kendu nahi dionik, marxismoa eta kristautasuna ezin daitezkeela elkartu esanez; edo konkretuago, sozialismoaren aldeko kristau horik ez direla marxista jatorrak esanez, nahiz ez direla kristau jatorrak adieraziz. Baina hortxe dago, hain zuzen ere, asaldatzen gaituena: beraiek benetako marxistatzat eta benetako kristautzat hartzen dituztela beren buruak. Beharbada ez da erraza kanpotik ulertzea . . .

Sortu ondorengo lau urteotan oso hedatu da SAK, Ego-amerikako herrialdeetan ezezik, Kanadan, Italian, Espainian, Holandan, Belgikan eta Portugalean ere bai. Herrialde bakoitzean bere erakuntza du eta bere batzarrak egin ohi ditu, baina oldeak badu batasun orokor bat ere. Paris-en du bere erdigunea, eta han ateratzen da ere *Liaisons Internationales* aldizkaria, Parisen bizi da, hain zuzen ere, SAKen sortzaile nagusia, Gonzalo Arroyo. Halere, esan beharra dago haseratik bertatik, erakundea baino areago batasuna dela SAK, talde askotako eta erakunde dezberdinetako kristauak biltzen bait ditu SAKek (3).

SAKen pentsabidea eta jokabidea ezagutzeko, barreiatuta dabiltzan beren agirietara jo beharra dago. Chilen, 1972ko apirilean egindako batzarrak gainera, Avilan 1973ko urtaririlean egindakoa eta Bolonian 1973ko irailan egindakoa dira garrantzitsuenak. Hauk izan ziren Egoameriketan, Espainian eta Italian SAK eraikitzeke lehen batzar nagusiak. Espainiako SAKek geroztik Perpiñan-en eduki du bere bigarren batzar nagusia, 1974eko otsailean. Italiakoak, berriz, Napoli-n, 1974ean azkenaldian. Batzar hauen eginak eta emanak, beraiek ateratako agirietan edo beste zenbait aldizkaritan sakabanatuta aurkitzen dira. Espainiako SAKek bere aldizkari bat sortu du, *Cristianos por el socialismo* izenekoa. Italiakoak ez daduka bere aldizkari berezirik, baina *IDOC Internazionale* aldizkariak argitaratu ditu SAKen agiri gehienak; eta *COM-Nuovi Tempi* asterokoa, haren boletina izan ezik ere, oso lotuta dago Italiako SAKen.

Hauetaz gainera, azkenaldian aldizkari askok erabili du SAKen eta kristau marxisten gaia, alderdi batetik nahiz bestetik ikutuz eta aztertuz: erabat onartuz, barrendik astinduz edo ia

---

(3) Joan zen martxoan sortu zen Europako SAK oldeen arteko komite bat. Azken apirilean Quebec-en egin den nazioarteko 2. Batzarran hogeit hamar herrialdetako SAK oldetakoak bildu dira.

oso-osorik gaitzetziz. *Iglesia Viva* izan da Espainian SAKen arazoa sakonkien aztertu duena: bi zenbaki osoak batean eskaini dizkio gai horri (4). *La Civiltà Cattolica* hamabosterokoak berriz, B. Sorge-ren bi artikulua trinko argitaratu ditu SAKen pentsabidea eta teologia aztertuz, gehienbat gaitzesten dituelarik (5). *Lumière et Vie* aldizkariak ere bi zenbaki batean eman ditu, *Chrétien marxiste* tituluaz kristau marxisten arazoa orokorki aztertuz.

Apezpikuek, beren aldetik, kristau marxistei eta SAKi buruz bereziki han eta hemen beren eritziak eta beren agiriak emanak dituzte. Frantziakoek 1972an emandakoa, Chilekoen bi agiriak eta Cataluniakoena dira nagusienak (6). Honela bada, lehen China-ko eta Europa Ekialdeko lurralde komunistetako kristau eta Elizen arazoa zena, orain Mendebaleko Elizen problema sakon gertatu da kristauen eta marxisten arteko harremana eta kristau marxisten fenomenua. Eliza ofizialaren aldetik oraindik ezin da aurkitu, Sozialismoaren aldeko kristauak Eliza barnean berentzat ere nahi luketen eta badadukatela uste duten lekua.

Sakabanatuta dabiltzan artikulua, hitzaldi eta agiri horietatik atera beharrean gertatzen gara SAKen jokabidea, pentsabidea eta teologia. Horietaz baliatu naiz, bada, idazlan hau osatzeko.

(4) "*Cristianos por el Socialismo*" izenburua eman dio *Iglesia Viva*-k zenbaki biko horri (1974, 53-54). Azalpenezko, azterketazko eta kritikazko zenbait artikuluren ondoren, *Iglesia Viva*-ko idazle kontseiluak berak nolabaiteko eritzi ofiziala ematen du SAK aldeari buruz. Azkenik, Reyes Mate-k gai horri buruz idatzi diren artikulua eta liburu sail baten berri ematen du.

Artikulu hau osorik idatzita gero, gaztelanian beste liburu bat agertu da, SAKi buruz zenbait artikulua eta SAKen beraren orain arteko ageri nagusienak biltzen dituena; Fierro, Alfredo-Mate, Reyes, *Cristianos por el socialismo*, Ed. Verbo Divino, Estella 1975. Ahal dudan neurrian, aipamenak eta, liburu honetatik egiten saiatuko naiz.

(5) *Il movimento dei "cristiani per il socialismo"*, in: *La Civiltà Cattolica* 125 (1974, II); *Ragioni e ambiguità dei "cristiani per il socialismo"*, in: *La Civiltà Cattolica* 125 (1974, III).

- Hauetaz gainera, eta Italiari dagokionez, aipamen berezia merezi dute beste aldizkari eta liburu hauek: *IDOC Internazionale* (1973, 17-18) eta (1973, 20); *Cristiani per il Socialismo*, Sapere Ed., Milano 1974. Azkenik, aurtun bertan beste zenbaki berezi bi argitaratu ditu *IDOC Internazionale*-k: bata Italiako SAKen Napoli-ko batzarrari buruz, eta bestea Quebec-eko nazioarteko batzarrari buruz.

(6) B. Sorge-k hauen bilduma bat egina du: *Le scelte e le tesi dei cristiani per il socialismo alla luce dell'insegnamento della Chiesa*, Ed. Elle Di Ci, Torino 1974. Bilduma honetatik kanpora utzi du, ordea, Frantziako aphezpikuek, *Pour une pratique chrétienne de la Politique* izenez eman zu ten gutuna.

Frantzian ez da kristau marxisten oldea SAK izenez sortu eta hedatu; baina bada *Chrétien-marxistes* izeneko batasuna, bere aldizkari eta guzti (7). 1968ko maiatzaren inguruan eta ondorio bezala batez ere indartu da Frantziako kristauen "marxista kontzientzia eta iraultz indarra. (Alemanian, ordea, oraindik talde batzu besterik ez dira SAK izenekoak eta horren jokabidekoak; ez da nazio mailako olderik eta batasunik sortu).

Espanian indar handiagoa eta egitura sendoagoa lortu du SAKek, Avilako eta Perpiñaneko batzar nagusien ondoren (8). Halere, ekintzatan ez du oraindik bizitasun handirik agertu, klandestinitatean jokatu beharrean dagoelako beharbada; ez gizartean eta ez Eliz barnean ez du bere ahotsa eta eragina nabarmendu ahal izan. Oraindik bilera, gogoeta eta kontzientzi mailan dihardu, eta ez ekintza mailan.

### Kristau sozialistak Euskal Herrian

Euskal idazle harek sozialismoa *gizartekeria* hitzera itzuli zuenetik (9), Rikardo Arregik "Sozialismoa modan dago" izeneko artikulua idatzi zuen arte urte mordoxka pasa zen; eta Rikardok sozialismoa modan ikusi zuenetik (10), euskal kristau zenbaitek bere burua sozialista eta marxista aitortu duen arte ere urte batzu pasa dira eta batez ere gauza batzu aldatu. Sozialismoa "gizartekeria" zenean, kristauak sorgin izugarritzat hartzen zuten. Sozialismoa modan jarri zenean, kristauak ere modara jo zuten; baina bakoitzak bere erara bedekintzen eta bataiatzen zuen sozialismo

(7) *Cité Nouvelle* du izena hileroko horrek.

(8) Avilako Batzar nagusia izan zen, hain zuzen ere, Espainiako SAKi sorrera eman ziona. Orduko agiri ofiziala ez zen aldizkaritan zabaldu, Batzarra bera izkutukoa izan bait zen. Fierro-Mate jaunek egin duten bilduman ere ez da agertzen agiri hura. Alderantziz, Perpiñan-ekoa hor ematen digute. Avilako azken agiriak sarrera eta hiru atal ditu: Sozialismoaren hautapena; hautapen honen abiadurua; hautapen horretatik abiatuz fedea nola adieraz; Espainiako Eliza ofizialari buruzko jarrera.

(9) Juan de Eguzkitza y Meabe, *Gizarte-Auzia. Ugazaba eta langile arteko gora-berak*. Liburu honetan, hain zuzen ere, sozialismoa *gizartekeria* bihurtzen du autoreak, hitz horren esanahi makurra nabarmenduz.

(10) Rikardo Arregi, *Sozialismoa modan dago*, in: *Rikardo Arregi* (JAKIN Sorta 3). Ed. Franciscana Aranzazu, 1971, 69-87 or.

hori; sozialismo marxistak barneko eten zorrotza sortzen zuen artean kristauarengan. Gaur, berriz, sozialismoa moda liluragarri hartatik irten denean, euskal kristau zenbaitek (askotxok?) inolako larritasunik gabe aitortzen du bere burua kristautzat eta marxistatzat.

Euskal Herriko sozialismoaren kondaira argitaratu gabe dago, eta beharbada egin gabe; baina badakigu sozialismo horrek baduela bere historia luzea. Kristau sozialistek, oster, historia laburra urratu dute oraindik, baina azken urteotan, eman dituzten urratsak argitu beharra dadukagu, SAK Euskal Herrian nola hedatzen eta finkatzen ari den ulertzeko. SAK ez da noski Euskal Herriaren berezko fruitua, kanpotik sartu den oldea baizik. Eta alde horretatik, Mendebaleko politikaren, gizartearen eta Elizaren dinamikak argituko luke olde horren zabalkundea.

Baina Euskal Herriko SAKek badu historiazko bere oinarri bat, eta badu batez ere ekonomiazko, gizartezko, politikazko eta elizazko inguru bat. Inguru honen neurtaldeak zehaztu beharra dago, hain zuzen ere, Euskal Herriko *sozialismoaren aldeko kristauek* inguru horretan dadukaten tokia ikusteko, eta horien jokabidea eta pentsabidea berezteko eta ulertzeko. Lehen hiru neurtaldeak (ekonomia, gizartea, politika) ikutu besterik ez ditut egingo, Elizarena zehatzagotzeko, kristau sozialistak direnez, hor dago arazorik biziena eta. Baina SAK Eliz barneko fenomeno hartzea, ez ulertzea edo oso oker ulertzea litzake.

Europako Ekonomi Elkartean erdi-lantegiztatuak edo industriatuak deitzen dituzten herrialde horietakoa dugu Euskal Herria, beronen osoan harturik. Hau da, bigarren alorrean (industrian) langile asko dago, baina oraindik ere nekazaritzak 15% bat langile biltzen ditu. Hala ere, proportzio hau industriaren alde jotzen ari da azken urteotan: batetik, Nafarroako eta Arabako nekazariak lruine, Gasteiz, Laudio eta beste herri industriatuetara jotzen dutelako; bestetik, Bizkaian eta Gipuzkoan baserritar askok, baserria erabat utziz edo baserrian iraunez ere, bere lanbiderik nagusiena industrian bilatu duelako. Iparraldean industriagintza hain motela delarik ere, laboraritzak ez du, halere, gora egiten, behera baizik. Horretaz gainera, oso gogoan hartu behar da kanpotik etorri den langileriak bigarren alor

horretan aurkitu duela bere bizibidea, gehienbat behintzat.

Honela kapitalismoa, ekonomiaren erakuntza bezala, garraile atera da Euskal Herrian, prekapitalismoaren lanbideak eta ekonomi erak makalduz. Aldi berean, proletarioen indarra handitu egin da Euskal Herrian zehar, klase burgesaren eta proletarioen arteko bereizkuntza hedatu delarik. Baina era berean, kapitalismoak bere buruari eusteko, aldabide batzu aurkitu ditu, leunago eta bigunago agertu nahian, eta langileak ere sistimatu nahian, kontsumismo baten bidez. Kapitalismoaren eraberritzeko ahalmen hori eta Euskal Herrira ekarri duen erosotasun eta kontsumismoa osoa argigarriak izan daitezke kristau sozialisten sorrera aztertzean.

Inmigrazioa dugu Euskal Herrian azken urteotako gertaririk garrantzitsuenetakoa, bai ekonomi aldetik eta bai gizartearen eraketa aldetik. Beren herrietatik kanporatuak eta Euskal Herrian bertakotu gabeak, langile gertatu dira, baina ez herrigile; eta herri arazoa bizia zen honetan, proletarioaren zapalkuntza biziago jarri dute euskaldunen aurrean ere. Emigrantearen edo deserriratuaren zoria somatzeko eta ulertzeko sena bizia du Elizak aspalditik, gizartea nahasi egiten bait du berez emigrazioak; gizartearen egituretan finkatuta dagoelarik, berriz, hainbat neke -zago gertatzen zaio Elizari klaseen arteko tirabirak eta etenak ulertzea. Horregatik ere kanpotarren arazoak biziagotu egin du azken urteotan Euskal Herriko kristauen artean gizarte eta langile arazoa.

Kulturazko egoera eta dinamika ere aldatua dago Euskal Herrian. Unibertsitariak ugaritu egin dira; eta horrekin batera kulturgintza, euskal kulturgintza batez ere, laikoaren eskuetara pasa da, neurri batetan behintzat. LUR argitaldaria laikotasun baten izenean agertu zen eta horren izenean egin du lana. Era berean, geroago sortu den ZABAL aldizkariak, apaizen eskuetan zeuden aldizkarietatik alde egin nahi izan du, indar autonomu bat aurrera eraman nahian. Nolabait fenomeno berria da hau euskal kulturari; horren inguruan eratzen da pentsabide sozialista. ANAITASUNA bera ere hortik abiatu nahian ibili da aldi batez.

Halere, euskal idaz kulturako sozialismoa, horiek baino lehenagotikoa ere bada. JAKINen inguruan ere badabil horrelako jokabiderik; Rikardo Arregik "Sozialismoa modan dago" idatzi

zuenean, artean ez zegoen ez LUR argitaldaririk ez eta ZABAL aldizkaririk ere. Baina Rikardo ez zen mintzo politik taldeez bakarrik, eta bai kultur oldeaz ere. Dena dela, sozialismoa beronen adiera guztietan dabil azken urteotan euskal kulturaren: sozialismo humanista, sozialismo "sozializante" (11) delako hori, sozialismo marxista... Alde honetatik, eta sozialismoa inola ere definitu gabe baldin badago ere, euskal kultura aurrerakoiago agertzen da, inguruko erdal kultura baino.

Hain zuzen ere, euskal kultura "sozialista" hau erdal kultura atzerakoiaren kontra bezala abiatzen da; horrekin batera euskal kulturazko indar tradizionalak indartu egiten dira, beren atzerakoitasuna nabarmenago jarritz: AGUR eta GOIZ ARGÍ (beronen azken urteotako jokabidean) eta horien ingurura bildu diren indarrak, erreakzio bezala finkatu dira, eta kristautasunaren izenean, hain zuzen ere. Horregatik, hauekin inola ere bat ez datozen kristau asko beste indar laikoekin bildu dira sozialismo bidetan.

Idaz kulturarekin batera ikastolen abiada aztertu behar da, horiek bait dira azken urteotako euskal kulturaren "berbiztearen" oinarria. Idaz kulturaren sortzen diren eta burrukatzen diren indar eta jokabide berdintsuak nabarmentzen dira hemen ere. Eta kristauen jokabide ezberdinak agiriago jartzen dira, ikastoletan burruka, hein handi batetan, Elizaren inguruan jokatzen ari denez gero.

Kulturarekiko zertzelada hauk biltzeko, Euskal Herrian dugun kulturbitasunaren arazoa jarri behar da tartean. Erdara eta erdal kultura ofizialak, besterik ez balitz bezala, edo euskal kultura bazterrera utziz, bizi dira. Erdaldun askok ez daki euskal kulturarik denik ere, Euskal Herrian bertan biziarren, eta baldin badaki, gainezkako folklorekeriatzat edo txokokeriatzat edo hobbi edo snob soiltzat jotzen du. Ez du ezagutzen euskal kulturazko munduan dabilen arazorik, burrukarik eta bizitasunik.

Euskara eta euskal kultura, inolako ofizialtasunik gabe, baztertuak eta azpiratuak daudelarik, burrukalari eta "iraultzaile"

(11) Arias Navarro-k, oraindik hilabete asko ez dela, "tendencias socializantes" hitzak erabili zituen, bere "irekitasunean" onartzekotzat hartuz. Portugal-eko Spinola jauna, lehentxeago, "jabego pribatua onartuko lukeen sozialismoaren" alde mintzatu zen. Bada ere sozialismo liberala nahi lukeenik, eta ez "sozialismo demokratikoa" bakarrik, Europa Alderdi sozialistek eskatzen dutenez.

gertatzen dira halaberrez. Kulturbitasuna aipatu badut ere —eta elebitasuna aipatzen bada ere— Euskal Herrian ez dago horrelakorik; Herri batetan ez dago elebitasunik herritar guztiek hizkuntza biak ez dakitzaten bitartean: edo bi herri bereziak izanen dira, edo hizkuntza bat azpiratzailea eta bestea azpiratua izango da. Erdaldunek Euskal Herrian kulturbitasuna eta elebitasuna dadukagula esaten dutenean, zurikeria hutsa esaten digute, eta sarritan ohartu gabe gainera.

Guzti honek badu zeresan handirik gero Euskal Herriko “Sozialismoaren aldeko kristauen” pentsabidea eta jokabidea aztertuko ditugunerako, sozialismo horrek kultura barru-barrutik astindu nahi bait du.

Politikazko oldetik ezagutzen du batez ere Euskal Herria munduak. Eta politikazko indar, jokabide eta taldeen inguruan agitzen dira beste alorretako gertaerak ere.

Politik indar eta talde bezala eratuta, hemeretzigarren mendetik ari da lanean marxismoa Euskal Herrian. 1886an ekiten diote talde sozialistek Bilbon, Espainiako P.S.O.E. alderdiaren erakundearen barnean. Geroztik Euskal Herriko marxismo politikoa Espainiakoari lotuta ibili da. “Partido comunista de Euzkadi” delakoa ere ez da Espainia osokoaren adar bat besterik azken aldean librego jokatu nahi bada ere. Dena dela, beste herrialdetan bezala, —hala nola Frantzia eta Italia—, Espainiako alderdi komunistaren azken urteotako jokabidea kristauekiko elkarriketarena eta elkarlanarena izan da. Izatez, irekitasun hau garrantzizkoa da, kristauen aldetik alderdi komunistarenganako ezezik, marxismoarenganako hurbiltzea ulertzeko. Izatez, Espainiako azken urteotako oposizioko politik ekintzarik biziena marxismoaren eta kristauen eta kristau kutsuko indarren elkar-ganatzetik datorrela esan daiteke.

Baina Euskal Herriko politik mundu berezian, euskal indar bereziak aztertu behar dira. Urte luzeetan Alderdi Jeltzaleak sortu eta bultzatu zuen euskal politika berezi hori. Alderdi bera, burges txikien eta beste talde tradizional batzuren erakunde politiko bezala sortua eta horiengan gehienbat finkatua iraun baldin bazuen ere, ez zen berez eta politik eta gizarte arazoaren aldetik antimarxismo eta antikomunismo bezala sortua: politik aldetik ez zen, bada, antikomunismoz bizi eta mantendu, beste

herrialdeetako Kristau Demokraziak bizi eta mantendu izan diren bezala. Alderdi Jeltzaleak, nazionalismo jokabidearen aldetik, ez zuen alderdi komunistarekiko kontraktasun berezirik. Hala ere, kristau ideologiatik edaten zuenez gero, marxismoaren kontrakoa zen sustrai-sustraitik. Horregatik ere, kristau euskaltzale eta abertzaleak geheinbat Alderdi Jeltzaleari inguratu zitzaizkion. Ez zedukaten, bada, kristau sozialista izateko biderik.

Azken hogeitorteko euskal politika gero eta biziago eta gogorrago etorri da; politik bide hau gero eta nabarmenago sozialismoaren bidetatik abiatu da, honela Euskal Herriari bide berriak urratuz, hain zuzen ere. Eta hau ez da harrizkoa zein indarren kontra jo behar izan duen jakinez gero.

ETA nolabait Alderdiaren fruitua da; baina Alderdi Jeltzalearen pentsabidea eta jokabidea gaituz sortzen da. Artean, zehaztu gabeko sozialismotik jotzen du; eta erakunde bezala ezezik, bere politik eta jokabide aldetik laikoa agertu nahi du. Bi aldetatik, bada, eten bat sortzen du Alderdiari buruz. ETAn inguruan jokatu da ondorengo euskal politikaren prolemtikaririk biziena eta sakonena; beste talde ugari sortu baldin bada ere, guztiek dute ETArekiko hartukizunen bat. Politik mailan, ETAn inguruan moldatuko da Euskal Herriaren kristauen eta sozialisten, kristauen eta sozialismoaren elkarganatzea. Izan ere, kristau asko eta seminarista izandako ugari —apaiz zenbait ere bai— ETAn sartzen da edo ETAn hurbiltzen zaio, alde batetik; eta, bestetik, ETAn gero eta zehaztuago aurkitzen du sozialismo marxista, bere ideologi eta politik bide bezala. Hala ere, ETAn ez da argitzen kristautasunaren eta marxismoaren harremana; politik ekintzaretan diren kristauak sarritan kontzientzi larritasunik eraman beharrean dira beren kristautasunari buruz. Baina elkarganatze horretantxe nabariko da teoriz eta ekintzez marxistaren eta kristauaren arteko harremana argitu beharra, biak aurrez-aurre eta elkar ahortu eta baztertu ezinik jartzen bait dira.

Enbata-k eta ELAK, marxismotik jotzen ez dutelarik, ez dute sustrai-sustraitik kristau kontzientzia astinduko; baina horiek ere sozialismoaren aurrean jartzen dute euskal kristaua (12).

(12) Enbata-k ez zuen garai batetan sozialismoa sarritan aipatzen; baina sozialistatzat jotzen zuen bere burua. Hala ere, Enbata legez kanpora gelditu ondoren sortzen den

Talde berriak sortuz doazelarik eta burruka biziagotuz (ETAn bertan, O.R.T.-n, I.A.S.E-en, H.A.S.-en, C.O.A.-n), baztertu eta ahanzi ezina gertatzen da euskal kristauen eta marxismoaren arteko harremanaren arazoa. ETAk eta ondorengo politik ekintza talde guztiok eman duten iraultza giroak sortzen du kristau iraultzailea ere; eta iraultza bide honen barnean bere kristau izatea eta bere sozialista izatea bat-batean gertatzen zaizkio.

Geroxeago ikusiko dugu zenbateraino politik talde eta indar hauek bideratu duten "Sozialismoaren aldeko kristauen" pentsaera eta jokaera.

Euskal Herriaren azken mendetako historian Elizak eragipen handia ukan du. Gizarte arazoaren aldetik gordezalea agertu da, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean; Herri arazoaren aldetik herrian bertan zeuden pentsabide eta jokabide ezberdinak nabari dira Eliza ofizialeko lagunen artean ere. Baina Hegoaldean batez ere Alderdi Jeltzaleak, politik alorrean, eta ELAk, langileen alorrean, eraman izan dute Elizaren bedekapenik handiena. Iparraldeko Elizak Frantziako politikari lotua irauten du, eta gizarteko arazoaren aldetik Frantziako Eliza bera baino atzerakoia-go agertzen da.

Gerra ondoren itota bezala gelditzen da Hegoaldeko Eliza, astinaldi ikaragarri hura igarota gero. Egiturretan Espainiako politikari eta Elizari erabat lotuta dagoelarik, Espainiako Elizatik hartuko du bere arnasa. Apaizak, beste inon baino ugariago; Seminario handiak; komentuak beteta; kristau talde ekintzaileak ugari eta indartsu; kristau manifestazio handiak; guzti honek Eliza garaile, bizi eta indartsu baten itxura ematen digu. Politikarik ez zen onartzen Elizaren aldetik eta apostolutzako kristau taldeen aldetik: hauxe da agindurik nagusia! Kristau taldeek Eliz barneko ekintza egin behar dute bakarrik, apostolutza edo otoitz taldeak besterik ez dira. Elizarekiko nahiz gizartearekiko profetismoa itota dago.

---

H.A.S.-ek kementsuago hartuko du sozialismoaren bidea. ELAri dagokionez, 1963an eztabaida eta burruka handia izan zen barnean, lagun batzuk alderdi sozialista bihurtu nahi bait zuten. Hauk kanpoan geditu ziren, eta ELAk, sindikatu bezala iraun (geroztik, ELA Berri izenekoak ELA Sindikatuak baino eginkizun zabalagoak hartu zituen). Hala ere, ELA Sindikatua bera ere, sozialismora abiatuko da poliki-poliki; gaurregun, pograma sozialista aurkezten du ELA Sindikatuak, sozialismo humanista dei genezakeen hori, halegia.

Hala ere, apaizen eta kristau talde ekintzaileen barnean bada kritikazko legamirik. Eta hiru aldetatik sortzen eta indartzen da protesta: Euskal Herriaren politik egoeraren kontra, langileen xurgapenaren kontra eta Eliz barneko egitura eta jokabideen kontra. Hitzezko nahiz egitezko agirietan hiru aldetatik aurrera daramate burruka hau apaiz talde handi batek eta kristau ekintzale askok azken hogeita bost urteotan. Aurrenengo hamar urteotan apostolutza bezala ikusten da ekintza hori: apostolutza kritiko eta profetiko bezala. Azken urteotan, berriz, apostolutzako kristau ekintzaileen aldetik batez ere, politik mailara eramaten da kristau ekintza bera.

1950 inguruan sortzen dute Gipuzkoako apaizek ixilpeko aldizkari bat, *Egiz* izenekoa, baina bi urte barru Gotzainak debekatu egin zuen eta inguruan zebiltzen apaizak kondenatu. Aldizkari horren protesta giroan eta JOC-en eta HOAC-en burruka giroan sortzen eta heltzen da, Hierarkiaren kontra sarritan, Elizaren aldetiko olde profetikoa. Ebanjeliozko kristau humanismo baten izenean eramaten da aurrera ekintza hau.

1960an, 339 euskal apaizek beren Gotzainei bidalitako gutunaren bidez etetzen da azkenik Euskal Herriko Elizaren ixilaldia. Gero eta nabarmenago eta indartsuagoa egingo da burruka hori, agiri idatzien bidez, sermoinen bidez eta bestelako protesta ekintzen bidez. Ia beti hiru arazo haiek: herri arazoa, gizarte arazoa eta Eliz arazoa, batera doaz apaizen ekintzetan; eta beren protesta eta ekintzengatik ehundaka apaiz multez zigortuak eta espetxeratuak izango dira.

Baina Kontzilioaren ondoren beste joera bat hartzen du zenbait apaiz eta kristau talderen burrukak: politikazkoa, halegia (13). Apostolutzako kristau taldeek astinaldi handia dute Kontzilioaren ondoren eta urte gutxiren barruan ia gehienak deseginda gelditzen dira, apostolutzazko talde bezala. Une honetan horietako batzu, Elizarekiko eta gizartearekiko profetismotik,

---

(13) Elizaren aldetik batez ere, baina politikazko eta gizartezko inguru zabalagoan ikusiz, Kontzilioaren ondoren Mendebaleko herrialde guztietan, eta Italian bereziki, gertatu den bilaka bidez eman zuen pentsabide eta bai jokabidetan idazlan oso irakurgarria eman zuen Mario Cuminetti-k italieraz: *Dal Concilio a "Cristiani per il Socialismo*, in: *IDOC Internazionale* (30-XI-1973) 30-39. Hiru aro berezten ditu: 1968ra artekoa; eta 1972-1973 bitartekoa. Nik hemen ematen dudan baino askozaz zehatzago eta xeheago ematen ditu bide horren gorabeherak.

politikazko ekintzara abiatzen dira, Eliza ofizialarekin eten bat sortuz; kristautasun profetikotik, bada, kristautasun politikora pasatzen dira. Hauen artean aipagarrienak *Herri Gaztedia* eta JOC dira, Gipuzkoan batez ere, eta Bizkaian ere bai.

Honekin batera, oinharriko kristau elkarteak indarra hartzen dute eta Euskal Herri osoan hedatzen dira, lehengo ekintza eta otoitz kristau taldeen hutsunea beste era batetara beteaz ere bai. Baina beren asmotan ez dago horrelako loturarik. Oinharriko kristau elkarteak joera oso ezberdinetakoak dira, giroa eta gizarte ingurua oso ezberdinak dituztelarik: batzu elkarrèkiko fede esperientzia bizitzeko eta gogoeta egiteko dira; beste batzu, Eliza itzuzionalaren egitura hestu eta artifizialetatik ihesegitearren, sortzen dira; azkenik, beste batzu badira, politikazko eta gizartezko kritika eta ekintzak biltzen dituenak, kristau diren aldetik Elizaren pentsabideak eta jokabideak ere astinduz. Hitz laburrez, esan genezake denak dutela oinharri bezala beren kristau fedea, baina honen dimentsio ezberdinentzatik biltzen dira elkarteetan: otoitzaren inguruan, kritika baten inguruan, ekintza baten inguruan.

Aipatu beharra dago oraindik Eliz barnean eratzen diren beste bi lagunarte: *Gogortasuna* eta *Hermandad sacerdotal* delakoa. *Gogortasuna* Bizkaian sortu eta finkatu zen batez ere; baina barnean zituen kezka eta gogoak Euskal Herriko apaiz askoren kezka eta asmoak ziren, lagunarterik sortzera iritsi ez baziren ere. Euskal Herriko Elizaren une latz eta bizienetako bat nabarmentzen du *Gogortasuna* lagunarteak, ia ia olde bat eratuz. *Hermandad sacerdotal* Espainia osoko fenomenua da, baina Araban eta Gipuzkoan indar berezia hartu du, kontrako indar bezala, eta lehen aipaturiko hiru alorretan, hain zuzen ere: Eliz barnean, integrismoa; Herri arazoan, espainolkeria, Euskal Herria ukatzeraino; gizarte arazoan, ordena ezarriaren zaleak eta anti-marxista eta antisozialista porrokatuak dira apaiz horik. Bi lagunarte hauek Euskal Herriko apaizen artean azken urteotan nabarmendu diren bi joera kontrakoak agertzen dituzte.

Politik eta Eliz inguru honetan gertatzen da Euskal Herrian kristautasunaren eta marxismoaren elkarganatzea; hala ere, hau ez da azterketa eta elkarrizketa teoriako baten bidez gertatzen; kristau talde ekintzaileak profetisotik politikara

pasatzean, marxismoarekin topo egin dute Euskal Herrian, eta orduan beren kristau izatea eta sozialista izatea, ekintzan —sarritan barneko krisialdi batek astinduta— aurkitu dute. Hiru talderen bidea aztertu behar dugu hemen lehenik: *Gogortasuna*, *Herri gaztedia* eta JOC. Orduan argiago ikusiko dugu "Sozialismoaren aldeko kristauen" lekua.

1968an sortu zen *Gogortasuna* lagunartea. Talde baten eratze hau Bizkaiko Elizbarrutiaren giro oso berezi batetan egiten da: Derioko Seminarioan apaiz talde handi batez egunetako egonaldia egiten du, Elizbarrutiko zenbait arazo larri jende guztiaren aurrean ezartzeko eta lehenbaitlehen konpondu beharra adierazteko. Hortik sortzen da *Gogortasuna* lagunartea, talde iraunkor bezala. Eliz ofizialaren barneko arazoak dira bada lagunarte honek zuzenean konpondu nahi dituenak; hala ere, arazo horik oso lotuta daude politikazko eta gizartezko arazoei. Nolabait Kontzilioak sorturiko esperantzak eta asmoak benetan harturik, Bizkaiko Elizbarrutian eta Euskal Herri osoan aintzakoztat hartzea eta betetzea eskatzen dute. Orduko beren agiri nagusi batetan, honela biltzen dute beren asmoa: *Eliza pobrea*, *Eliza libre*, *Eliza eragilea (dinamikoa)*, *Eliza herritarra* (bertakoa).

*Gogortasuna* lagunartearen eginkizuna Elizarekiko eta gizartearekiko profetismo mailan finkatzen da lehen urtetan: profetismo hori ez da, ordea, hitzekoa bakarrik; ekintzetan ere "gogor" azaltzen dute beren protesta. Horregatik askok poliziaren zigorra jasan behar izan du, eta zenbaitek espetxera joan behar.

Cirarda apezpikuaren diplomaziaren bidez eta Añoveros apezpikuaren eraberrikuntza edo erreformismoaren bidez; *Gogortasuna* taldearen dehiadarra makaldu egiten da; bestalde, poliziaren zigorkadak sakabanatu eta ahuldu egiten, lagunarte bezala ere.

Hala ere, 1973ko urrian, Zamorako espetxeko apaizen istilu hartan, hain zuzen ere, artean bere "gogortasuna" azaltzen du, apezpikutegian egonaldi luze bat eginez, poliziak guztiak kanporatzen dituzten arte. Orduko azterketa eta agiri batetan sozialistatzat jotzen dituzte beren buruak *Gogortasunakoek* : "Sozialistak baikara, kapitalismoak dituen produzio bideen aurka galarik langileriaren ikusmirak gogoan harturik. Eta euskaldunak izanik gizarte klaseen interesekin Euskal Herriaren nazional zapalkuntza alkatuak".

Klase arazoa eta herri arazoa elkartu nahi dituzte, bada, agiri honetan: eta guztia, sozialismoaren argitan. Hala ere, zehaztu gabe dago zein sozialismo mota onartzen duten. Dena dela, argi dagoena zera da: Eliz barneko burruka batetatik nola igaro diren beren buruak gizarteari buruz eta herriari buruz definitzera. Profetismo joera batetatik, politikazko joera batetara pasa dira. *Gogortasuna* lagunartearen teoriakzko gogoeta ez da handia izan: ekintza izan da batez ere apaiz horiek eman dutena. Horregatik sozialismoaren eta kristautasunaren arteko harremanaren azterketa sakonik ez dugu aurkitzen. Baina sozialismoaren aukera aurrez-aurre jarri diote kristauari eta apaizari. Aukera hau nolabait berria da Euskal Herriko Elizan.

*Herri Gaztedia* kristau apostolutza taldea izan da: talde ofiziala, Elizbarrutiari lotua, beraz. Nekazal munduari atxekia, Iparraldean, Gipuzkoan eta Bizkaian indar berezia lortu zuen, beste apostolutzako taldeen artean. Eliza ofizialaren apostolutza taldeen artean, *Herri Gaztedia* izan zen Euskal Herriaren herri arazoa aurrenik piztu zuena eta erantzun bat eman nahi izan ziona. Iparraldekoa alde batetara utzi beharko dugu, haren eboluzioa berezia bait da; Bizkaikoak ere bere astinaldi bereziak jasan zituen, Gurgide apezpikuaren garaian batez ere. Gerotik ez du indar handirik hartu, apostolutza talde bezala behintzat. Hala ere, Gipuzkoakoari aski lotua dago Bizkaikoak ere. Gipuzkoakoan aztertuko dugu, hain zuzen ere, apostolutza ekintzako talde honen bilakabidea.

Nekazaritzak indarra galduz batera, nekazari gazte asko eta asko lantegitara abiatzen da, eta *Herri Gaztediak* bere alorra galtzen du. Honela, izatez "*Baserri Gaztedia*" zena, benetan "*Herri Gaztedia*" bihurtzen da. Eta honetxek markatzen du, hein handi batetan, horren ideologiakzko eta jokabidezko bilakabidea. GAZTE izeneko aldizkari bat izan du *Herri Gaztediak*; lehen taldetik kanpora ere zabaltzen zen, orain, berriz, taldeko boletín bezala bihurtu da. Aldizkari horretan ikus eta azter daiteke taldearen pentsabidea eta jokabidea.

*Herri Gaztediak* baserritik kalera jotzean, klase arazoaz topo egiten du, eta berehala lehendik zekarren herri arazoa eta orain datorkion gizarte arazoa batu beharrean gertatzen da. Sozialismora eta marxismora jotzen du orduan *Herri Gaztediak*,

eta apostolutzatik, gizarteko gogoeta eta ekintzara aldatzen da. Aldi berean, Hierarkiaren babesa eta begi ona galtzen du. Aldi honetan kristautasunaren eta marxismoaren arteko harremanaren arazoa bizi-bizia da GAZTE aldizkaria. Eta benetan *Herri Gaztedian* jartzen da kristau eta marxista batera izatearen arazoa aurrenik euskal kristauen artean: ez, ordea, teori hutsean, bizitzan baizik. Sozialismo eta marxismo bidetik aztertu nahi du *Herri Gaztediak*, kristau taldea denez eta kristau fedearen argitan, aurrera eraman nahi duten Euskal Herriarekiko eta euskal gizartearekiko iraultza.

JOC izan da urte luzetan Elizaren apostolutza ekintzako talderik biziena, Gipuzkoan eta Bizkaian bederen. Elizaren gizarte-arekiko irakasbidetik edan izan du; baina ekintzara jotzean, beste taldeekin, eta hauen artean, marxistekin batez ere topo egin du, eta horiekin elkartu behar. Beste taldeak bezala, Eliza barnean eta apostolutza mailan krisialdi zorrotza jasaten du Kontzilio ondoren; eta sindikatu erara jokutzen du bereziki.

Klase arazoa betikoa du bere barnean; baina beste langile indarren eraginez eta horiekin duen elkartasunean, arazo hura aztertzeko eta argitzeko bideak marxismoan aurkitzen hasten da, Ezin daiteke JOC, *Comisiones obreras* direlakoekin lotu, halere. Baina pentsabidez eta jokabidez JOC-ek, Gipuzkoan bederen, bere kristau fedea eta gizarteko ekintza, marxismoak ematen dion azterbidez aztertzen du. Gaurregun, beraz, sozialista eta iraultzailetzat jo daiteke JOC, Gipuzkoan behintzat. Besterik gabe marxistatzat hartu daitekeenik ezin esan, ordea.

Klase arazoarekin batera Herri arazoa bizi-bizia du gaurregun Gipuzkoako JOC-ek, eta hein handi batetan, Bizkaikoak ere bai. Euskal Herriko langilearen askapen osoa, klasearenetik ezezik herriarenetik datorrela uste bait du.

JOC-ek, Hierarkiarekin tirabira handian ibiliarren, kristautzat jotzen du bere burua. Ez da ekintza katolikoa zuzenean betetzeko; baina bere eginkizuna, ebanjelizazioari oinharria jartzea bezala ikusten du, eta alde honetatik *kristau ekintzatzat* hartzen du bere asmoa. Horregatik kristautasunaren eta sozialismoaren (sozialismo marxistaren?) arteko harremana bete-betean aztertu eta bizi beharrean aurkitzen dira JOC-ekoak.

Talde hauek ezarria dute, bada, kristau marxistaren arazo-

a Euskal Herrian eta euskal Elizan, "Sozialismoaren aldeko kristauak" sortu aurretik. Eta nolabait behin eta berriro aipaturiko hiru aldetatik daramate beren azterketa eta ekintza: herri arazoaren aldetik, gizarte (klase) arazoaren aldetik, eta Eliz barneko arazoaren aldetik. Iraultzaileak direlarik, hiru alde horietatik abiatu nahi dute iraultza bidea. Guzti hau ere kontuan hartu beharrekoa da SAKen pentsabidea eta jokabideak argitzeko, ulertzeko eta kritikatzeko.

SAKek ezarriko du argien eta zehazkien kristau eta marxista batera izatearen arazoa, Euskal Herrian eta euskal Elizan. Olde hau Euskal Herrian sortua ez bada ere, hemen ere giroa prestatua aurkitzen du nolabait arazo hori aurrez-aurre ezartzeko.

*Sozialismoaren aldeko kristauak* (SAK). olde bezala, berri xamarrak badira mundu osoan, berriagoak dira oraindik Euskal Herrian. Hala ere finkatuz eta indartuz doaz Bizkaian eta Bilbo aldean batez ere; Iruinean eta Gipuzkoan ere sortzen ari dira taldeak. Iparraldean ez da oraindik sortu SAK talderik.

Espainiako beste taldeekin elkartasun hestua du Euskal Herriko SAKek. Erakunde bat ez baldin bada ere, ez eta herrialde bakoitzaren barnean, Estatuaren mailan antolatu izan dira SAKen batzar nagusiak. Euskal Herrikoa Espainiako SAK oldean agertzen da. Hala ere, Euskal Herriaren politikazko, gizartezko, kulturazko eta Elizazko egoera eta dinamika bereziak gogoan hartuz, arazoak ere bereziak ditu SAKek bere gogoetarako eta bere ekintzarako. Artikulu honen azken zatian aztertu nahi dut Euskal Herriko SAKen pentsabidea eta jokabidea.

## Zer da SAK

Orain arte esan dugunetik errazki atera daitekeela uste dut SAK ez dela Eliz barneko **apostolutza taldea**. Gainbeheraka etorri dira azken urteotan kristauen apostolutza erakunde horik; SAKek ez du horien hutsunea bete nahi, pentsabidez eta jokabi -

dez ertzean jarriz edo (14). Ez du izan nahi ere, Kontzilio ondoren sortu eta hedatu diren *oinharriko kristau elkarten batasuna*; elkarte horietako askorekin badu hartukizun handirik, eta neurri handi batetan elkarte horiek, elkarte bezala, edo horietako zenbait lagunek osatzen dute SAK (15). Azkenik, SAK ez da jatorriz, Eliz barnean sortu eta finkatu diren *indar kontestatzaileen erakundea*; badu Elizarekiko kontestazio alderik, baina alderdi bat besterik ez da hori, eta ez aurrena gainera. Laburki esanez, SAK ez da Eliz barneko taldea, edo lagunartea, edo erakundea, edo elkarte berezia.

Beste aldetik, SAK ez da politikazko alderdia. Politikarekin zerikusi handia du, politikazko kristautasuna bait du bere pentsabidearen oinharrietako bat; baina ez da politikazko ekintza betetzeko eta politik agintaritza eskuratzeko *alderdia* (16). Politik talde edo alderdi sozialista eta iraultzaileen artean SAKek ez du hautapenik egiten; izatez, horietako lagun askok SAKen eskuhartzen du. Politika alorrean ez da, bada, "neutrala"; delako "neutraltasun" hori ukatu egiten du, kristau fedea ez bait legoke bizitzerik gizonaren politikazko dimentsioan ezik. Eta politikazko bere hautapen zabala ere egina du: sozialismoa eta iraultza; baina politik bideak ezberdinak izan daitezkelarik, ez zaio alderdi bati lotzen.

SAKen oinharriko asmo nagusia hauxe da: Gizarte sozialista eraikitzeke kristau iraultzaileen indarra eta ekintza eskaini; bestelako indar iraultzaileen artean, kristauena jarri nahi du munduan. Horregatik asmo honekin bat datozenek, kristau taldeak izan nahiz bakarka, SAK osatzen dutela esan genezake.

---

(14) Perpiñan-eko batzarraren ondoren ateratako agiriak honela dio: "No queremos ser la actualización ni el doblaje revolucionario de los movimientos apostólicos obreros" (Fierro - Mate, a. l., 225 or.).

(15) Ekintzan ari diren taldeen batasuna da; SAKen barnean Oinarriko Kristau Elkarteeek beren ekintza politiko eta askatzailearen gogoeta eta argitasuna egiteko aukera dute. "Si se consigue que los miembros de las comunidades cristianas acepten el compromiso político y acepten una reflexión cristiana desde esa experiencia, tenemos a CPS en marcha. La comunidad es el lugar propio de la re-formulación" (de la fe) (Reyes Mate, Trasfondo teórico del fenómeno "Cristianismo por el Socialismo", in *Iglesia viva* (1974, 52-53) 322.

(16) Perpiñaneko agirian bertan argi eta garbi adierazten da hau, arrazoina emanez eta guzti: "No queremos ser ni llegar a ser, ni parecer nunca un partido político de cristianos. Y ello porque rechazamos toda confesionalidad política, aunque sea de izquierda" (Fierro - Mate, a. l., 225 or.).

Izan ere SAK olde edo mugimendu bat da, asmo baten inguruan finkaturiko oldea; berez ez da erakundea. Hala ere, asmo horren ingurura biltzen diren guztiek elkartasun bat sortzera jotzen dute, eta azkenik erakunde moduko bat antolatzen.

Honela, bada, kristau iraultzaileen presentzia *eratu* bat da SAK, eta nazioartekoa. Baina erakunde bezala behin-behingoak bakarrik hartzen dute; hain zuzen ere, kristau sozialista eta iraultzaile horien presentziak sortzen dituen arazoak konpontzeko dago SAK, elkartasun eta erakunde bezala; sozialismoaren eta kristau fedearen arteko arazo teorikoak eta praktikoak aztertu, sakondu eta argitu ahal izateko elkartzen dira kristau talde edo banakako horik (17).

Gizartearen azterketatik abiatzen da SAKen pentsabidea eta jokabidea, eta ez inolako ideologiatik edo aurre-eritzitik. Gizartearen egoera hau, ordea, ez da zuzena: ekonomiaren antolaketa, pobreak eta langileak xurgatzeko eginga dago; ugazabek, berriz, politikazko agintariez baliatzen dira beren interesei eusteko; honela, gizon bezala eta kristau bezala onar ezinako zapalkuntza nabari da gure gizartean eta herrian, goi-mailako klaseen aldetik behe-mailakoen kontra. Eskema soil bezala, hauxe izanen litzateke azterketa horren laburpena. Jakina, giro eta herrialde bakoitzean eskema hori era ezberdinetan borobiltzen eta betetzen da.

Zapalkuntza eta zuzengabekeria hauen sustraia ekonomiazkoa da, hobe esan, kapitalismoarena, hau, ekonomiazko sistema bezala, irabazian, lehiakerian eta xurgakuntzan oinarrituta bait dago. Kapitalismoa, berriz, ez dago goxatzerik, ez eta aldatzerik ere. Horregatik, iraultza baten bidez xautu behar da kapitalismoa: sozialismo iraultzailearen bidez, halebidea (18). Iraultza hau egiteko

---

(17) "CPS pretende ser vínculo de coordinación y ayuda entre las personas y grupos cristianos que han hecho una opción socialista y que frecuentemente andan aislados, quizás sin encontrar del todo su camino. En CPS confluyen personas y grupos con circunstancias e historias diferentes. No se trata de uniformar la fisonomía de los diversos miembros sino de coordinar y potenciar la labor de todos" (*Liaisons Internationales I* (1974) 11.

(18) "El socialismo se presenta como la única alternativa aceptable para la superación de la sociedad clasista. En efecto, las clases son el reflejo de la base económica que en la sociedad capitalista divide antagónicamente a los poseedores del capital de los asalariados" (Santiago de Chile-ko azken Agirian; Fierro-Mate, *a. l.*, 294-295 or.).

bide bakarra, berriz, marxismoa da. Honela, bada, SAKek sozialismo marxista hautatzen du, kapitalismoaren sistema erabat eta barne-barnetik apurtzeko bide bakartzat.(19).

Gaurko gizarte eta mundua zuzentzeko, bada, sozialismo marxista da kapitalismoari erabat kontra egin liezaiokeena. Honela definitzen du G. Girardi-k sozialismo hori: "Gizarte kapitalistaren aldakuntza orokorra da sozialismoa, bai haren egituretan bai haren kulturari; herri klaseen burrukaren bidez egiten da aldakuntza hori, eta maila guztietan nagusikeriazko harremanak apurtu nahi ditu, herria bere historiaren egile izango den gizartea sortzeko" (20). Iraultza osoa, beraz, eta iraultza erabatekoa.

Marxismoaren historiazko materialismoak ematen du iraultzaren teoria. Baina historiazko materialismoak ez du politika eta ekonomia bakarrik argitzen, eta bai kultura eta erlijioa ere. Horregatik SAKek nahi duen iraultza ez da politikazkoa eta ekonomiazkoa bakarrik, kulturazko ere bada eta baita erlijiozkoa ere. Iraultzaren asmo oso honetan aurkitzen du, hain zuzen, bere lekua SAKek, kristau denez, baina politikan nahasita dabilten kristauena: iraultza bidea hautatuz, kristau bezala elkartzen dira; baina kristautasuna indar kapitalistek beren erara moldatua dadukatelarik, SAKen eginkizuna ideologiazkoa, kulturazkoa eta politikazkoa gertatzen da (21).

---

(19) Hautabehar honen zergatiak eta bidea oso argi azaltzen ditu B. Sorge-k, *Il movimento ...* aipaturiko artikuluan, 116-119 or. R. Belda-k, bere aldetik, honela biltzen du SAKen eritzia: "Los CPS están persuadidos irrevocablemente de que no existe una alternativa válida a los sistemas sociopolíticos opresores de la humanidad actual, fuera del marxismo. Ser revolucionario y ser marxista son equivalentes. Aquel que no es marxista se convierte irremediabilmente, pese a sus protestas, en cómplice objetivo del capitalismo explotador o del fascismo tiránico" (*Los 'Cristianos por el socialismo' ante el Ateísmo*, in: *Iglesia Viva* (1974, 52-53) 404-405 or.).

(20) *Cristiani per il Socialismo*, Sapere Ed., Milano 1974, t. I, 154-201. Orrialde hauetan jasotzen du liburuak G. Girardik SAKi buruz ukan duen hitzaldi nagusienetako bat, eta hortxe agertzen da ere berak sozialismoari buruz duen eritzia.

(21) Honela argitzen du puntua hau Reyes Mate-k: "Lo que identifica a CPS como grupo es su referencia a Jesús de Nazaret, entendida de una determinada manera y a partir de un determinado presupuesto (opción revolucionaria). Pero debido al hecho de que CPS nace en un contexto de sociedad capitalista que ha secuestrado y domesticado el cristianismo, CPS tiene una tarea política (en sentido amplio): la lucha ideológica es el desmontaje de aquellos instrumentos mediante los cuales el capitalismo asegura su reproducción" (*a. a.*, 320 or.).

Burruka honek Eliza ofiziala kritikatzera darama SAK, eta bereziki Elizak onartzen duen eta nahi lukeen sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko "hirugarren bide" hori. Izan ere, azkenik gizarte kapitalistari adabaki batzu ezarri eta aldaketatxo batzu egitea besterik ez bait du nahi bide horrek. Erreformismoaren kontra dago, bada, SAK; eta horrexegatik ere Elizak aldarrikatzen duen klaseartekoatasunaren kontra. Klaseartekotasuna da, hain zuzen ere, Elizak gaur daraman "hirugarren bide" horren oinarria.

Marxismoaren gizarte azterketari atxekiz, klaseen arteko burruka (proletalgoaren eta burgesiaren artekoa bereziki) jartzen du SAKek sozialismo iraultzailearen bide bezala, eta proletalgoaren aldeko hautapena oinarrizatzat hartuz, hain zuzen ere (22). Kristauak proletalgoaren indar eratuetara biltzea da SAKen eginizuna, honela Eliza barnean bertan oldar sozialista bat finkatuz.

Sozialismorako iraultza bidea beronen osotasunean eta erabatekotasunean hartzen dutelarik, Mendebaleko Alderdi komunistak baino ezkeragotik dabiltza "Sozialismoaren aldeko kristauak". Italian, esate baterako, Parlamentutik kanpora beren politik burruka daramaten talde marxistekin baterago dator SAK, Alderdi komunistak "ofizialarekin" baino. Honek, bere "Compromesso storico" delakoaren politika bidea —Kristau Demokrazia-rekin akordio bat eginez, agintaritzan eskuhartzekoarena, halegia— azken aldi honetan daramalarik, ez zuen ordezkariarik ere bidali SAKek, joan zen abenduan, Napoli-n egin zuen batzar nagusira, beste politik talde ezkertiarrek bidali zituzten bitartean.

Era berean nabarmena da SAKen marxismoari buruzko adierazpen kritikoa eta edozein dogmatismoren aurkakoa: iraultza teoria eta bide bat bezala hartzen du, eta ez dogma multzo bat bezala. Behin eta berriro agertu izan dute ideia hau "Sozialismoaren aldeko kristau" buru teorikoek. Santiago de Chile-ko Batzar nagusiaren azken agiriak honela dio: "Sozialismoaren eraikitzea bide berritzailea da, edozein dogmatismo hertsiren eta edozein jokabide kritikagaberen kontrakoa. Sozialismoa ez da historiatic kanpoko dogma multzoa; xurgapen edo hustiapen

---

(22) Marxismo klasikoaren klase banaketa, ordea, gaurregun aldatuta geratu delarik, proletari klasearen herri jendeteria eransten diote: "Clase proletaria y las masas populares".

kondizioen teoria kritikoa, etengabe haziz doana da sozialismoa, batetik; iraultza ekintza, bestetik. Iraultza bide honek politik agintaritza bereganatzera eraman behar ditu hustiatuta dauden gizateriak, eta horren bidez, produzio eta finantziaketa gailuek eskuratzera eta ekonomia bere osoan eta zentzuz planifikatzera " (22').

Oso urruti dago, beraz, SAKen sozialismoa, Portugal berri eta sozialistaren gidari "bide" zen Spinola jaunarenetik. "Produzio gailuen jabego pribatua errespetatuko zuen sozialismo *en libertad*" delakoa nahi zuen Spinolak. Zein sozialismo mota izango litzatekeen honako hau ez da ulertteraza; eta Portugaleko militarrek ere ez zuten nonbait ulertu ez eta onartu ere, hitz horiek esan eta egun gutxitara bota bait zuten Spinola jauna lehendakari-zatik. Sarritan modako hitz hutsa gertatzen da gaur sozialismoa.

SAKek ez du uste *kristau* sozialismo berezirik asmatu duenik, ez eta asma daitekeenik ere. Horregatik ez daukate kristauak, beste indar sozialista eta iraultzaileen aurrean, *beren* sozialismo asmorik ematerik. "Sozialismoaren aldeko kristauak" ez dira kristautasunetik sozialismora abiatu; gizartearen azterketan bertan, iraultza osoa eta erabatekoa argitzeko eta bideratzeko teoria aurkitu dute marxismoan; eta, beraz, proletariet sortu eta indartu dituzten erakundeen barnean eta kristau ez diren marxistekin iraultza egiteko prest daude. Ez dute, bada, kristauak beren politik erakunde edo partidurik sortzen.

Beren fedeak kristauei sozialismo mota edo berezirik markatzen ez badie, harek ez ditu kristauak sozialismora behartzen ere. Fedea ez da sozialista, kapitalista ez den bezelaxe; hala ere, iraultza sozialistatik eta proletarien burrukatik abiatu den kristauak, barnetik somatzen du bere politik hautapenaren kidetasuna. "Gure hautapen sozialista, errealitatearen azterketa zientifikoan oinarritzen da eta langileen burruken barnean egizatzen; erlijiozko diferentziak aparte, klaserik gabeko gizarte baten alde burrukatzen diren guztiekin elkartzen gaitu horrek" (23). Fedearen izenean kristau guztiak sozialismora behartzea, ezkerreko integrismora erortzea izango litzateke. Kristautau-

---

(22') Fierro - Mate, *a. l.*, 295 or.

(23) Bolonia-ko azken Agirian. Ik. Fierro Mate, *a. l.*, 335 or.

suna beraz ez da iraultzabidearen zuritzailea edo legeztatzailea(24).

Fedearen izenean inor sozialista izatera behartzerik ez badago, ez dago fedearen izenean inor sozialista ez izatera behartzerik ere. SAKek sozialismoaren hautapena egin du, eta sozialismo iraultzailearena, hain zuzen ere. Hautapen horren jatorrasuna Elizak aitortzea nahi du SAKek. Izan ere, "Sozialismoaren aldeko kristauek" Elizaren barnean egin dute beren hautapena eta aurrera eraman beren klase burruka. Kristau fedea ez da politikazko hautapena baino lehenagotiko edo "gagnetikako" zerbait, hautapen horren barnean gertatzen dena baizik; (Baina honetaz hurrengo zatian mintzatuko naiz, bai eta klase hautapenaren eta fedearen arteko harremanaz ere). Oraingoz aski da esatea, sozialistatza (marxistatza) eta kristautatza hartzen dituztela beren buruak SAKekoek. Marxismoa eta kristautasuna norbere pentsabidean eta jokabidean elkartzek galderarik eta arazorik sortzen dituenik ez dute ukatzen; baina galdera eta arazo horiek argitzen saiatzea da, hain zuzen ere, SAKen eginkizunetako bat.

Santiago de Chile-ko Silva Enríquez Kardinalari SAKen Batzarraren antolatzaileek eman zioten erantzunean, *metodu edo bidetzat* hartzen dute marxismoa, eta alde horretatik ez legoke inola ere kristautasunaren kontra: Azken askapena Kristogan gertatzen dela aitortzen dute; baina horrek ez luke esan nahi, gizartezko eta ekonomiazko askapena bilatzeko, aztergailu eta langailu gizatarrak erabili behar ez direnik. Gaurregunez, ordea, benetako aztergailu eta langailuak ez dira aurkitzen, marxismoaren teoriatik aparte. Horiek, hala ere, ez dute Kristogan dugun

---

(24) Alde honetatik ez nator B. Sorge-rekin bat. Honela dio bere *Il movimento...* aipaturiko artikuluan: SAKen ustez "ai cristiani non rimane che il grave dovere compiere una scelta politica e di partito a fianco dei marxisti, per la conquista del potere" (122 or.). Berdintsu dio bere bigarren artikuluan: "... assicurando che la scelta marxista da essi compiuta non solo non comporta alcuna incoerenza verso la fede, ma sarebbe addirittura un dovere imposto dal Vangelo nelle circostanze presenti, quando solo attraverso la prassi rivoluzionaria si possono soddisfare quelle esigenze di giustizia..." (460 or.). Baina hemen beharbada zeharka bezala jartzen du lotura hori. Boloniako azken agiriak dioenez -eta honelako baieztapenak sarritan aurkitzen dira SAKekoan idazkietan-, "No tratamos de convertir al cristianismo de instrumento de legitimación del orden constituido en justificación de la revolución" (Fierro-Mate, *a. l.*, 335 or.). Gauza bat da sozialismoa hautatzen duten kristauak, kristau ez diren sozialistekin batera burrukatu behar dutela esatea, eta besterik, edozein kristau bere fedearen izenean eta eraginez sozialismoaren alde burrukatzera behartuta dagoela esatea.

askapena agortzen. Giulio Girardi-k, ordea, lehen ere aipaturiko bere "Los cristianos de hoy ante el marxismo" artikuluan, *filosofia orokortzat* hartzen du marxismoa, eta ez du uste, marxismoa iraultzaren zientzia denez eta marxismoa filosofia denez, bereizi daitekeenik. Hala ere, Girardik berak, marxismoaren eta kristautasunaren arteko batasun dialektikoa egiteko, dogma hila eta geldia bezala ezik, teoria bizia eta dinamikoa bezala hartzen du marxismoa. Dena dela, marxismoaren adiera bera oraindik argitu gabe daukate SAKekoek, eta badira marxismoaren aldetiko jatortasuna ukatzen dien marxistak (25). Bestetik gabe, ez dirudi, kristautasunaren eta marxismoaren elkartzeko bideak urratzeko eskubidea ukatzerik dagoenik. Kultura eta filosofia diferentetan kristautasuna berrituta ernetzen baldin bada, marxismoaren soroan ez ote daiteke eraberrituta eta indartuta erne? Ebanjelioaren eta kristautasunaren adierazpen berri hori emateko, teologiazko bide berriak urratzen saiatuko da SAK (26).

Kristauen oldea denez, kritikazko indarra izan nahi du SAKek Eliza ofizialari buruz; eta horrekin batera, kristauak argitu nahi ditu, kristautasun idologizatutik libratzeko, hain zuzen; izan ere, kristautentzat erlijioa bera gertatu ohi da kapitalismoak bere sistemartzeko darabilen ideologia. Horixe luke SAKek bere egingizun berezia, indar iraultzaile eta sozialisten artean.

### SAKen teologia: Askapen teologia

"Sozialismoaren aldeko kristauak" ez dira, inola ere, teologi mota edo bide baten ingurura bildu. Baina beren klase hautapenak eta sozialismorako iraultzazko burrukak, teologia

(25) R.Beldak ere horixe uste du (ik. a. a.).

(26) Marxismoaren eta kristautasunaren arteko zenbait tirabira aipatuz, honela dio Reyes Mate-k: "Aparte su 'ingenua' adopción del marxismo -no entrando en el debate de sus innumerables variantes- quedan pendientes de solución los problemas clásicos: la relación entre amor cristiano y lucha de clases; materialismo marxista y trascendencia cristiana; el problema del ateísmo; la precisión del sujeto de la historia, etc." (a. a., 322 or.)

bera, fedea, Eliza eta kristautasuna beronen osotasunean berriz ulertzeraz eta adierazteraz daramate SAK.

*Askapen teologiarekin* batera genezake SAKen teologiazko gogoeta. Askapen teologia bezala, SAK ere Hegoameriketara sortua da. Teologi bide bezala 1968an, Medellin-go CELAMen batzarran finkatzen da Askapen teologia (27). Kontzilioaren ondorengo teologi bide luze eta zabalago baten hildoan ikus genezake *askapen teologia*: Antropologi teologia –politik teologia– askapen teologia... Teologia honek ez ditu aztergai berriak aurkitu edo jorratu; teologia bera egiteko era berria da *askapen teologia*.

Bi urratsetan aztertuko dut SAKen teologia: aurrenik, teologiarekiko pentsakera bera, teologi metodologia, halegia; ondoren, teologiazko gogoetaren hildo nagusiak.

## 1. Teologiazko gogoeta berria

Fedearen argitan ekintza historikoari buruz egiten den gogoeta kritikoa da *askapen teologia*. Asmo hauze dago SAKeko "teologariaren" barnean. Baina teologia *egitea* ez da burulanean ari diren batzuren eginkizuna; teologiazko gogoetaren giroa ez da gela ixila, iraultzazko ekintza bizia baizik (28). Teologia egitea ez da, bada, ogibide edo bizibide bat, astialdietako eginkizuna baizik. Iraultza ekintzaileen bilerak dira teologiazko gogoeta egiteko giroa, eta "teologaria" kristau elkarte bera da, ekintzari lotua dabilen kristau elkarte, halegia (29). Izan ere, teologiaren lehen eginkizuna, *kristau iraultzailearen irudia ematea da*. Eta

(27) Teologi bide honen inguruko liburu sail bat *Fe cristiana y cambio social en América Latina*, Ed. Sigueme, Salamanca 1973, 398-414 or., ikus dajeteke. Geroztik ere asko idatzi da honetaz, eta askapen teologia hedatu eta indartu egin da.

(28) "Este trabajo creador no es asunto de laboratorio, es decir de un grupo de 'teólogos' (éstos sólo producirían una mejor -quizás- teoría pura. Pero la pura teoría solo vale para interpretar, no llega a transformar), sino que la actividad cotidiana de los cristianos comprometidos es la auténtica escuela de teología" (Reyes-Mate, *a.a.*, 321 or.).

(29) Ik. G. Girardi, in : *Informations Catholiques Internationales* (1972, 409, ekainak 1) 18.

kristau iraultzaileak, ekintza barnean, berak aurki lezake hobekien irudi hori (30), ekintza horretan berak bizi duen fedea aztertuz.

Teologia *egin* egiten da, ez ikasi; hori ez dago behin eta betiko egina; toki bakoitzekoa, une bakoitzekoa da teologia: gizartearen dinamikaren azterketari lotua (31). Teologi bide berri bat irekitzen dutelakotan daude "Sozialismoaren aldeko kristauak", kristauaren ekintza iraultzazkoaren mamia argitzen saiatzen direnean. Ez da hizkera berri bat sortzea bakarrik, teologiaren asmoa eta bidea ere berriak dira, kristauaren iraultzabidetik eta iraultzazko ekintza horretan sortua delako, hain zuzen. Halere, teologia modernuak ireki dituen teologi bidetatik dabilela uste du SAKek; lehen ere aipatua dut nola askapen teologia, teologia antropologikoaren eta politik teologiaren aritik dabilen (32).

Iraultza ekintzaren barnean egiten den teologiazko gogoeta, teologiaren sortzailea da; iraultza praxiak berak darama barnean teologiazko sormen berria. Izan ere, askapen teologia, askapen ekintzarekiko gogoeta delarik, praxi hortatik abiatzen da, hortatik mantentzen da, hortxe finkatzen da. Izatez, ez dago teologia neutralik edo inpartzialik; edozein teologiazko gogoeta nolabaiteko hautapen eta praxi batetatik eta nolabaiteko ideologiatik abiatzen da; praxi eta ideologia horietan mamitzen da. Askapen teologiak ez daduka hori iskutatzen ibili beharrik: argi eta garbi aitortzen du teologia alderdizalea, partidista dela, iraultza hautapen eta praxitik abiatzen denez (33). Hau aitortzen duelarik, Elizaren teologia ofizialaren alderdikeria ere salatuko du, horren burges ideologi kutsua nabarmenduz.

(30) Horregatik SAKen teologiazko gogoeta hau ez da "ofiziala"; eta ez da teologiazko aldizkarietan edo teologi akademietan agertzen eta ematen, ekintzaileen boletinetan, bileren agirietan eta beste aldizkari informaletan baizik. Hala ere, esan beharra dago SAKek badituela bere teorizaleak: Girardi, etab.

(31) Badu asmo honek bere garrantzi handia: teologia, iraultza ekintzatik kanpora egindako sistema ez bada, ez da norbere herritik eta gizartetik eta kulturatik kanpora egindako sistema ere, gero gurera aldatua edo. Idazlan honen azken zatirako gogoan eduki beharko dugu SAKen teologiazko asmoaren puntu hau.

(32) "Sin los logros de la moderna teología, que ha puesto de manifiesto el valor *fundamental* de la dimensión pública de la fe, sería impensable un planteamiento como el de CPS" (Reyes-Mate, *a. a.*, 313 or.):

(33) Ik. G. Girardi, in: *Informations* . . . , *ibid.*

SAKek egiten duen teologiak ez du, klase hautapenaren eta iraultza ekintzaren zuritze edo legeztatze lana izan nahi, hautapen eta ekintza horien kanpotik egiten den gogoeta ez denez askapen teologia. Teologia kritikoa da; ekintzaren barrutik egin nahi du ekintzaren beraren kritika. Zera esan nahi du honek: kristau iraultzaileak ekintza bizi duen fedea ez dela kanpotik eroritako zerbait edo praxiaren aurretikoa; baina ekintzaren barruan, eskabidearen kritikatzaille eta akuilatzaile gertatzen da.

Ekintza bera, askapen ekintza bera da teologia bizi den soroa eta teologiazko gogoeta mantentzen duen ongarría. Ekintzatik abiatzen delarik, ekintza izango da ere, gogoeta hori jatorra den ala ez epaitzeko erizpidea. Praxia-teoria-praxia: hona hemen SAKen teologi metodologia. Praxiak biltzen du teologiazko gogoeta osoa. Metodu hau Biblian bertan oinarritzen dela uste du; izan ere Jainkoaren agerkundea ez da hitzetan (teorian) bakarrik gertatu, eta bai ekintzetan ere. *Verbum Dei* Constituzioak dionez, "Haec revelationis oeconomia fit gestis verbisque intrinsece inter se conexas, ita ut opera, in historia salutis a Deo patrata, doctrinam et res verbis significatis manifestent ac corroborent, verba autem opera proclament et mysterium in eis contentum elucident" (2.zenb.). Hitzak ekintza aztertu eta argitu behar du; ekintzak hitza egiztatu behar du. Ekintza da, beraz, teologiazko gogoetaren sortzailea eta egiztatzaillea (edo gezurtatzailea) (34). Ekintza gogoetaren egiztatzaillea dela esatean, gogoeta hori egiazkoa den ala ez jakiteko erizpidea dela esan nahi da; baina ez hori bakarrik: ekintzan gogoeta egia bihurtzen dela ere esan nahi da, benetan ekintzak egiazkotzen duela gogoeta.

Ekintza baldin bada teologiaren soroa eta gogoetaren egiaren erizpidea, orduan fedea eta Biblia bera, ekintzaren jatorrasunaren argitan ulertu behar ote dira? Hementxe dago, hain zuzen ere, SAKen teologi bidearen gakorik bihurriena.

---

(34) "La reflexión sobre la fe deja de ser una especulación fuera del compromiso en la historia. Se reconoce la praxis revolucionaria como matriz generadora de una nueva creatividad teológica. El pensamiento teológico se transforma así en una reflexión crítica en y sobre la praxis liberadora en confrontación permanente con las exigencias evangélicas.

La reflexión teológica asume como requisito indispensable para el cumplimiento de su tarea instrumental socio-analítico adecuado para captar críticamente la conflictividad de la realidad histórica" (Santigoko azken Agirian; Fierro-Mate, a. 1., 301 or.).

Teologia tradizionala fedearen gogoeta bezala definitzen zen: "Fides quaerens intellectum". Fedearen jatorrasunaren erizpidea, berriz, Idazteuna eta azkenik Elizaren irakaspena zen. Elizaren fedea zen, beraz, teologiazko gogoeta egiazkoa zen ala ez jakiteko erizpidea. Teologiazko sistema ederrak borobildu zitezkeen, gero fedezko gogoeta hori bizitzaratzen ez bazen ere; teologariaren edo Elizaren bizitzak eta jokabideak ez du teologiazko gogoetaren eta fedearen argia iluntzen. Teologia argitsu eta on bat egiteko ez da bizitza zintzorik behar: aski da Elizaren fedeari sendo eustea eta buru argia ukaitea. Teoriatik bereiz dabil, bada, kristauaren ekintza. Eta teologariak teorizatu ere egingo dute bereizkuntza hori, maitasunik gabe fedea ukan daitekeela eta teologari ona izateko karitate edo grazia beharrik (batzumentzat fede beharrik ere ez) ez dagoela eztabaidatzen dutenean. Fedea adimen alorreko hartzen da, ez gizonaren izate osokotzat, eta fedearen teologia zen teologia tradizionala.

Jainkoarekiko hiru birtuteen (fedea, esperantza, karitatea) artean teologia tradizionalak ia baztertuta eduki du *esperantza*. Horregatik azken aldian sortu eta indartu den teologi bide bat, nolabait teologia tradizionalaren kontra etorri da. *Esperantzaren teologia* izena eman zaio, teologiazko gogoeta osoaren iturri eta soro bezala esperantza hartzen bait da. Esperantza ez da teologiaren beraren soroa eta ongaria baizik. J. Moltmann da teologi bide hau gehienbat urratu duena. "Spes quaerens intellectum" bezala definitzen du teologia (35). Esperantza da teologiaren iturburua eta oinarria.

Askapen teologiak beste urrats bat eman du. Teologiaren hasiera, oinarria, soroa eta helburua *karitatea da: Caritas quaerens intellectum*" bezala definienez askapen teologia. *Karitatearen teologia* ... Definizio hori horrela ez dut inon aurkitu; baina SAKekoak *ekintzaren teologiaz* mintzatzen direnean, askapen ekintza hori maitasun bezala ulerenez askapen uste dut. Askapen ekintzari buruzko gogoeta teologiazkoa, kristauak bizi eta mamitu egiten duen maitasunari buruzko teologia da (36).

(35) *Teología de la esperanza*, Ed. Sígueme, Salamanca 1972, 41 or.

(36) Uste dudanez, B. Sorgek, *Ragioni ...*, aipaturiko artikuluan ez du iraultzako ekintzaren teologiazko mami hau ikusi; horregatik, eta teologiaren kontzetu eta asmo tradizionaletik begiraturaz, fedea iraultza ekintzarekin nahasten eta berdintzen dutela salatu du SAKen teologia. Askapen ekintzari buruzko teologia maitasunaren teologia

Zer nahi du, orduan, teologiaren egiazkotasuna ekintzaren jator-tasanak epaitu behar duelako horrek? Karitatea, kristauak Jainkoagandik duen karitatea baldin bada teologiazko gogoetaren soroa, karitate horren jator-tasanak epaitu beharko du teologia bera. Baina Jainkoagandiko karitate hori ez da "egiazkotzen" gizonenganako maitasun eginkorrean ezik: "Nik Jainkoa maite dut, esaten badu norbaitek, eta bere senideari gorroto badio, gezurtia da horrelako hori; ikusten duen senidea maite ez duenak, ezin maite ikusten ez duen Jainkoa" (1 Jn 4, 20). Gaurregun, berriz, eta gizartearen egoerak eta marxismoaren iraultza zientziak erakusten duenez, ez dago senidearenganako maitasuna benetan bizitzerik eta mamitzerik sozialismoa ekartzeko iraultza ekintza politikoa aurrera eramaten ez bada, hau da, askapen ekintza benetan hartzen eta burutzen saiatzen ez bagara. Horregatik, karitatearen izena askapen prasia eta iraultza burruka dira gaurregun; beraz, karitateari buruzko gogoeta teologiazkoa egiazkoa den ala ez ekintza haren jator-tasanak epaituko du; eta ekintza jator horretan agiazkotuko da teologiazko teoria. Hauxe iruditzen zait dela SAKen pentsabidea.

Guzti hau S. Joanen pentsabidearekin bat datorrela uste dut, ezagutza eta maitasuna batean ikusten bait ditu laugarren Ebanjelioaren idazleak: Jainkoa ezagutu eta Jainkoa maitatu gauza berbera dira. Ezagutza hori ezin daiteke maitasunetik kanpora gerta. SAKen pentsabidearen harian, teologia ezin daiteke egin ekintzatik aparte. Eta pentsabide hori bat dator Marxen zientziari buruzko pentsakerarekin ere; izan ere, Marxen ustez, teoria ezin daiteke egin praxiaren barnean ez bada (37). Maitasun ekintzailearen (askatzailearen) bidez senidea askatzen saiatzen ezagutzeko gauza, eta, beraz, egiazko teologia egiteko gauza.

---

dela argi agertzen da arrazoinbide honetan: iraultza bidea, pobreen eta zapalduen klaseen hautapenaren gainean ezartzen du kristau iraultzaileak. Klase pobreen eta zapalduen teologia litzateke, beraz, SAKen teologia. Klase hautapen hau, ordea, Ebanjelioaren agindu nagusiarekin oso lotuta agertzen zaio (ik. Girardik Boloniako Batzarraren sarreran "politikazko hautapen berriari" buruz esaten duena).

(37) Mao Tse-Tung-ek dio: "Ezer ezagutu nahi baduzu, errealitatea eraberritzeko ekintzan eskuhartu behar duzu. Udare baten gozoa ezagutu nahi baduzu, zuk zeuk aldatu behar duzu, udarea bera jancez; iraultzaren teoria eta metodologia ezagutu nahi badituzu, iraultza egiten eskuhartu behar duzu. Norbere esperientziaz sortzen da benetako ezagutza".

Karitatearen teologiak fedea alde batetara uzten ote du, orduan, edota askapen ekintzan irensten? Askapen ekintzaren teologia kritikoa da, eta fedearen argitan egiten da kritika hori, hain zuzen ere. Alde honetatik, fedea ez da baztertzen ez eta ekintzan suntsitzen. Ekintzaren gogoeta teologiazkoa etengabe Ebanjelioaren aurrean jartzen da, honela askapen ekintzaren eta kristau fedearen artean aurrez-aurreko dialektikazkoa eginez. Kristau fedea ez da aidean gertatzen, historia eta gizarte baten barnean baizik. Historiazko eta gizartezko ekintza horretan aurkitzen dugu fedearen balioa, horretan suntsitzen ez baldin bada ere (38). Biblian adierazten zaigun fedea, Tradizioak eta teologiak, gizartezko, politikazko eta ideologiazko hautapen baten mugetan irakurri digutelako, proletari klasearen eta iraultza sozialistaren hautapena egin duten kristauak, beren fedearen argitan, era *berrian* irakurriko dute Biblia eta Tradizio hura (39). Honetatik dator, hain zuzen ere, SAKEk teologi bide berri bat irekitzen ari dela uste izatea, alde batetik, eta bestetik, Eliza ofizialaren teologia mugatzen eta kutsatzen duen ideologia eta gizartezko baldintzak astintzea, teologiaren beraren ideologi kutsua nabarmenduz (40). Teologia berrituena, gaurkotuena ere, proletari klasearen hautapenetik eta askapen burrukatik egiten ez bada, burges ideologiak baldintzapetuta daude, ez bait dago zientziarik egiterik gizartezko eta ekonomiazko baldintzetatik aparte. Fedea eta teologia egia ala gezurra den epaitzeko,

---

(38) "La fe se expresa necesariamente en relación con proyecto de hombre y de sociedad, sin reducirse jamás, por otra parte, a tal proyecto. Opta entre los proyectos humanos a asumir, pero no está nunca al otro lado de ellos. Cualquier intento de situar la fe más allá de las culturas humanas y de los conflictos sociales es ilusorio. Los que rechazan la politización de la fe en nombre de la trascendencia, rechazan de hecho una politización abierta en nombre de una politización encubierta: rechazan su politización revolucionaria en nombre de una politización conservadora" (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, *a. l.*, 336 or.).

(39) Giulio Girardiren ustez, materialismo historikoak oinarri berri bat ematen dio kristauari interpretazio berri bat emateko; "la coupure épistémologique", esaten du berak (ik. ICI, a. a.). Iraultza ekintzan, Bibliaren interpretazio sortzaile bat emateko ahabidea ematen dio kristauari materialismo historikoak. Alde honetatik, interesgarria da, eztabaidagarria eta eztabaidatua bada ere, *Lecture matérialistique de l'Évangile de S. Marc liburua*, Fernando Belorenena. (Ik. ICI, 15-III-1975, 24-25 or.).

(40) "Esto conduce, en un espíritu de fe auténtica, a una nueva lectura de la biblia y la tradición cristiana, que replantee los conceptos y símbolos básicos del cristianismo de manera tal que no traben a los cristianos en su compromiso con el proceso revolucionario, sino que por el contrario les ayuden a asumirlo creadoramente" (Santiagoko azken Agirian; Fierro-Mate, *a. l.*, 301 or.).

bada, gizartezko eta ekonomiazko baldintzak zuzenak ditugun ikusi behar dugu; horregatik azken hauzitegia askapen praxi historikoa da, hau da, pobreen aldeko ekintza jatorra.

Guzti hau ulertzeko munduko errealitateen, eta bereziki politikazko eta gizartezko ekintzaren *autonomia* baieztatu eta argitatu beharra dago. Hauxe da, hain zuzen ere, askapen teologiaren eta SAKen teologiako gogoetaren oinarri nagusienetakoa. Ebanjelistik hasita ez dago politikazko edo gizartezko ekintzarik bideratzerik. Alderantziz, Ebanjelioak ekintza horretan lortzen du bere argia eta esanahia historian, Ebanjelioa ez bait da giza balio astratuen multzo bat; askapen ekintzan balioztatzen da Ebanjelioa. Teologiako gogoeta ez da abiatzen balio astratu batzuetatik, askapen ekintzatik baizik; ekintza hau, berriz, autonomua da, gizarte kapitalistaren *azterketan* eta *astinketan* oinarritzen bait da, eta ez fedetik sortzen.

Autonomiak ez du esan nahi, ordea, bereizkuntza (41). Teologia eta politika bereiz jarri nahi izateak *espiritualismora* edo *sekularismora* darama kristaua eta Eliza. Eta askapen teologia espiritualismoaren kontrako bezain sekularismoaren kontrako —eta Jainkoaren heriotzaren teologiaren, edo teologia radikalaren kontrako—da. Sekularismoa ez da politikaren edo gizartezko ekintzaren autonomiatik sortzen, jainkozko balioak eta giza balioak bereiztetik baizik. Orduan jainkozko balioak —fedea, karitatea, esperantza— ez dira askapen ekintza historikoan maitzen; eta giza balioek *kanpotik* bezala epaitzen dituzte jainkozko balioak; hauen *gaintetik* jartzen dira giza balioak: horra hor sekularismoa. Izatez, Jainkoak ez digu bere agerkundea egin mundu honetatik eta *gure* historiatic aparte. Jesukristo bera gizon bezala, kultura batetan kulturatua agertzen zaigu (ik. *Gaudium et Spes*, 22 eta 33 zenb.). Kristo gizonagan ezagutzen dugu Jainkoa. Erizpide berdina dugu Jainkoaren Hitzaz ulertzeko: giza Hitzaren bidez, halegia; eta gizonaren hitza eta pentsakera, gizartezko egoerak eta dinamika, kulturak argitzen ditu. Horregatik, bada, teologiaren eta askapen ekintzaren artean —edo

(41) Honela SAKek nolabait gaintitu egin nahi du autonomiaren teoria bera, horrek ekarri dituen nahasteak alden du nahian. "L'ultimo ostacolo è stato il superamento della pretesa autonomia del temporale. Questa affermazione che con Maritain permise grossi passi in avanti, ha ormai mostrato i suoi limiti e l'incambiabilità con l'aspetto e le esigenze totalizzanti della fede e dell'impegno politico" (Mario Cuminetti, *a. l.*, 301 or.)

zabalago esanez, teologiaren eta politikaren artean— ez dago bereizkuntzarik egiterik.

Era berean *espiritualismoa* ukatzen du askapen teologiak, eta berdin SAKen teologiazko gogoetak. Espiritualismoaren oinarria hauxe da: Jainkozko kristau balioak gizon guztienak eta guztientzat dira; giza balioak —politikazko eta gizartezko balioak— aukeratzekoak dira. Goi-balio trazendenteen eta behe-balio lurtarren artean bereizkuntza egiten da. Goi-balio horiek, *gainetik* eta *kanpotik* epaitzen dituzte balio gizatarrak eta mundutarrak. “Jainkozko” balioei lehentasun apartekoa aitortzen zaie giza balioei buruz. Trazendentea esatean, bereizkuntza adierazi bahi da: gaindikoa.

Honen kontra SAKek giza balioen lehentasuna aitortzen du. Giulio Girardi izan da, batez ere, SAKen teologiaren oinarrietako hau aztertu eta argitu duena, SAKen Bolonia-ko Batzar nagusian sarrera bezala eman zuen hitzaldian (42). Teologi bide berriaren oinarri bezala munduko balioen lehentasuna jartzen du, baieztapen honek buruhausterik franko kristauari sor diezaiokela ohartuz gainera. Izan ere, ez da mundukoaren autonomia aitortzea bakarrik, eta bai munduko balioak jainkozko edo “kristau” balioen erizpide direla esatea ere. Autonomia Vatikanoko II. Kontzilioak onartua eta aitortua du; eta horri jarraiki, kristau “aurrerazale” gehienak hor finkatzen dute beren pentsaera.

Baina SAKen berezitasuna, hain zuzen ere, *autonomia* hori *lehentasuna* bezala ulertzean datza. Honela, berriz ere, giza praxi historikoaren teologia bezala azaltzen zaigu askapen teologia; eta alde honetatik, “Jainko Hitz trazendentearen” teologiaren kontrakoa bezala. Hala ere, itxurazko kontrakotasun hori dialektika batean konpontzekoa da.

Zer esan nahi du, bada, giza balioek jainkozko kristau balioei buruz duten lehentasun honek teologiari dagokionez? Politikazkoak berezko ulerkotasuna duela aurrenik, jainkozko balioetatik aparte ere; eta ondoren, jainkozkoaren, teologiazkoaren egiaren edo gezurraren erizpide dela politikazkoa (43); ez, ordea, kanpotik datorkion erizpidea. Jainkozkoak eta teolo-

(42) Ik. *La nuova scelta fondamentale dei cristiani*, in: *IDOC Internazionale* (1973, 17-18) 23-36; gai honetaz bereziki 33-34 or.

(43) “Affermare il primato del temporale significa riconoscere in generale che la

giazkoak derrigorrez gizonezkoan, politikazkoan, gizartezkoan, ekonomiazkoan eta kulturazkoan gertatu behar du gure historia honetan; Kristogan ere jainkozkoa gizonezkoan mamitu eta agertu da. Jainkozkoa eta teologiazkoa, historiazkoa eta politikazko bihurtzean, ordea, hauek baldintzatzen dituzte haiek eta hauek *egizatzen* haiek. Horregatik, historiazkoa eta politikazkoa iraultza hautapenetik ulertzen dituen kristau iraultzaileak bestelako erara aurkitzen ditu jainkozko eta ebanjeliozko balioak eta egia (44).

Gizonezkoaren lehentasun hau, teologiaren iturria eta oinarria den *karitatearen* dinamikan bertan nabari da. Jainkoaren eta Jainkoarekiko maitasuna senidearenganako maitasunean agertzen eta mamitzen da, egizatzen da; maitasun hori, berriz, aurren-aurrenik materiazkoa, gizartezkoa eta politikazkoa da: gosetiari jaten ematea, espetxeratuari ikustaldia egitea, larrutsik dagoena jaztea, etab. Maitasun horixe da kristauaren berezgarria eta betiko salbameneren oinarria. Horixe izango da teologiaren egiaren edo gezurraren erizpidea ere (45).

---

verità religiosa deve essere giudicata alla luce della verità umana, che tutto ciò che contraddice le conclusioni di una autentica ricerca umana non deriva certamente da Dio ma riflette la cultura di un'altra epoca e di un'altra classe" (G. Girardi, *ibid.*, 34 or.). "Autentica ricerca" esaten duela gogoan eduki behar dugu hemen: *giza balio jatorrak* dira jainkozko balioen erizpide eta epaitzaileak. Baina zerk esango du gure *giza* balioak jatorrak diren ala ez? Azkenean, lehentasun hori ez da ulertu beharko alderdi guztietatik lehenak balira bezala; alderantziz, *giza* eta jainkozko balioen artean harreman dialektikoa dago. Jarraian, autore berberak dioenez: "Ciò non significa certo pretendere a un qualsiasi infallibilità della verità umana ma semplicemente riconoscere che nella interpretazione della verità religiosa l'uomo non può non passare attraverso la fallibile verità umana".

(44) Mundukoaren eta materiazkoaren edo ekonomiazkoaren lehentasuna aitortzeak ondorio garrantzitsurik kristau bizitza osorako eta Elizaren eginkizunerako badu; baina honetaz geroago ihardundo naiz. Oraingoz esan dezadan, ordea, Girardentzat Eliza ofizialaren teologiaren kritikagarritasunaren oinarriak nagusia izpirituzkoaren lehentasuna aitortzean dagoela, lehentasun horrek bereizkuntza eta dualismoa esan nahi lukeelako batez ere. Girardiren eta SAKen ardura hauxe da, hain zuzen ere: dagoeneko kristau aurrerazale guztiek aitortzen duten autonomia hori ez dadilla dualismo bihur.

Materiazkoaren lehentasunak pentsakera estatiko batetan, berriz ere monismoa erortzea esan nahiko luke, jainkozkoa gizonezkoan irentsiz eta suntsituz. SAKen erizpideak, pentsakera dialektiko batetan ulertu behar da hori: ez dualismoa, ez monismoa; batasun dialektikoa baizik.

(45) Ik. G. Girardi, *La nuova scelta...*, 34 or. *Gaudium et spes* Kostituzioan esaten den honetxek bil dezake askapen teologiaren abiaburua eta asmoa: Kristok "agertzen digu Jainkoa maitasuna dela (1 Jn 4, 8), eta horrela erakusten digu giza osotasunaren lege

Askapen teologiaren eta SAKen teologiazko gogoetaren gakoa, beraz, kristau fedearen eta marxismoaren iraultza zientziaren arteko harremanean datza. Ez kristautasuna eta ez marxismoa ez dira dogma multzo hitxiak bezala hartzen, salbamen-askapenaren eta historiako askapenaren bide bezala baizik. Bidea egitean, hau da, iraultza ekintzan, argituko eta askatuko ote dira korapiluok?

## 2. Teologiazko gogoetaren hildo nagusiak

*Askapen teologia* ez da oraindik teologiazko sistema osotua. Orain arteko teologia osoa bestelako ikuspegi batetatik —askapen kategoriaren argitan, halegia— argitu nahi duenez, oraindik lan handiak eta ugariak beharko dira teologiaren alor osoak argi berri hori hartu orduko. SAKen teologiak, berriz, ez du sistema izan nahi ere. Inoren ogibidea ez den bezala, teologiazko gogoeta aldika, tarteka eta zatika egitekoa litzateke. Hala ere, eta gogoeta hori hasi berria eta finkatu gabea izan arren, hildo nagusi batzu urratuak ditu eta oinarriko gai batzu aztertuak. Hauetxek agertuko ditut hemen, orain arte SAKeok emaniko agiri eta idazki nagusienetatik jasorik (46).

Teologiazko gogoeta konkretua izan nahi du SAKenak, bizitzaren eta ekintzaren dinamikan bertan egina. Kristau iraultzailea daduka aurrean, eta kristau eta iraultzaile izateak horri

---

nagusia, eta beraz munduaren eraberrikuntzaren lege nagusia, maitasunaren agindua dela“ (38 zenb.).

(46) Girardiren orain arte gehienbat aipaturiko bi lan hauk erabiliko ditut bereziki: *Los cristianos de hoy ante el marxismo* eta *La nuova scelta fondamentale dei cristiani*.

Izan ere, Girardi izan da SAKen teologiazko gogoeta indartsuena eta trinkoena egin duena. Baina horrekin batera Arroyo ere oso gogotan eduki beharra dago, SAKeok pentsatzaile nagusienetakoen artean dagoelarik. Eta azkenik, SAKen Batzarretako agiri ofizial guztiak eduki behar dira.

B. Sorge harrituta geratzen da SAKek dena astintzen duelako: Eliza, hierarkia, apezgoa, esegesia, sakramenduak, otoitza, obedientzia, ezkongetasuna, bekatua. Esan dugunetik ez da harrizkoa. SAKek teologiazko oinarriak, teologi bideak eta teologia osoa astintzen du noski: hori du bere asmoa, hain zuzen ere; asmo hori oraindik bete ez badu ere.

sortzen dizkion kezak, tirabirak eta galderak dira teologiazko gogoeta gaia. *Kristau iraultzailearen irudia* argitzea dela teologiaren eginkizuna, esan dugu lehen. Horra hor, bada, SAKen teologiaren abiaburu eta helburu konkretua: kristau iraultzailea. Ekonomiiazko, gizartezko, kulturazko eta politikazko askapen oldean abiatu delarik eta erakunde iraultzailetan tarteko delarik, eta iraultza bide bezala sozialismo marxista aukeratu duelarik, zer da kristau iraultzailea eta beste edozein iraultzaile berezitzen duena? Zer dakarkio kristau iraultzaileak sozialismo iraultzaileari? Izan ere, oraingoz behintzat, kristau iraultzaile eta sozialistek SAK batasuna sortu baldin badute, zerbait berezirik eman dezaketelako da, edo arazo berezirik dutelako bederen (47). Bestela ez luke SAKEk izateko arrazoinik izanen, politikazko alderdi edo erakunde bat ere izan nahi duenez gero. Zer esan nahi du, bada, iraultzailea eta sozialista batek bere burua kristautzat aitortzeak? Galdera hauen ingurura bil daitekeela uste dut SAKEk oraingoz egin duen teologiazko gogoetaren muina. Eta beharbada hortik abiatuko da, teologia osoa argi berriz argitzeko. Horrela egin nahi du, hain zuzen ere, konkretua eta bizia teologiazko gogoeta.

Kristau iraultzaile sozialistaren *nortasuna* definitzea: hona hemen SAKen teologiaren oinarrizko gaia. Nortasun hau, ordea, ez da definitzen kristau ez diren iraultzaile sozialistek buruz bakarrik, eta bai kristau kontserbador edo eraberritzaile (erreformista) direnei buruz ere. Izan ere, kristau iraultzaile sozialistak ez du kristautasunak iraultzari lekarkiokeena, kristau kontserbakorrek edo eraberritzaileak bezala ulertzen.

a) *Kristau balioak eta giza balioak*. Klase aukera egin duena eta sozialismoa lortzeko iraultza bidea onartu duena, ez da kristautasunaren izenean aukera eta bide horietatik abiatu,

(47) Kristau iraultzailearen berezitasunari buruz eta horrek iraultzari lekarkiokeenari buruz ez dira beti berdinak SAKEkoen eritziak. Hona hemen zer eskatzen duen Santiagoko Batzarreko batzorde batek: "Marxistekiko ituna eragilea izan dadin, fededunek beren nortasunari eutsi behar diote eta kristau iraultzaileen batasuna eratu behar dute. Iraultza bidetik bideratu nahi duten kristauak beren kristau eginkizun oinarrizkoari heldu behar diote, beren berezitasuna argi eta garbi nabarmenduz, Kristoren ebanjelioak ematen duen enankizun berezia eskainiz". (6. eta 7. batzordeak). Beheraxeago, hain zuzen ere, horixe aitortzen du argi eta garbi batzordeak, kristau iraultzaile batzurentzat fedeak bere garrantzia galtzen duela, baina beste batzurentzat fede hori aberastu egiten dela adieraziz.

kristautasunak ez bait du horrelako aukerarik egiteko eta horrelako biderik hartzeko oinarririk ematen. Kristau iraultzailea ez da kanpoko arrazoinengatik, erlijiozko arrazoinengatik, halebegia, iraultza bideari eta sozialismoari atxeki zaizkion gizona (48). Historiaren eta gizarte indarren azterketak eraman du hortara. Eta benetan egia eta zintzoa izan nahi du bere atxekipenak.

Giza balio batzu aurkitu ditu kristau iraultzaileak, eta horik lortzeko eta gizartearen kultur mami bihurtzeko, sozialismoa ikusten du sistema bakarra eta iraultza bide bakarra bezala. Ekonomiatzko, gizartezko eta kulturazko alorrak autonomuak dira; kristautasuna ez da horien "aurretiko" zerbait; alderantziz, alor horietako balioetan mamitzen da kristautasuna. Kristauak ez dakar bere asmo edo egitarau berezirik, ekonomiatzko, gizartezko eta kulturazko balio sistema iraultzeko edo eraberritzeko. Bestela, alor horik ulertzeko eta eratzeko kristautasunak bere "gainetikako" legeak ezarriko balitu, balio profanuen autonomia ukatuko litzateke.

Areago, kristautasunak ez daduka bere balio berezirik eskaintzerik ere, kristautasuna ez bait da muin-muinean balio sistema (49). Kristauak azterketan eta ekintzan baliatu eta aurkitu egiten ditu balioak, giza balioak; ez ditu "bere" balioak ezartzen. Horregatik, kristautasuna ez litzateke sozialismoaren edo kapitalismoaren edo edozein kultur moduren pareko balio sistema bat edo balio erakuntza bat. Honela balitz, kristau iraultzaileak zera egin beharko luke; berak aurretik duen kristautasun hori sozialismoarekin alderatu, ikusi nolako kidesuna duten batak bestearekin, eta benetako kidesunetik aurkituz gero, elkarrizketa eta elkarlana abiatu beste iraultza eta sozialistekin. Ez da hau kristau iraultzailearen bidea.

Baina honela bada, eta kristaua esku hutsik badago, ez ote du iraultzaileak kristaua irentsiko? Zertan datza kristauaren

---

(48) "Al proclamarnos cristianos por el socialismo, no pretendemos en modo alguno buscar una justificación religiosa de nuestras opciones políticas, ni una colocación autónoma en la línea de clase a la que pertenecemos" (Boloniako azken Agirian); Fierro-Mate, *o. l.*, 335 or.).

(49) "Esistono infatti due valori essenzialmente cristiani, come quelli dell'amore e della liberazione, che non sono specificamente cristiani ma umani. Anzi, i valori cristiani fondamentali non sono specificamente cristiani" (G. Girardi, *La nuova scelta* . . . , 34 or.).

berezitasuna eta nortasuna beste edozein iraultzaileri buruz? Ala ez ote dago *kristau* iraultzaileaz mintzatzerik ere, eta bai iraultzaileaz soil-soilik? Honela balitz, SAKen teologiazko gogoetak bere egiteko gutzia galduko luke. Beraz teologiazko gogoeta berri bat lantzea bere egitekotzat hartzen baldin badu SAKek, kristau iraultzaile eta sozialistek zerbait berezirik badutela esan nahi du horrek. Kristau iraultzailearen berezitasuna eta nortasuna, iraultzagintzaren eta honen balioen aurretiko zerbait ez bada ere —eta hauxe da SAKek behin eta berriro esaten duena (50)—, nolabait iraultzaren eta sozialismoaren balioen aldean zerbait ezberdinik, zerbait trazendentetik ere bai, baduela kristau iraultzaileak esan beharko da. Zertan dago, orduan, kristautasunaren trazendentzia hori eta kristau iraultzailearen berezgarri hori?

Izatez, giza balio profanuak autonomuak direla esateak, horiei buruz zerbait trazendentetik badagoela adierazten du; bestela autonomiak berak ez luke esanahirik ukango, eta monismo hutsera eroriko ginatke, eta azkenik ezkerreko integrismora. Hau da, iraultza sozialistaren balioak zaintzeko eta estaltzeko erabiliko litzateke delako kristautasun hori. Eta hauxe da, hain zuzen ere, SAKek indar guziez ukatzen duena (51).

“Kristau” *balio* nagusienei ere beren berezitasuna ukatzean, beste zerbaitetan jarri beharko da, orduan, kristautasunaren *berezgarria*, sozialismo iraultzailearen balioei buruz, eta kristau iraultzailearen *nortasuna*, kristau ez direnen beste iraultza eta sozialistei buruz. *Fedea*, *esperantza* eta *karitatea* ez ote dira kristau iraultzailearen bereizgarri trazendentalak, kristautasun muin-muina diren bezalaxe? Honela bada, orduan, SAKen teologiazko gogoetak, printzipio trazendental horiek kristau iraultza-

---

(50) Santiagoko azken Agirian esaten da: “La especificidad del aporte cristiano no debe ser pensada como algo anterior a la praxis revolucionaria que el cristiano traería ya hecha al llegar a la revolución” (Fierro-Mate, *a. l.*, 300 or.). Pentsabide honekin alderatzekoa izango litzateke Paulo Viak *Octogesima Adveniens* gutunean dioena:

“Edozein sistimaz gaindi, eta, hau dela eta, anaienganako bere eginkizun konkretua alde batera utzi gabe, kristauak zera baieztatu behar du, bere hautapen guztien erdian: gizatzea hobetzeko kristautasunak dakarren laguntzaren berezitasuna, alegia”.

(36 zenb.).

(51) “No tratamos de convertir al cristianismo de instrumento de legitimación del orden constituido en justificación de la revolución” (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, *a. l.*, 335 or.).

gintzari eta sozialismo iraultzaileari berari zer dakarkieten, ikusi beharko du.

b) *Fedea eta historiako iraultzagintza sozialista*. B. Sorgек zera uste du: SAKek fedea eta politikazko ekintza berdindu bakarrik ez, eta bai fedea ekintza horretan suntsitu ere egiten duela (52). Behin baino gehiagotan esan ohi da SAKekoen idazkietan edo agirietan, iraultzagintzan bertan aurkitzen duela kristauak bere fedearen jatorria. Eta inoiz fedea iraultzagintzak barnean daraman zerbait dela ere esaten da, honela kristau izatea eta iraultzaile izatea gauza berbera dela adieraziz; honela dio Santiagoko Batzarreko batzorde baten agiriak: "Fede bizitza iraultzagintzak barne-izkutan daraman zerbait da. Zein eta kementsuago atxeki inor, herriak bere askatasunerako daraman burukari, hain eta kristauago izan ohi da". Ekintzak berak sorturiko indarren bat ote da, orduan, fedea?

"Sozialismoaren aldeko kristaudentzat" oinarrizko baiezkuntza hau da: Fedea ez dela aidean dagoen zerbait, geure politikazko aukera eta ekintzatik kanpo, halegia. Praxian mamin-tzen eta adierazten da fedea, eta praxiaren erak mugatzen du

---

(52) " ... essi non dubitano di ridurla (fedea) a prassi politica ..." (*Ragioni...*, 460 or.); baina hurrengo orrialdean SAKen testu ofizial bat dakar, eta hau da testu horrek: "La fe se expresa necesariamente en relación con un proyecto de hombre y de sociedad, sin reducirse jamás, por otra parte, a tal proyecto. Opta entre los proyectos humanos a asumir, pero no está nunca al otro lado de ellos. Cualquier intento de situar la fe más allá de las culturas humanas y de los conflictos sociales es ilusorio. Los que rechazan la politización de la fe en nombre de la trascendencia, rechazan de hecho una politización abierta en nombre de una politización encubierta: rechazan una politización revolucionaria en nombre de una politización conservadora" (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 336 or. Autoreak italieraz ematen du testu hau). Egia da, paragrafo hau ez dela argia: baina bere osoan hartzen bada, fedea ezin daitekeela politikagintzaren kanpotik bizi ahal, esan nahi duela uste dut; barnetik bizi behar dela, halegia; eta ez dut uste esaldi horrek okerrik duenik. Bestetik, fedearen politizatzeak ez du esan nahi, fedea politika besterik ez denik.

Testu honetatik ateratzen du Sorgек SAKen pentsabide osoa fede eta politikazko ekintzari buruz, fede eta historiari buruz. Eta azkenik testu horren gainean ezartzen du SAKen teologia osoaren kritika. Ez dut uste horrelako testu ilun batetatik pentsabide osoa ateraterik eta argitzerik dagoenik; gehienik ere, testu horrek adierazten duena zera da: SAKen pentsabidea finkatu gabea edo erabat argitu gabea dela oraindik. Azkenik beharbada dialektikarik eza izango da SAKi ezarri genezaiokeen salakuntza.

Bi arrisku daude inor kritikatzekoan: norbere "antipatiagatik" inor etsaiarekin berdintzekoa, edota norbere sinpatiagatik inor norberarekin berdintzekoa. Sorge ez ote da lehen arrisku horretan behaztopatzen?

nolabait fedearen adierazpena. Historiazko praxiatik fedea bereizi nahi izateak, fede hori ideologia bihurtzera darama gizona; hau da, bere aukerak eta ekintza zuritzeko tresnatzat hartzera, praxiaren estalgarri huts bilakatzen.

Baina fedea kulturgintza eta politigintza batetan bizi eta adierazi beharrik ez du esan nahi hura kulturgintzak eta politikagintzak bere barnean suntsitzen duenik. Alde honetatik, ez nintzateke B. Sorgeren eritziarekin bat etorriko (53). SAKen politika iraultzaileari dagokionez, fedearen eta iraultzagintzaren artean kidetasunik ikusten dute; baina kidetasun horren barnean dialektika bat nabari dute bien artean, bata bestearekin nahasi gabe halebata. Iraultzagintzaren barnetik eta barnean bizi denean, hain zuzen ere, izan dezake fedea bere indar kritikatzailerak eta bere indar bultzatzailea, iraultza bera jatortzeko eta biziagotzeko: "La fe cristiana se transforma en fermento revolucionario crítico y dinámico" (54).

Fedea, bada, etengabeko kritika gertatzen da iraultzagintzaren barnean. Iraultzagintza bera ez absolutizatzen, edo iraultzak lorturikoa behinbetikoa dela uste ez izateko, edo sozialismoa patxadazko egoera bihurtu ez dadin, fedea etengabeko kritika egiten dio kristau iraultzailearen ekintzari, fedearen bitartez absolutu bakar bat aitortzen bait du kristauak: Jainkoa! (55). Honexegatik ere badago kidetasunik fedearen eta iraultzagintzaren

---

(53) Ik. 48 oharra.; "Aun reconociendo la irreducibilidad de la fe a la revolución, creemos que por nuestra parte no podemos vivir hoy la fidelidad a Cristo y a los pobres, sino en lo vivo de un compromiso revolucionario" (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 337 or.).

(54) Santiagoko azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 299 or. Argi eta garbi aitortzen dute beren kristau fedearen eta iraultzagintza sozialistaren artean aurkitzen dituzten tirabirak; baina hona hemen nola ikusten duten azken bi asmoen (fedearen eta iraultzagintzaren) arteko harremana: "Nuestro simposio pretende proclamar solemnemente esta nuestra común convicción madurada en múltiples experiencias de lucha: por encima de las contradicciones, cuya gravedad no infravaloramos, emerge hoy una convergencia profunda entre las exigencias de nuestra fe y las del compromiso revolucionario, unidas en una relación dialéctica, de reciproca crítica y fecundación" (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 336-337 or.).

(55) "La fe es una instancia crítica que le hace relativizar toda realización humana y lo empuja a una mayor plenitud" (Gonzalo Arroyo, Santiagoko Batzarren sarreran). Beharbada zuzenean Silva Enríquez Kardinalaren salakuntzari erantzuna da hau; izan ere, kardinalak, Gonzalo Arroyoren deia erantzunez, fedea ideologia bihurtzen zutela salatu bait zituen SAKekoak.

artean, iraultzagintza historiazkoak etengabeko ekintza esan nahi baldin badu bederen. Ez fedea eta ez iraultza etengabea ez dira lorturiko egoera jakin batetan gelditzen, etorkizun berrian itxaropena jarria bait dute. Beraz, ezten kritikatzaillea gertatzen zaio fedea kristau iraultzaileari, bere iraultzagintza ere desmitifikatzen diolarik.

Baina hori bakarrik balitz fedea iraultzagintzari buruz, nolabait ukakorra izango luke bere eginkizuna. SAKeokok beste alderdi bat ere ikusten diote fedeari: hau da, iraultzagintzaren bultzatzailea da fedea; iraultzaren indar eragilea, halegia. (56). Ez da iraultzaileari kanpotik datorkion eskakizuna; iraultzagintzaren barnean somatzen duen eragilea da fedea, honek kristau iraultzailearentzat balio berri bat hartzen duelarik (57).

SAKeoen idazki eta agirietan ez dugu fedearen definizio handirik eta zehatzik aurkitzen; eta politikagintzan eta iraultzagintzan derrigorrez mamitu behar dela adieraztean, fedearen trazendentzia ukatzen ote dutelako susmoa ere sortzen da. Baina trazendentzi hori ukatuz gero, ongi konturatzen dira ekintzak berak irentsiko lukeela, eta beraz iraultzarekiko indarra eta eragina galduko. Fedeak berezitzen ditu azkenik kristau iraultzaileak. Santiagoko Batzarreko batzorde batek honela dio: "Kristau fedea kristauei egin zaien dohain bat da; gizona eta honen etorkizuna zein den agertzen die fedeak, eta ezberdintasunik gabeko gizarte zuzen bat lortzeko etengabeko burrukara bultzatzen ditu. Honela, bada, kontzientzia asaldatu bat da fedea". Batzarraren azken agirian ere "Kristok dohan emaniko dohaina" deitzen da fedea; horrexegatik, eta iraultzagintzaren bitartez, fedearen ideologizatzearen kritika egiteko oinarria fedea bera gertatzen da (58).

(56) "Pues aun reconociendo que nuestra opción socialista tiene en sí su justificación, experimentamos su profunda coherencia con las exigencias originales del mensaje evangélico, que manifiesta en ella la fuerza explosiva de sus virtualidades liberadoras" (Boloniako azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 337 or.).

(57) Hobekien ideia hau adierazten duen testua Santiagoko azken Agirian aurkitzen dugu: "Grupos cada vez más amplios de cristianos descubren la vigencia histórica de su fe a partir de su acción política en la construcción del socialismo y la liberación de los oprimidos del continente. La fe cristiana se manifiesta así con una nueva vigencia liberadora y crítica" (Fierro-Mate, a. l., 293 or.).

(58) Alde honetatik, SAKen pentsabidea ez dabil Silva Enríquez Kardinalearenetik: "La fe no es una ideología. Es una realidad superior a todas las ideologías, con una

*Iraultzagintzaren bitartez*, hain zuzen ere. Fedearen eta iraultzagintzaren arteko dialektikan, honek bere eztena ematen dio fedeari, klase agintariak edo Elizak gaineratik ezartzen dion ideologia astintzeko, eta bere jatortasunean agertzeko.

d) *Kristau esperantza eta askapenaren osoa*. Kristau fedeak biziagoa egiten du gizon guztien askapen eskabidea eta gizartea zapalkuntza guztietatik —ez ekonomiazkoetatik bakarrik— askatzera bultzatzen du kristau iraultzailea (59). Askapena da, hain zuzen ere, kristau iraultzaileak duen helburua, beste iraultzaile sozialistekin batera. Zein da, ordea, askatasunaren adiera? Eta, beraz, zein da helburu horri eusten dion esperantza? Kristau esperantzak ba ahal dakarkio ezer askapenari? Eta, beraz, kristau iraultzailearen ekintzari?

Historiazko ekintza edo praxia da SAKen teologiazko kontzeturik nagusienetakoa: teologiazko mamia eta indarra eman dio ekintza horri. Hitz hau erabiltzean, ordea, berorren zabalean eta osoan hartzen dute: ekintza hori ez da ekonomiazko egiturak bakarrik iraultzea eta bai gizartezkoak eta kulturazkoak ere. Ekonomiazkoa oinarrian ezartzen baldin badute, ez da hor

---

capacidad crítica de todas las ideologías, para saber ver en ellas los elementos positivos y negativos; ayuda a la ideología a servir verdaderamente al hombre". Gonzalo Arroyok Kardinalari Santiagoko Batzarerako bidali deiari ezezkoa emanez itzuli zuen erantzunean esaten du hori. Dagoen bezala harturik, SAKeko edozeinek onar lezake, fedea ideologiaren *gaineratikoa* delako hori oso susmogarritzat hartzen badu ere; baina Kardinalaren erantzun osoaren giroan beharbada esanahi ukakorra du; izan ere,; SAKen pentsabidea zorrozki astinduz bidali zuen bere erantzuna, kristautasunetik kanpo zebilela ere salatuz, Paulo VI.aren *Octogesima Adveniens* gutuna, hitz berdintsuak erabiliz, ideologia, praxia eta fedearen arteko harremanaren azterketa sakonagora sartzen da: "Edozein ideologia sozialetan izkuta daitekeen bikoiztasuna argitan jarri beharra ote dago? Batzutan, ideia astratu baten aplikatze hutse bihurtzen du politikazko edo gizartezko ekintza horrelako ideologiak; beste batzutan, berriz, ekintzarako tresna hutsa bihurtzen da ideologia, estrategiaren tresna hutsa, halegia. Biotan gizona "alienatzeko" arriskua ez ote dago? Ideologiaren gaineratik, eta inoiz ideologiaren kontra, jartzen da kristau fedea, Jainko orogaineratikoa eta kreaizailea aitortzen bait du: kreaizioaren maila guztietan, gizon erantzule eta libreako erantzuna eskatzen dion Jainkoa, halegia" (27 zenb.).

(59) "Esta vivencia de la fe en el corazón mismo de la praxis revolucionaria da lugar a una fecunda interacción. La fe cristiana se convierte en fermento revolucionario crítico y dinámico. La fe agudiza la exigencia de que la lucha de clases se encamine decididamente a la liberación de todos los hombres, en particular de aquellos que sufren las formas más agudas de opresión..." (Santiagoko azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 299 or.).

agertzen historiaren azterketa, eta historiako ekintza ere ez. Honek badu garrantziarik, SAKek askapenaren zabalari eta sako nari buruz duen eritzia ikusteko, askapen hori lortzean eta lantzean jartzen bait du bere historiako ekintza.

Sorge-ren ustez, mundu honetako askapen hutsaren hesparruan gelditzen da SAK; eta sarritan ekonomi aldetik bakarrik heltzen dio gainera askapen arazoari, politikazko, gizartezko eta kulturazko askapen alorrak ahantziz. Bereziki ahantzi egiten dute Kristogandik datorkigun askapen azkena: hau da, bekatuarekiko eta heriotzarekiko askapena (60). Honetarako G. Girardi-ren testu hau darabil: "... askatasunak bakarrik neurtzen du gizon askearen askatasuna: baina, hori bai, askatasun hau besteen askatasunarekiko, guztien askatasunarekiko funtsezko harremanak maitzen du; askatasun hau ezin daiteke bizi elkarrekin ezik; askatasun hau maitasunean bakarrik zertzen da" (61). Esaldi hau bakarrik hartuz gero, benetan zalantzan gelditzen gara. Baina gogoan izan behar dugu Girardik, hori esatean,, ez duela teologiako eritzi borobilik eman nahi; hala ere, kristau iraultzailearen hautapen antropologiko berri batez —askatasunaren hautapenez, halegia— ari delarik, zalantzan uzten gaitu azkenik, kristauaren askatasun osoa besteekiko harremanean geldituko ote den pentsatuz (62).

Baina askapenaren alorra zein zabala eta sakona den jakiteko, zapalkuntzarena zein den ikusi beharra dago. Zoritxarrez, SAKekoen idazlanek eta agiriek, ez digute argi handirik ematen gai honetan. Alde batetik, behin eta berriro astintzen dute teologia tradizionalaren alderdikeria, giza zapalkuntzaren arrazoiak moralezkoak eta erlijiozkoak bezala agertzen dituelako: hau da, gizonaren nahimenean eta bekatuan nabarmentzen duelako zapalkuntzaren sustraia. Bestetik, SAKek berak egituretan nabari du eta nabarmentzen du zapalkuntzaren sustraia, eta batez ere ekonomiazko egituretan; orduan, gizonaren barnean dagoen

---

(60) Ik. Ragioni . . . , a. a., 465-468 or.

(61) Boloniako Batzarraren sarreran.

(62) Uste dudanez, bakarkeriazko edo norberekeriazko antropologiaren aurka agertzen da hemen Girardi: alde horretatik, askatasuna ez da norbere txoko bakartian gordetzen eta zaintzen dugun zerbait; askatasuna elkartasunean maitzeak ez du esan nahi Jainkorik eta Kristoren askatasunarekikorik ukatzen denik.

zapalkuntza sustraia ixilpean gelditzen da, ukatzen ez baldin bada ere.

Orduan kristau iraultzaileak bilatzen duen askapenaren zeruertza zein den argitu gabe gelditzen da. Hain zuzen ere, SAKEk ez dirudi bereziki arazo hau sakondu duenik. Baina, horren pentsabide osoari bagagozkio, hemen ere esan beharra dago, historiako askapenaren barnean gertatzen dela Kristok ekarri digun askapena. Gizonari ez zaio bekatuarekiko askatasuna, historiako askatasunetik aparte ematen. Kristok lorturiko askapenak, beraz, historiako askapen ekintzarekin bat egiten du; baina ekintza horretan agortzen ote da kristau iraultzailearen askapen asmoa? Egitura zapaltzaileetatik askatzea (nahiz eta egitura horik berorien zabaltasun osoan hartu: ekonomiazkoak, politikazkoak, gizartezkoak eta kulturazkoak) ote da kristau iraultzailearen esperantza osoa?

Kristau esperantzak, bada, ezer berezirik ba ote dakarkio kristau iraultzaileari bere askapen ekintzan? Santiagoko batzarreko azken agiriak honela dio: Kristauen eta marxisten artean, " politikagintzan gertatzen den elkartasun historiakoak ez du esan nahi kristauak beren fedea baztertu behar dutenik; alderantziz, Kristoren etorkizunarekiko esperantza indartzen du horrek" (63). Ilun xamarak dira hitz hauk; baina nolabait kristau esperantzak historiako askapenari irekitasun bat ematen diola dirudi. Hain zuzen ere, historiako askapenaren eta Kristoren askapenaren arteko, ekonomi eta gizarte egiturekiko askapenaren eta pekatuarekiko askapenaren arteko dialektika sakondu eta argitu gabe dagoela dirudi SAKEk idazki eta agiritan. Kristau fedearen askapen indarra baieztatzen denean, azkenean ez dakiagu askapen horren helburua zein den. Baina sakondu gabe badago ere, esaldi argiak ere aurkitzen ditugu, azken askapena Kristogan dagoela adierazten dutenak (64).

Kristau esperantza historiako esperantzan gertatzen bada, eta historiako praxian mamitzen den askapen esperantzak

---

(63) Santiagoko azken Agirian; Fierro-Mate, a. l., 294 or.

(64) Gonzalo Arroyok Enríquez Kardinalari emandako erantzunean, zorrozt dio azken askapena Kristogan aitortzen duela SAKEk, baina horrek ez duela esan nahi, gizartezko eta ekonomiazko askapena lortzeko zientziak ematen dituen aztergailu eta langailuak erabili behar ez direnik.

“epaitu” behar baldin badu kristau esperantza hori, ez ote dugu esan beharko, fedeari buruz esan dugun bezala, kristau esperantza dela historiazko esperantzaren indar eragilea ezezik, kritikatzaila ere bai? Historiazko askapen asmoak lorturiko mugetan gera ez daitezen, eta historiazko praxia bera erabatekotzat eta behindabetikotzat har ez dadin, hain zuzen ere.

Bide honetatik doala uste dut SAKen teologiazko gogoeta, esperantzari eta askapenari dagokionez. Gainera, askatasunari buruz lehen aipatu dugun Girardiren esaldian agertzen denez, eta SAKen marxismoari buruzko azalpenak edozein azalpen dogmatikotik urruti ibili nahi duela jakinik, elkartasunean eta gizonaren sormenean (65) mamitzen den askatasuna ia berez esperantza trazendenteari irekita dagoela esango genuke. Honela argiago gertatzen zaigu Girardiren beraren esaldi hau, kristau iraultzailearen teologiazko hautapen berriari buruz ari delarik: Iraultzagintza “galdera berrien unea gertatzen zaio (kristau iraultzaileari); historia baino handiago den itxaropen baten unea; Jainkoaren behinbetiko asmo zabalago baten barnean gizonaren asmo eta burrukak jartzen dituen esperantza agertzen zaion unea” (66).

Hala ere, oraindik zehaztu eta argitu gabe gelditzen zaigu SAKen idazki eta agirietan, historiazko esperantza eta askatasunaren, eta esperantza eta askatasun “trazendentearen” arteko lotura.

e) *Kristau maitasunaren zabala eta klase hautapena.*  
 “Maitasunean zertzen da askatasuna”, dio Girardik. Hona, bada,

(65) Elkarrekiko zera bezala hartzen du, hain zuzen ere, askatasuna Girardik. Marxismoari dagokionez, berriz, horren adiera dogmatikoaren eta kritikoaren arteko aldea, askatasunari buruz duten kontzetuan ere badatza; hona hemen, nola dioen R. Garaudy-k: “Es ahí donde nos encontramos con lo que yo considero uno de los mayores inconvenientes teóricos de tal interpretación dogmática del marxismo, ya que hemos tenido que volver a la falsa interpretación hegeliana de libertad como conciencia de la necesidad, remóntándonos a una antigua tradición griega, en vez de tener en cuenta la escisión que el cristianismo ha introducido en la historia de la cultura, al llevarnos a concebir la libertad no sólo como conciencia de la necesidad, sino también como una participación en la creación continua del hombre mediante el hombre” (*Evangelio y Marxismo*, in: *Un riesgo llamado oración*, Ed. Sígueme, Salamanca, 1974, 16 or.). Beraz, kristautasunak marxismoaren askapen asmoari zerbait badakarkiola aitortzen da hemen, historiazko askatasuna dogmatiza (absolutiza?) ez dadin bederen. Kristau esperantzaren indar kritikatzaila berezia eta berria ote da hori?

(66) Boloniako Batzarraren sarreran.

berehala sortzen zaigun galdera: maitasunean lortu behar den guztientzako askatasun hori nolatan konpon daiteke klaseen arteko bereizkuntza baten bidez, hau da, proletal klasearen (edo klase herrikoien) hautapenez eta horien garaipenez? (67).

“Karitatearen teologia” izendatu dugu SAKen teologia; horregatik maitasuna dago teologiazko gogoeta honen muin-muinean. Maitasuna, berriz, ez dago zalantzarik teologiazko kontzetua dela, Ebanjelioak agindu nagusitzat eta lehenengotzat ematen duen maitasuna, halebategia, SAKen pentsabidean. Kristau maitasunak batean hartzen ditu nolabait Jainkoarekiko maitasuna eta -lagunurkoarekikoa, Ebanjelioan bertan agertzen zaigunez (Mt 22, 34-40) eta S. Joanek bere lehen epistolako 4. kapituluan nabarmentzen digunez (68). Sarritan galdetu ohi dugu: zein da aurrena, Jainkoaganako maitasuna ala elkarrenganakoa? S. Joanek batean ikusten ditu benetan, maitasun bat bakarra bezala; baina maitasun hori ez da aurrenik *geure* maitasuna, Jainkoak guregana duena baizik, Jainkoaren maitasuna, beraz: hau da kristau maitasuna!

Zein da, orduan, SAKen ustez, kristau maitasun honek pobreen eta zapalduen askatasunaren aldeko burrukarekin duen harremana, askapide ekintza hau maitasunaren agerpidea denez gero? Santiagoko azken agiriak dioenez, “Iraultzagintzari ekin zaion kristauak, hortxe aurkitzen du Jainkoaren maitasunaren.

---

(67) SAKen agirietan ez da agertzen beti berdin klase hautapen horren zabalak; behar bada talde iraultzaile eta sozialisten zalantza bera azaltzen da SAKeko artean ere. Batzutan proletal klasearen hautapena esaten da; beste batzutan, ordea, klase herrikoi guztiak edo pobreen klaseak dira hautatzen direnak, horien artean proletariak, nekazari langileak, arrantzaleak, zenbait enplegatu ere bilduz. Dena dela, eta SAKek bere burua iraultzaile agertu nahi duenez -eta sarritan Europako zenbait alderdi komunisten kontra, hain zuzen ere- ez ditu burges txikiak klase hautapen horretan kontuan hartzen, hauk irekiak eta burrukariak agertzen badira ere. “CPS no puede servir de refugio a la mentalidad pequeño-burguesa radicalizada” (Reyes Mate, a. a., 320 or.).

(68) B.Sorgek, berris ere, Jainkoarekiko maitasuna elkarrekiko maitasunaren sunsitzten duela salatzen du SAKen teologiazko gogoeta, Jainkoarekiko maitasunaren jatorriaren erizpidetzat elkarrekiko maitasuna jartzen duelako. Honetarako biderik badute SAKekoek S.Joanen kapituluko horretan bertan; baina Sorge kritikatzailerak bostgarren kapituluko beste aipamen bat dakarke kontra: “Jainkoa maitatzean eta haren aginduak betetzean ezagutzen dugu Jainkoaren semeak maite ditugula” (1 Jn 4,2). Honela, bada, Jainkoarekiko maitasuna elkarrekikoaren aurretikoa litzateke, eta honen jatorriaren erizpidia.

Kristoren heriotzaren eta berbizkudearen askapen indarra" (69). Kristau maitasuna ez da, SAKen teologian, izpirituala eta platonikoa, historiazkoa eta ekintzetakoa baizik. Eta hain zuzen ere, askapen egintzan agertzen eta egiazkotzen da Jainkoaren maitasuna. Orduan elkarrekiko maitasun historiazkoan agortzen ote da kristau maitasuna? Zein da aurrena, SAKen eritzian: elkarrekiko maitasuna ala Jainkoarekiko maitasuna —hau beste hartan suntsitzen ez baldin bada behintzat—? Hemen ere dualismo eta monismo joeren kontra, dialektikazko batasuna bilatzen duela iruditzen zait SAKen pentsabideak.

Baina arazo hau konkretuen eta nabarmenen kristau maitasunaren eta klase hautapenaren arteko harremanean agertzen zaigu. Horregatik, arazo hau ikusi beharko dugu orain.

Proletal klasearen hautapena ez da berez teologiatik egindakoa; hautapen politikoa da. Eta kristautasunak berez ez du klase hautapenik ez eta klaseartekotasunik eskatzen (70). Baina kristau maitasunak *pobreak* hautatzera darama fededuna, eta beroien askapena bilatzeko, hain zuzen ere, Orduan, kristauak bere kristau fedearen eta maitasunaren izenean egiten duen hautapena eta politikariak proletarien alde egiten duen klase hautapena batera biltzen dira. Kristau maitasuna benetan historiazkoa egiten denean, politikariak egiten duen azterketarekin bat egiten du; gaur, berriz, gizarteko bidegabekeriaren sustraia eta oinarria klaseen arteko bereizkuntza eta etena dira. Eta klase zapalduak libratzeko bidea bakarra, klase burruka iraultzailea, klaserik gabeko gizartera iristeraino. Orduan, historia konkretu honetan eta politikazko hautapen konkretu honetan, pobreenganako kristau maitasuna klase hautapenean eta burrukan mamitzen da. Hauxe litzateke SAKen pentsabidea (71). Kristau maitasunak ez du berez klase hautapenaren iraultza ala klaseartekotasunaren

(69) Fierro-Mate, a. 1., 300 or.

(70) Ik. Roberto de Vita-k Boloniako Batzarrean egindako sarrera; baina ideia hau beste askotan ere agertzen da SAKen idazki eta agirietan.

(71) G. Girardik adierazi du hobekien hau, Boloniako Batzarreko bere sarreran: "Quando l' amore cristiano si impegna a cercare le sue condizioni oggettive di possibilità, quando, in altre parole, esso cerca gli strumenti scientifici e politici per diventare una forza storica liberatrice, esso si precisa come scelta di classe, come scelta socialista e rivoluzionaria, esso trova nel marxismo, in quanto teoria della rivoluzione, assunto criticamente e creativamente, un fecondo filo conduttore nella lettura della storia".

eraberrikuntza edo erreformismoa aukeratzera behartzen; baina historia konkretu honetan kristau maitasuna eta gizarte kapitalista aurrez-aurre eta elkarren kontra daude, kristau mezua pobreen bidetatik igarotzen delako.

Zer esan nahi du, bada, proletal klasearen (edo klase herrikoien) hautapenak? Ez da pobreen alde mintzatzea edo jokatzea, besterik gabe. Pobreen klasea hautatzea da; pobreen klasea, berriz, gaurko proletariak (eta beste klase herrikoiek) osatzen dute. Klase hautapenak, azkenik, beste klaseen kontra jokatzea esan nahi, hautapen burrukalaria esan nahi du, klase zapalduen eta klase zapaltzaileen interesek konpon ezinekoak direnez; Beraz kristau maitasuna burruka bihurtzen da. Montarako kristau iraultzaileak ez du aski proletal klasea hautatzea bakarrik eta horren aldetik kanpotik bezala burruka egitea; klase hautapenak proletariekin bat egitea esan nahi, klaseak berak duen esanahi guztian; proletari bihurtzea esan nahi du klase hautapenak: politika aldetik, gizarte aldetik, kultura eta erlijio aldetik proletari bihurtzea.

Baina honela ez ote da, guztiekikoa izan behar duen kristau maitasunaren zabala hestutzen? Eta ez ote da guztientzako den kristau salbamera proletarien edo klase herrikoien askapenaren mugekin hesitzen? Non da kristau maitasunaren eta kristau salbamenaren orokortasuna? Galdera larria da hau SAK-ekoentzat. Eta hementxe neurtzen da, agian, SAKen teologiazko gogoetaren berria eta egia, hementxe neurtzen bait da dialektikazko pentsabide horren sakona ere.

Maitasuna klase burrukatik igarotzen delarik, ezinezkoa emango luke berez gizon guztienganako maitasun horrek (72); edo platonikoa eta hitz hutsezkoa bederen. Eta horixe uste du SAKek: proletarien (uler bedi, pobreen edo anaia zapalduen) askapen burrukatik igarotzen ez den maitasuna astratua da; askapen ekintzan mamitzen eta egiazkotzen da benetan Jainkoaren edo kristau maitasuna. Baina klase burrukatik igarotzen den

---

(72) Horrelaxe dio, hain zuzen ere, Mao Tse-tung-ek: "Quant au prétendu 'amour à l'humanité', toutes les classes dominantes du passé, et avec elles bon nombre de sages se son comptu à le prêcher. Mais personne ne l'a encore pratiqué, car un amour réel de l'humanité est chose impossible dans une société de classes" (*Oeuvres choisies*, Ed. en langues étrangers, Pekin 1967, t. III, 78 or.).

askapen ekintza horretan agortzen ote da kristau maitasun "orokor" hori?

Klase hautapena bereizkuntza eta diskriminazioa bada ere, klaserik gabeko gizarte batetara iristeko egiten den hautapena da. Askapen burrukan klase zapalduak daramate salbamen orokorren, klase guztietakoen salbamenaren mezua. Kristau maitasun orokorrak gizon eta klase guztientzako eskaintzen duen salbamea, pobreen (proletarien) askapenaren bitartez gertatzen da. Hain zuzen ere, zapalduen klasetik igarotzen da guztientzako salbamea. Orduan kristau maitasun orokorra askapen burruka horretan mamituko da; baina burruka hori eta klase hautapenari lekarkiokeena zera da: hautapen horixe ez absolutizatzea. Pobreen hautapena egitean, klase hautapen historiakoa egitera kristau iraultzaileari eragin dion kristau maitasun horrek, klase hautapen eta burruka berori behinbehingotzat hartzera darama eta klaserik gabeko gizarte osoarenganako maitasuna aitortzera eta mamituzera. Eta, beraz, klaseek zatikatzen duten gizartean klase zapaltzaileak "ukatzer" daraman kristau maitasunak, klaserik gabeko gizartean horik onartzera eragiten dio kristau iraultzaileari (73).

f) *Eliza "berria"*. SAKEk izatez ez du Eliza "berririk" ez eta Eliza izpirituzkorik bilatzen. Edozein milenarismo edo izpiritualismoaren kontra dago "Sozialismoaren aldeko kristauen" teologiazko gogoeta. Elizak historiakoa, areago, politikagintzari lotua izan behar du; eta Eliza iztituzionala ukatzea, historiatic kanpora ateratzea litzateke. Baina horrexegatik, hain zuzen ere, politikazko hautapen berri bat egin eta bizi duten kristau iraultzaileek Eliza ofizialari barne-barneko kritika egiteko bidetan

---

(73) Klaseen arteko burrukan kristau maitasunak klase zapaltzaileak "ukatu" egiten dituela esan dut. G. Girardik maitasun horrek aberatsentzat kondenazio meahatua duelako horretan ikusten du ukapen hori. Hala ere, etsaiari ez zaio ukatzen burruka barnean bertan ere, eta etsai hori nolabait ukatzen delarik ere, kristau maitasuna; baina maitasun hau dramatikoa eta kontradizioz betea gertatzen da. *Hementxe datza*, hain zuzen ere, kristau maitasunaren eta klase hautapen eta burrukaren arteko dialektikaren min-mina. Honelako zerbait adierazi nahi zuten Frantziako Apezpikuek ere beren *Pour une pratique chrétienne de la Politique* agiri hartan? Izan ere, agiri horretan diotenez, fedek (berdin esan genezake, *karitateak*, inguru honetan) kritika eginkizuna du gizonen arteko edozein tirabiratan (conflicto): hau da, burrukan ere etsaia begirunez harreraztea eta gizon bezala onarraztea.

daude, Eliza horren teologia (fedea bera, nolabait) eta itzituazioak politikazko hautapen konkretu batek kutsatuta eta mugatuta daudelako. SAKen ustez, ez dago Eliza "neutralik" politikagintzari dagokionez, eta hori uste duen Elizak, klase agintarien aldetik dagoela, zapalkuntzazko egoera baten eustzaile dela eta klase agintari horien "ideologiak" kutsatuta dagoela ezkutatu besterik ez du egin nahi. Areago, klaseartekotasunaren alde jokatzea eta iraultzairen kontrako izatea, klase zapaltzaileen jokia egitea besterik ez da. Beraz, SAKen teologiak, ukatu nahi den ideologizazio hau nabarmendu, salatu eta astindu nahi du. Ideologizazio honen oinarria eta iturria, berriz, "erlijiozkoa" "politikazkoaren" *gainenetik* eta honen *neurri* bezala hartzean datza (74). Erlijiozkoa, trazendentea eta neutrala delakoan, politikazko ordenu ezarriari lotua gertatzen da eta honen estalgarri, eta, beraz, ordenu horren zuritzaile.

Erlijiozkoa politikazkoaren barneko gertatzen delarik, bada, politikazkoa erlijiozkoaren jatortasunaren erizpide gertatzen da, eta nolabait haren "neurri" ere bai. Horregatik. Eliza "berria" politikabide berri batetan agertuko eta neurtuko da. SAKek erabat ukatzen du kristauak, kristau direnez, politikazko batasunik edo erakunderik sor lezaketenik, edo inola ere sortu behar dutenik bederen. Kristautasunak ez du politikabiderik markatzen; horregatik kristauen edozein politikazko partiduren edo politikazko olde batu eta bereziren kontrakoa da SAK. Baina, Elizak, politikazkoa barne-barnean duela aitortuz, eta honek bere pentsabidea eta jokabidea mugatzen dituela onartuz, klase herrikoengana makurtu eta ixuri behar du, horiekin elkarrizketa berri bat abiatzeko, eta hortik, hain zuzen ere, bere "berrikuntza" osoa lortzeko.

Berrikuntza honetan bere eginkizuna nahi du SAKek Elizan, eta baduela uste du. Eliza ofizialak, klase agintariekin

---

(74) Ik. G. Girardi, Boloniako Batzarraren sarreran. Girardik "lo spirituale" eta "il temporale" bereizten ditu. Teologi aldetik ilun xamarra iruditzen zait mintzaira hau, eta "Jainkozkoa" eta "mundukoa" edo "gizonezkoa" adierazi nahi dituela uste dut, hitz horien bidez, edo "erlijiozkoa" eta "profanua". Baina hitz guzti hauek dadukate zehaztasun eta argitasun premiarik. Bikote guzti hauek, kreaioaren argitan ulertzen ditu kristau teologiak: bata *sortzaileari* dagokiona da, bestea *sorkariei* dagokiena. "Politikazkoa" esatean, hain zuzen ere, gizartezkoa, historiazkoa, kulturazkoa, ekonomiazkoa... guzti hau adierazi nahi da, politik ikuspegitik.

daraman elkarrizketa diplomatikoaren ordez, klase herrikoiekin eratu nahi du SAKEk benetako elkarrizketa eta elkarlana, Eliza oso-osoan elkarrizketa honetan nahasiz. "Sozialismoaren aldeko kristauek" ez dute Elizatik kanpora beste Elizaren bat sortu nahi; Eliza honetan iraun nahi dute, horren maila ofizialarekin beharrezko tirabiran iraun behar dutela jakinik, gainera. Tirabira honen larriaz, SAKEko batek baino gehiagok Elizarekiko elkartasuna eten ere egin du. Dena dela, klase hautapenaren eta iraultza bidearen aukera berri bat jarri eta bizi nahi du SAKEk Eliza barnean. Ez du ukatzen, bestelako hautapenik eta jokabiderik duenak kristau fedea ukan dezakeenik; baina SAKEk nabarmentzen eta salatzen dien ideologizazioaz jabetu beharko lukete, beren kristau fedea kritika honen aurrean ausartki jarriz eta "garbituz".

SAKEk badu eginkizun berezirik, indar iraultzaile eta sozialisten artean: hau da, kristauen artean Eliza barnean ideologi eta erlijio alorreko kritika aurrera eramanez; izan ere, kritika hau ezin daiteke bereiz, ekonomiazko, gizartezko eta politikazko askapenetik, eta kulturazko askapenaren barnean dago ideologiazkoa eta erlijiozkoa ere. Teologia "berriaren" eginkizunik nagusiena hau da, hain zuzen ere.

Eliza desklerikalizatzeaz eta demokratizatzeaz ere noiz-bait idatzi da SAKEkoen artean; baina oraindik ez dut ideia hau inon sakondurik ikusi, eta benetan ezin jakin zer adierazi nahi den asmo horretan. (75).

Baina SAKEk Eliza barnean egiten duen aukeraren bidez Elizaren beraren batasuna puskatzen ote du? Galdera honek ez du adierazten SAKen klase hautapena, iraultzabidea eta sozialismo marxista kristau fedearekin, eta, beraz, Eliz elkartasunarekin, konpon daitezkeenik; besterik da adierazi nahi dena: SAKen teologiazko gogoetak berak ezartzen duen galdera edo arazoa da, ez Eliza ofizialak SAKi jartzen diona. Horregatik beste honetara egingo dugu galdera: Kristauek politik alorrean ez dute bide jakinik eta berezirik, ugariak izan daitezke horik; baina ugaritasun horrek ez du Eliz batasuna bera ikutzen eta urratzen?

---

(75) Santiagoko Batzarreko batzorde batek eskatzen du hau, baina benetan argitu eta sakondu gabe: "Hay que desclericalizar el cristianismo, democratizarlo y restituirle su ímpetu revolucionario" (6. eta 7. batzordeek biek batera).

Politikazkoaren autonomi zaleek —besterik gabe— eta erlijiozkoaren trazendentzi zaleek —besterik gabe— ezetz esango lukete: politikazko hautapen ezberdinek edo kontrakoek ere ez daukate erlijiozko batasuna urratzerik. Baina SAKek besterik dio: fedea bizitzeko eta azaltzeko tankera politikazko hautapenak bideratzen duelarik, politikazko bide ezberdinek benetan ikutzen dute barne-muinean Elizaren batasuna (76). Orduan SAKek derrigorrez sortzen du nolabaiteko bereizkuntza Elizan: (kristau iraultzaile sozialistek onartua dute hau. Orduan SAKek Elizaren batasuna ukatzen du?

Honetan ere, gogoeta sakonik aurkitzen ez badugu ere oraindik, dialektikaren argitan argituko dela uste dut arazo hau. Elizaren batasuna “barne-muinean ikutzen duela” esaten duenean Girardik, ez dago oso argi benetan zer esan nahi duen: fede edo karitatearen muinean bertan gertatzen dela bereizkuntza hori, ala fedearen eta karitatearen *adierazpen* edo *azalpen mailan*. Izan ere, Girardik berak bereizkuntza hori, fedean ez, eta bai fedearen adierazpenean edo azalpenean jartzen bait du beste esaldi batetan (77). Izatez, Elizaren batasuna *barne-muinetik ikutze hori* ez da berez Elizaren fedezko edo karitatezko batasuna *etetzea*: izan ere, Girardirentzat eta SAKentzat fedezko a eta karitatezkoa politikazkoari hain lotuta daudelarik, politikazkoa berau ere fedearen eta karitatearen barne-barnekoa gertatzen da.

Beharbada hemen ere dialektika eskasa ageri da esaldietan bederen: politikazko ugaritasunaren eta bereizkuntzaren, eta fedezko eta karitatezko Eliz batasunaren arteko dialektika, halebata. Aipatu dudan esaldia baino beheraxeago G. Girardik “dialektikazko harremana” aipatzen badu ere, azkenik dialektikazko pentsabide horren sakonak ihesegiten duela dirudi une honetan. Fedezko eta karitatezko Eliz batasunak politikazko

---

(76) “Las divergencias políticas de fondo implican conjuntamente divergencias globales sobre el sentido mismo del cristianismo y afectan profundamente la unidad de la Iglesia” (G. Girardi, *Los cristianos...*, 333 or.). Beste zenbaiten “tesi” honen kontra ematen du Girardik berea: “Las divergencias en el plano político, por profundas que sean, coexisten consiguientemente con una convergencia en el plano de la fe y no quebrantan la unidad de la Iglesia”, esango lukete beste horiek (*ibid.*).

(77) Ik. *ibid.*, 351-352 or.

bereizkuntzan agertu eta mamitu behar badu ere, eta, beraz, nolabait barne-muinean batasun hura ikutzen eta "urratzen", artean ere fedezko eta karitatezko trazendentzia, eta, beraz, Elizaren "azken" batasuna urratu gabe gelditzen da; benetan fedezkoa eta karitatezkoa politikazkoan ito eta suntsitu nahi ez bada behintzat eta, beraz, politikazkoaren monismora erori nahi ez bada. Honetatik bere burua aldendu nahi duela dirudi SAKek, bere teologiazko gogoetan.

Baina, bestalde, badago oraindik pundutxo bat dialektikazko pentsabideari dagokionez: hau da, "Sozialismoaren aldeko kristauak" Eliz barnean bereizkuntza sortzen duela uste baldin badu, dialektikazko bide batetan lehen urrats bezala hartzen duela esan daiteke bereizkuntza hori, klaserik gabeko gizarte batetan, Eliza, bere fedezko eta karitatezko batasuna agertzeko eta mamitzeko gauza izan dadin.

g) *Aurrera begira*. Hemen eklesiologia oso bat eman ote den galdetzea ere lelokeria bat besterik ez litzateke. SAKek ez du eklesiologiarik osatu; baina eklesiologia berri baten bidea erakutsi du. Berdin esan daiteke agertu ditugun teologiazko beste lau punduei buruz ere. Nondik nora doan SAKen pentsabidea *argitu* egin dugu, uste dudanez; baina gaiak beroien osotasunean *argitu* gabe noski. Iruditzen zaidanez, SAKek berak ere oraindik sakontzekotzat hartzen ditu, beraren teologiazko metodoari dagokionez gainera; izan ere, historiazko ekintzak berak irekitzen dio bidea teoriari, eta praxia aurrera doan neurrian sakonduko eta irekiagotuko da teologiazko gogoeta ere.

Noizbehinka neure kolkotik oharren batzu atera baditut ere, SAKen pentsabidea neuretzat ere argitu nahian, hain zuzen ere, gehienbat horren pentsabidea ulertzen eta azaltzen bakarrik saiatu naiz. Eliza ofizialaren agirietako ideia eta zati batzu ere aipatu ditut inoiz; ez, ordea, SAKen teologiaren kritika orokorrik emateko ez eta hura eta Eliza ofizialaren teologia bat datozela adierazteko. SAKek berak ukatzen du hau, Eliza ofizialaren "ideologia" salatzen duenean eta teologiazko gogoeta *berri* bat kristau herriari eskaini nahi dionean. SAKen teologiari erantzun bezala, Eliza ofizialaren aldetik agiri batzu agertuak dira; beste idazlan batetarako gaia litzateke biak alderatzea; baina horretara-

ko SAKen teologiazko metodologia eta gogoeta beraren abiaburutik eta beraren pentsabide eta jokabide orokorraren giroan ulertu beharra dago. Hori egiten saiatu naiz, eta ez besterik.

Teologiazko alor osoa argi berriz aztertzeke eta argitzeko oinarri batzu eta bideak erakutsi dizkigu SAKek; hala ere oraindik oinarrizko gai batzu aztertu gabe gelditzen dira SAKek berak orain arteko eman dizkigun idazlan eta agirietan. Are eta gutxiago eman digu teologiazko sistimarik; eta emango ez digulakoaren bildur (!) ere izan gaitezke; SAKek ez bait du teologia, jakintsuek eraiki ditzaketan sistimatzen hartzen, kristau fedearen gogoetazko bidetzat baizik: iraultza bidearekin batera kristau iraultzaileek urratzen duten gogoeta bide berria litzateke teologia. Bide honetatik jarraitu beharko gaitzaizkio . . .

Oinarrizko arazoaren artean, kristautasunaren eta marxismoaren arteko harremana zuzen-zuzenean ikutzen duen zenbait dago:

- Marxismoaren historiako materialismoan bereiz ahal daitezke iraultzaren *zientzia*, batetik, *filosofia* orokorra bestetik? Eta, ondorioz, nola konpon marxismoaren ateismoa eta kristau teismoa? (78).
- Marxismoa onartzean non gelditzen da kristautasunak gizonari aitortzen dion askatasuna eta historiarekiko eragimena? Zehazkiago esanez, nola lotzen ditu SAKek gizonaren askatasun kontzetua eta askapen asmoa? (79).

---

(78) Honetan kristau marxistak eta SAKekoak ere ez dagoz elkarrekin bat; eta marxismoaren adiera ezberdina dutelako, hain zuzen ere. Batzuk Althusser-en azalpenari heltzen diote, hau da, marxismoan zientzia eta filosofia bereizten dituenari; beste batzu, Garaudy-ren azalpenari etxekitzen zaizkio; bide batetik eta bestetik, marxismoaren eta kristautasunaren arteko urratuak sendatzen saiatzen dira kristau marxistak. Guzti honetaz, R. Beldaren artikulua hau irakurtzea egokia litzateke: Los "*Cristianos por el Socialismo*" ante el ateísmo marxista, in: *Iglesia Viva* (1974, 52-53) 401-416 or. Paulo VI.aren *Octogesima Adueniens* gutunak marxismoaren hiru adiera ezberdin aipatzen ditu: gizakoaia, politikakoa eta ideologiazkoa. Gainera berezigarritzat ematen ditu marxismoaren hiru mailaok: ideologia edo filosofia; iraultzazko teoria; eta iraultza praxia. Baina berezigarri eta guzti, barne-barnean oso lotutzat jotzen ditu.

(79) Frantziako Gotzainen aipaturiko agiriak klaseen arteko eten egiturazkoaren azpian gizon ororen barnean dagoen etena aipatzen dute. Hemen gertatuko litzateke zapalkuntzarik minena, baina barne askatasuna suntsitu gabe; beraz, askapenaren azken helburua ere gizon bakoitzaren barnekoa izango litzateke.

- Nolatan izan daiteke historiako materialismoa erlijio-aren eta kultura osoaren kritikaren neurria eta erizpidea? (80).

*Dialektikazko batasun* bezala ikusten du G. Girardik kristautasunaren eta marxismoaren elkarganatzea. Dialektikazko teologia da, hain zuzen ere, SAKek egin nahi duena. Dialektikaren garrantzia nabarmentzen da teologiaren metodologia bera ematean eta oinarrizko gai nagusiak aztertzean: izpirituzkoa-materiazkoa, inmanentzia-trazendentzia, fedea-praxia, historia-esperantza eskatologikoa, maitasun-klase burruka... "bikote" hauk eta bestek dialektikazko harremanean argitu eta elkarganatu beharra dago. Baina agertu ditugun SAKen teologiazko "bide" nagusi horik ikusiz —eta, ene eritzi eta kritika bat bederen eman behar baldin badut—, zera uste dut: dialektikazko metodologia ez dela behar bezain sakonki eta zehazki erabiltzen gai edo bide nagusi bakoitza aztertzean eta argitzean; horregatik, inoiz monismora erortzen dela ematen du SAKen teologiazko gogoetak, fedea, esperantzak eta karitateak historiakoan duten eragimen berria eta kritika indarra ahantziz edo suntsituz.

Kristautasunaren aldetik, politikazko bide ezberdinen eta ugarien izenean sortzen da SAK; eta haniztasun horren izenean bizi da. Eta politikazko haniztasunak Eliza barnean ere haniztasun bat eskatzen eta ezartzen duela uste du. Beraz zaila litzateke, politikazko eta Elizazko batasun edo *bakartasun* baten izenean, kristau iraultzaileen hautapena eta bidea ukatzea edo kondenatzea. Alde bietako haniztasun horren barnean ulertu beharra dago SAKen pentsabidea eta jokabidea.

---

(80) Oinarrizko arazo hauetaz, ik. G. Girardi, *Los cristianos* ... aipaturiko artikulua; zalantzarik gabe, SAKek eman duen ahaleginik handiena hortxe aurkitzen dugu, marxismoaren eta kristautasunaren arteko "Urratu" horien konponbidea aurkitzeko. Idazlan hori Boloniako Batzarrean banatu zen; geroztik *Lumière et Vie* XXIII (1974, 117-118) aldizkariak ere argitaratu zuen, *Iglesia Viva* aldizkariak baino lehenago. Girardik ez du kristau iraultzailearentzat marxismoa onartu-ez-onartua arazo bezala hartzen; onartua daduka, ez, ordea, aldez aurretik gako guztiak argituak. Iraultzabidean horik argituz joan behar du kristau marxistak, Girardiren ustez. Artikulu horrekin batera, *Iglesia Viva* aldizkariaren zenbaki oso hori da irakurgarria, oso-osorik SAKen pentsabide eta jokabideei buruz ari denez gero. Bereziki irakurgarria, berriz, une honetan dagokigun arazoari buruz, aldizkariaren idazle kontseiluak, artikulua guztiak bilduz edo, bere eritzi moduan ematen duena da.

Eliza barnean politikazko, kulturazko eta teologiazko haniztasuna benebenetan onartzeak, ordea, zerbait berri eta ustegabeko onartzea esan nahi du. SAKen pentsabidea eta jokabidea, hain zuzen ere, berria eta ustegabekoa gerta dakiokete Eliza ofizialari eta tradizionalari; izan ere, kristauaren politikazko eta teologiazko jokabide eta gogoeta *berri* baten izenean agertu nahi du SAKek Eliz barnean, eta haren alde "burrukatu"; areago, marxismoaren "kulturan" eta iraultzagintzaren askapen praxian kristautasuna txertatuz, honen aurpegi jatorra berriz aurkitu uste du. "Kristautasun iraultzaileak" ez du "kristautasun burgesaren" egokitze hutsa izan nahi, kristautasun burges hau zerbait aldatuz eta gaurkotuz edo, kristautasun iraultzailea aterako balitz bezala. Horregatik, ezer berriren bildur ez den kristau esperantzan oinarritzen den Eliz haniztasun baten izenean bakarrik onar lezake Eliza ofizialak eta tradizionalak SAKen kristautasun "berria".

... Eta Euskal Herrian

SAK oldea nazioartekoa da; ez, ordea, nazio askotan finkatua dagoelarik, beren arteko harremanik dutelako, idazkari-tza moduko bat Parisen dagoelako eta aldizkari bat, "Liaisons Internationales", ateratzen delako bakarrik; SAKen nazioartekotasuna ez da itxurazkoa bakarrik, mamizkoa baizik, langilieriaren nazioartekotasunean oinarritzen eta mamitzen bait da (81); SAKen nazioartekotasunaren esanahi berezia, berriz, "Elizaren badaezpadako diplomazi nazioartekoari kristau iraultzaileen iraultzagintza" aurrez-aurre jartzea da (82).

Baina nola ulertzen du SAKek nazioartekotasun hori? Batzarretan ateratzen dituzten agiriak, herrialdean herrialdeko egoera eta dinamika ekonomiazkoak, gizartezkoak, politikazkoak eta elizazkoak aztertuz hasten dira. Metodu hau ez da, ordea, metodu hutsa; alderantziz, oinarriko pentsabide eta jokabide bati erantzun nahi die: hau da, iraultza sozialista herri bakoitzak bere egoera historiazkoari dagokion bidetik egin behar duela (83);

(81) Napoliko Batzarrak argi eta garbi eskatua du SAK nazioarteko Komiteren bat sortzean, ez dadila hirugarren indarrik sor; langilieriaren nazioartekotasunaren barnean izan behar du nazioartekotasunak.

(82) G. Girardi, Boloniako Batzarraren sarreran.

(83) Argi eta garbi agertzen dute hau Santiagoko Batzarreko 6. eta 7. batzordeek: "Todos los pueblos realizan su revolución socialista según la particularidad de la propia situación histórica. Ello pone en guardia contra la importación de modelos que no se

horregatik ez da egokia inon ezarritako sozialismo modurik edo eredurik bestelako herrietara aldatzea.

Teologiazko gogoeta, berriz, iraultzagintza sozialistaren alderdi bat bezala ikusten du SAKek; beraz, herri bakoitzaren sozialismo ereduarekin bat joango da teologia. SAKen teologi bidea, ordea, "askapen teologiarekin" bat datorrela esan dugu. SAK bera bezala, askapen teologia ere Hego Ameriketara sortua da; eta hain zuzen ere, Hego Ameriketako egoerari erantzun nahi diotela behin eta berriro adierazi dute teologi bide hori landu dutenek, Hego Ameriketako egoeraren oinarria eta sustraia besteren *menpeko* izatea bait da, ekonomi nahiz politik nahiz kultur aldetik (84). —Aztertzea izanen litzateke "menpeko" izatetik aparte, Hego Ameriketa zabal eta ezberdinaren ekonomiazko, gizartezko, politikazko, kulturazko eta erlijiozko egoeraren azterketa hori batean egin daitekeen ala ez—. Dena dela, historiako azterketak berak emango duen ondorioa izango da hau, ez alde aurretik baieztatzea edo ezeztatzea. Baina, *askapen teologiaren* "nazioartekoatasunari" dagokionez, zera galdetu beharra legoke: Ea teologiazko sistimatza hartzen den ala teologiazko bide edo metodutzat bakarrik hartzen den. Beharbada bigarren honetatik joango litzateke erantzuna, eta orduan hobe kiago ulertzen da teologi modu horren "nazioartekotasuna". Dena dela, bide nahiz metodo delarik ere, herrialde bakoitzaren egoerari eta aurrera eraman nahi den iraultzagintza sozialistari behin eta berriro egokitu beharko zaio teologiazko metodo hori; eta teologiak aztertzen dituen gaiak eta ematen dituen irtenbideak ezingo dira izan, besterik gabe, SAKek bestelako herrialdetan eta gizartetan landu dituen gai berberak eta eman dituen soluzio berberak.

Euskal Herriko SAK bere bidea hasi berria dela esan genezake; egitura mailan taldeak eratzen eta gogoeta mailan

---

adaptan a esa realidad. El internacionalismo proletario debe ser uno de los baluartes fundamentales de todo movimiento revolucionario, en solidaridad y colaboración con el camino revolucionario emprendido por cada pueblo".

(84) Hona hemen nola dioen Gonzalo Arroyok, Santiagoko Batzarraren sarreran: "El punto de partida de esta teología (askapen teologiarena) no es como en el caso de un vago humanismo cristiano, una reflexión filosófica sobre la esencia humana en general o la interpretación que la Iglesia ha dado de la Revelación. La situación de opresión en la que el pueblo latinoamericano vive injustamente es el punto de partida para la reflexión del cristiano revolucionario".

beren hautapena mamitzen hasia da. Baina oraindik Bilbo aldean bakarrik benetan finkatu delarik eta inolako batzar nagusirik izan ez duelarik, oso nabarmena da nola beste herrialdeetan emaniko agiri eta jokabideetatik edaten ari den; pentsabide eta jokabide orokorren ezezik, hizkeran ere kidetasun handi du Euskal Herriko SAKek beste herrialdeetan erabiltzen duen hizkerarekin. Beraz, alferrikako lana litzateke Euskal Herriko SAKen pentsabide berezia aztertzen saiatzea; politikazko eta teologiazko pentsabide orokorrari dagokionez, esan nahi da; hortan ez bait du ezer berezirik. Baina galdetzekoa beste hau da: Ea Euskal Herriaren egoeraren eta dinamikaren berezitasuna aitortzetik eta aztertzetik abiatzen duen bere gogoeta eta iraultza bidea, ala Euskal Herriko gertaerak eta egoerak aipatzean eta epaitzean, bestelako lurralde eta gizartetan landuriko pentsamoldeen aplikazio hutsa egiten ote duen (85). Hauxe litzateke azken horrialde hauen galdera nagusia. Bizkaiko SAKekoek ez dute agiri handirik atera oraindik; aurten arte manifestu edo protesta horriren batzu eta kanpoko aldizkaritan argitaraturiko idazlan bat edo beste bakarrik genuen horren pentsabidea eta jokabidea ezagutzeko. Azken abenduan, berriz, garrantzizko agiri bat atera du, "*C.P.S.-en oinarriak Bizkaian*" izenekoa ("Plataforma de C.P.S. en Vizcaya", erderaz); euskaraz eta gaztelaniaz dago agiri hau; honetan eta beste horri eta idazlan horietatik atera behar dugu, bada, Euskal Herriko gaurko SAKen nortasuna (86).

a) *Euskal SAKen Herria*. Oraingoz batez ere Bizkaian finkaturik dagoelarik, Bizkaiko Probintziaz eta Bizkaiko Elizbarrutiaz mintzatzen zaigu "bakarrik" SAK, eta ez Euskal Herriaz. "Diozesianismo" eta "probintzialismo" hau nabarmenak izan dira orain arte, tartean eta oso orokorki "euskal arazoa" aitortzen bazen ere. Eta ez da harritzekoa: hain zuzen ere, Espainiako SAKetik sortua bait da Bizkaikoa, eta Espainiakoaren pentsabidetik eta jokabidetik pentsatzen eta jokatzen du. Oraingoz bederen, ez dirudi inondik ere Euskal Herriko SAKen

(85) Amunsa-k, *Zeruko Argia*-n Elizari eta erlijioari buruz idatzi ohi duenak, lehendik agertua du kezka hau Euskal Herriko teologiariei buruz: azken aldiko zenbaki batetan, berriz, bereziki "askapen teologiariei" (eta SAKi buruz) azaldu du bere kezka.

(86) Agiri hau honela deituko dut hemendik aurrera: C.O.B.

erakuntza bat egin nahi denik (87).

Hala ere, azken agiri nagusian argi eta garbi dio: "Euskal Herria badela baiezten dugu, bere hizkuntza eta bere kulturarekin eta eskubide politiku bereziekin". Honela esanez, ez dirudi "euskal arazo" astratu batez —Bizkaian ere ageri den arazo batez, hategia— ari garenik, Herri oso baten arazoaz baizik. Eta arazo hau *berezia* duela, diote, Euskal Herriak. Beraz, konponbide berezia ere beharko du; baina honetaz geroago mintzatuko naiz (88). Dena dela, SAKen agirietan eta idazkietan oraindik ez dugu ikusten arazo berezi horren azterketa sakonik egin denik, beharbada bileretan ere egin ez delako. Oraingoz bada "baiez-kuntza" mailan gelditzen da Euskal Herria eta beronen arazo berezia. Inolako jokabiderik hartzeko, ordea, arazoaren azterketa sakona egin beharra dago (89).

Beraz, oraindik ez dakigu Euskal SAKEk zer pentsatzen duen Euskal Herriaz; bakarrik —eta hau ere baiez-kuntza mailan gelditzen da— "benetan zapalduta dagoela ere, ekonomia, politika eta kulturaren arloan agertzen delarik zapalkuntza hau". Hau honela delarik, nolatan ari da Euskal SAK Euskal Herriari dagokion azterketa bat egiten, honi dagokion sozialismo bide berezi horretatik jotzeko? Herrialde guztietan SAKEk ematen dituen agirien lehen zatia zuritan utzi beharko du euskal SAKEk; eta orduan SAKen metodologiak berak hutsegingo dio.

Egoera eta kritika hauk oinarritzat jartzen ditugularik,

---

(87) Euskal SAK ez da Europako SAK taldeen komitean agertzen, Espainiako emigranteak talde berezi bezala agertzen diren bitartean. Flamendarrek eta Valonek ere bi talde berezi bezala agertzen dira Europako komitean.

(88) Dena dela, esan beharra dago berehala azken agiri nagusi honek ere Bizkaiko probintzi mailan diharduela: "Probintzi osora iritxiko den plataforma bat sortu eta indartzea derrigorrezko ikusten dugu sarrera gehiago izan dezan" (2.h). Ez dago inolako okerrik probintzi barnean holakorik egiten; baina agirian ez da ez holakorik eta ez bestelakorik Euskal Herri osorako egiteko asmorik agertzen. Eta hau nabarmenago gertatzen da, garai horretarako, Gipuzkoan eta Nafarroan ere bai, SAK taldeak sortzen ari zirela jakinik.

(89) Hala ere, azken agiri nagusi hori, euskal arazo berezi eta larri horren izenean eman nahi du Bizkaiko SAKEk, bere lagunkideen pentsabide eta jokabiderako: "Uste dugu denok ezagutu eta onartzen dugula joan den bi urtetan aurrera daramagun lerro funtsuzkoa. Hori ez dugu eztabaidan jarriko une honetan. Ekintza baterako berehala behar ditugun abiadura batzu jarri nahi ditugu orain eta Euskal Herriko nazional arazo bizitzaren (biziaren?) aurrean zenbait oinarri, teoriakoa batez ere, guzientzat argi utzi" (O.b).

esan beharra dago Herri edo Herrialde bat ez dela arazo formal —iturarena edo azalarena, halegia—; beraz, euskal Herriaren arazo berezi horrek bere mami berezia duela ere, edozein herrik dituen beste alderdien inguruan aztertu beharra dago *herri arazo berezi* hori ere; arazo honek beste alderdiei beraien tankera berezia ematen diolarik ere. Honela bada, beste alderdi horiei buruz euskal SAKek nolako azterketa egiten duen ikusi beharra dago, laburki bederen: gizarte alderdia, kultur alderdia, ekonomi alderdia (hau oinarrian jarriz noski), politik alderdia, Eliz alderdia. Baina bildur naiz orain arteko idazlan eta agiriek ez digutela emango gauza handirik esateko gairik.

Ekonomi alorra jartzen du noski euskal herri eta gizartearen azterketaren oinarri bezala, SAKi dagokionez; hala ere ez du uste ekonomiazkoaren eta beste alorren harremana mekanikutzat eta automatikutzat hartu behar denik, dialektikaz baizik (90). Baina ez dut ikusi SAKen azterketarik, Euskal Herriko ekonomiaren egoera eta dinamikarenik; eta aztertzeorik badagoela uste du, ekonomisten xehetasunetara murgildu gabe ere: Nekazaritzaren (eta bereziki baserrien) beherapena; euskal bankaren indarra; iparraldearen ekonomiazko atzerapena; kooperatiben indarra; Arabaren eta Nafarroaren lantegiztapena; arrantzaren egoera larria, etab. etab.

Baina azterketa honek berehala gizartearen azterketara garamatza, klaseen arteko mailaketaren aldetik batez ere. Hemen ere SAKen iraultza sozialistaren hautapena zientziakoa eta konkretua izango bada, euskal gizartearen azterketa egin beharra daduka, inondik harturiko betikoetan gelditu gabe. Holigarkez, burges handi eta txikiez aparte, herri mailako klaseak (91) beren pentsabide eta jokabide berezietakoak direla esan daiteke, arazoak ere bereziak dituztelarik: nekazariak eta baserritarrak, baserritar eta langile batera direnak, arrantzaleak, proletariak...

---

(90) "Marxismoaren teoriz, ekonomi mailak *determinatzen du azken-azkenik* (beste maila guztiak, esan nahiko du). Baina determinatze hau ez da hartu behar zerbait mekanikutzat ez automatikutzat. Burruka bakoitzaren berezitasuna goioan hartu behar du, nahiz ekonomi behe-estrukturarekin lotuta eraman behar beti" (3.b).

(91) Bizkaiko SAKen sozialismoaren bidea ez doa proletarien aldetik bakarrik. Horietaz gainera, klase herrikoiez mintzatzen da. Areago, erdiko mailako klaseak ere ez ditu erabat baztertzen bere klase hautapena egitean (Ik. *Cristianos para el Socialismo*, in: *Internationales*, I, 12. or.; artikulua hori, idazlearen izenik gabe, Bizkaitik bidalia da).

denak ez dago, besterik gabe, klase herrikoien zorrora sartzerik; klase bakoitzak bere klasetasun berezia duelarik. Baina bereziki ulerrezina eta onarrezina zera da: Bizkaiko SAKek Euskal Herriko inmigrazioaren eta emigrazioaren —aurrena hegoaldean, bigarrena iparraldean— arazoaren larria ez nabaritzea. Izatez, idazlanetan eta agiritan ez da arazo honen susmo handirik hartzen (92). Azken agiri nagusian ere, oker ez baldin banago, ez da aipatu ere egiten inmigrazioaren eta emigrazioaren prolema. Proletarien eta klase herrikoien askapenaren izenban ari den euskal talde batengan ulerrezina ezezik, barkaezina ere badela esango nuke.

Politikazko egoeraren ikuspegia Espainia aldetik begiratzu bakarrik duela ematen du SAKek; Frantziaren aldetik Ipar Euskal Herriak duena ez du aintzakotzat hartzen noski. Baina batez ere, eta Euskal Herriaren politikazko arazoaren berezitasuna aitorturik ere, ez dugu inon Herri honetako politik joera eta indar berezien azterketarik ikusi. Beraz, politik alorrean euskal SAKek gauza berririk ez digu ematen, Espainiako SAKen azterketatik aparte(93).

Ideologi mailan aztertzen du SAKek bereziki kulturaren alorra, kultura eta ideologia berdintzen ez baldin baditu ere. Euskal Herria hizkuntzak eta kulturak berezten du batez ere, Bizkaiko SAKen ustez. Baina ez digu esaten kultura horretaz zer adierazi nahi duen, eta batez ere ez digu esaten euskal kulturaren eta euskeraren arteko harremana nola ulertzen duen. Dena dela, nabarmena da aitormen hau: "CPS-ek aitortu behar du bere arteko euskaldunak besteak baino kondizio eskasagoetan daudela une honetan"(94). Zalantzarik ez dago SAKek nolabait Herrian bertan gertatzen denaren ispilu bezala ikusten duela beraien artean gertatzen dena. Baina kulturaren alorra hizkuntzarena baino askozaz zabalagoa delarik, euskal kultura osoaren egoera aztertzekoa luke SAKek; eta bereziki euskal erdal kulturen arteko dinamika. Honela bakarrik, eta herri kulturaren kontzetu jator eta zuzen bat agertzen denean, har daiteke jokabide egokia,

---

(92) Neure aldetik behin eta berririo idazten ari naiz Euskal Herriaren gizarte eta herri arazoaren alderditik larrienetakoa hortxe dagoela. Baina egoera honen azterketa sakon askorik ez da ikusten ez politik taldeengan eta ez Eliz taldeengan.

(93) Honetaz oso zihur ez banago ere, Espainiako SAKek ere ez du haintzakotzat hartu Espainiako nazio, nazionalitate edo herrialdeen arazoa.

(94) C.O.B.,3. j.

kulturari dagokionez. Besterik, kultura ez da ezer geldia; bizia da, eta bizitzeko eta indarberritzeko bere tresnak eta gailuak behar ditu. Gaurko euskal kulturaren egoera larria, puntu hauei dagokionez, ez da benetan, inolaz ere nabari, SAKen agirietan.

Askozaz lotuago dabil euskal SAKen azterketa Elizaren alorrari; sakonago eta hedatuago aztertu du hau, bere ikuspegi berezia ere baduelarik. Azken agiri nagusian ere bigarren zati osoaren titulua hauxe da: "Eleiz barrutiko analisisa". Bi alde nagusi ditu Bizkaiko Eliza ofizialari egiten dion kritikak: batetik, horren irekimen erreformista salatzen du, politikazko etorkizunerako bere lekua prestatzearren egingo balu bezala; benetan kapitalismoaren eta burgesen interesak zainduz irauten du, aldaketa horien azpian. Guzti honen adierazleak: klaseartekotasuna, liberalismoaren eta sozialismoaren arteko "hirugarren bidearen" zaleatasuna, etab. Beste aldetik, euskaltzaletasunari buruz ere egokikeria eta erdizalekeria nabari du Eliza ofizialarengan SAKen kritikak, hemen ere burgesen euskal zaletasuna bereganatu nahian, eta horrela burgesiarren jokia eginez (95). Bi salakuntza hauetara bil daiteke benetan SAKek Bizkaiko Eliza ofizialari egiten dion kritika berezia, eta horien kontra bezala aurkeztu nahi da Eliz barnean SAKen ekarria.

Euskal Herrian talde ezkertar guztiei aurrez aurre datozkie herri edo nazio arazoa eta klase arazoa. Bien arteko harremana ezberdinki aztertu ohi da; batzu herri arazoa klase arazoan suntsitu ere egiten dutelarik edo arazoa bera gezurrezkotzat hartzen dutelarik. Nola ikusten du Bizkaiko SAKek horien arteko

---

(95) Ik. C.O.B. 2. a eta 3. f. Añoveros jaunak lehengo urtean eman zuen homilia aipatu haren ondoren, agiri bat banatu zuen Bizkaiko SAKek. Homiliaren mamira ez zuela sartu nahi zioen; bestetik, hauxe zioen: "El gesto del Obispo de Bilbao ha suscitado esperanzas y reconocimiento en muchos cristianos para los que los silencios y las alianzas con los poderosos hacen difícilísima su vida de Iglesia". Zergatik ez zuen homiliaren mamia bera aztertu nahi? Hor bait zegoen garrantzikoena. Orduko iheskeria hori estaltzearren edo, geroztik artikulua bat argitaratu da *Cristianos por el socialismo* aldizkarian, 2. zenbakian, titulu honetaz: *El caso Añoveros y la situación de Vizcaya*. Artikulu honetan, hain zuzen ere, berriz salatzen zuen Bizkaiko Elizaren erdizalekeriazko euskaltzaletasuna, homilia haren bidez ere Bizkaiko burgesen atsegina egin zuela adieraziz; baina era berean, homiliaren mamia garrantzia ematen zion, langileriak bereganatu beharrekoa zutela agertuz; eta bestela, homiliak aztertzen zuen arazoa eta mamia bera ahantziz, Eliz eta Estatu agintarien arteko harreman arazo hutsa bihurtu zana salatzen zuen.

harremana, lehen ikusi dugunez, herri arazoaren berezitasuna onartzen bait du (96).

Aurrenik esan beharrekoa zera da: bien arteko elkartasun eta elkarbaldintzatze bat ikusten duela SAKeK, batetik bestea igarotzeko moduko lotura; horregatik ere, eta SAKeKoen iraultza bideratzea aztertzean, batzu herri arazotik eta beste batzu klase arazotik abiatu direla dio azken agiriak (C.O.B.), bide ezberdinetatik denak batera bilduz: "CPS-eko jendearen artean Bizkaian bide bi ezberdinak nabari ditugu nazional arazoa, bai teoriz eta bai praktikaz, klase burrukaren testuinguruan planteatzeko orduan (97). "Lehen kontzientzia hartze honetatik ekin eta, analisiaren sakontzean, bigarren pauso bezala besteentzat lehenengo pauso izan zena ematen dute. Puntu batera etortzen diran ikuspegi bi hauetatik posible da batasun bat egitea, ekintza mailan bereziki, CPS-ko elburuei gagozkiola" (98). Horregatik, herri arazoaren eta klase (ekonomi) arazoaren arteko harremana ez da alde batetik bakarrik abiatzen eta ez da mekanikua eta automatikua; halere, herri arazoaren azterketa ekonomiako "behe-estrukturekin lotuta eraman behar da beti". Halere, ez da argi gelditzen zein eratakoa den Euskal Herrian klase eta herri arazoaren harremana; dena dela, herri arazoa bestea baino garrantzikoago izan daitekeela baieztatzen du SAKeK: "Nazional kontraesana nagusitzen den neurrian, hau aurretik joango da sozialista burrukan, eta ez oportunismoagatik, sozialista beraren eskakizun zientifikoagatik baizik" (99). Baina, uste dudanez, nagusitze horrek ez du inolaz ere bereizkuntza esan nahi.

Nazio arazoa, historiari begira, burgesiak aurrean ezarri duelako susmoa du SAKeK; halere horrek ez du esan nahi nazio arazoa eta burgesia beraz elkartzen direnik, nazio arazoa burgeskeria hutsa balitz bezala. Alderantziz, sozialismoak arazo hori

(96) "Hemen arazo herri bat dago, egitarau sozialistek pratikan oraindik behar bezala erabaki ez dutena" (C.O.B., 3. b).

(97) Eta honela darrai: "1.- Batzuegan, benetan zapalduta dauden kontzientzia, bere nortasuna eta oinarriko eskubideak kenduta bizi den herri batekoak direla ikusetik dator.

2.- Beste batzuegan, kontzientzia hartze honen bidea klaseen errealidadetik eta derriorez eskatzen duen burrukatik hasten da" (O.O.B., 3. h).

(98) Ibid., 3. h.

(99) Ibid., 3.e.

bereganatu eta sozialismoaren ikuspegitik eraberritu behar duela uste du SAKek (100). Areago, Euskal Herrian euskal arazoaren urratzaileak, euskaltzaleak, eta klase arazoaren urratzaileak, langile zaleak, elkarrenganako susmo txarrez eta entzungogor ibili direla aitortzen du SAKek: "Aitortu behar dira ere gure historia- ren zehar Euskal Herriaren interesen defenditzaile eta langile klasearen ordezkarien artean egon diren eta oraindik sarritan dauden errezelo eta ezin ikusiak" (101). Eta beheraxeago alde batekoen eta bestekoek elkartze hau gaur Euskal Herriak duen arazorik nagusien bezala hartzen du.

Baina salakuntza honek badu historian bere sustrairik. Zergatik ez dira sozialistak euskal arazoaz kezkatu? Burgesen kontua zelako bakarrik? SAKek sakonagotu beharra daduka herri eta klase arazoaren harremana. Oraingoz baiezkontzetan gelditzen dela iruditzen zait. Egia da, Bizkaiko SAKi ez zaiola herri txikien arazoa landurik etorri beste herrialdeetako SAKen aldetik. Herri txikien arazo hori ez da agertzen munduko SAKen idazlan eta agirietan; klase arazoaren hesietan mugatzen da azterketa hori (102). Euskal Herriaren dinamikan eta giroan dabilelarik, Bizkaiko SAKi barnetik bezala sortu zaió arazo hori; baina honexegatik, hain zuzen ere, arazo "nagusiena" den honen azterketa sakonagoaren premian dago, hartu nahi dituen jokabi- deak argi-agoak eta finkatu-agoak izan daitezten. (103).

---

(100) "Es urgente situar la causa nacional en la perspectiva socialista. El que históricamente fue la burguesía quien planteó los problemas nacionales en Europa de ninguna forma quiere decir que no sea una reivindicación auténtica. Pero hay que replantearla en un marco proletario y desconfesionalizado" (*El caso Añoveros*, in: *Cristianos por el socialismo* (nov. 1974, 2) 30. or.) . Neure zalantzatxo bat badiut esaldi honetatik bakarrik Bizkaiko SAKen pentsaera atera daitekeenik; izan ere, idazlan hori Bizkaiko SAKeko batena bakarrik bait da. Hala ere, beste idazki eta agiritan ere nabari dela uste dut. Bizkaiko SAKen asmo nagusiak, aipamen honek azkenean adierazi dituen bi horik dira, hain zuzen ere: Euskal Herriaren herri arazoa desburbegestu eta deskonfesionaldu: hau da, burgesiari eta Elizari arazo horren monopolioa kendu. (101) C.O.B., 3. f.

(102) Halere, G.<sup>o</sup> Girardik Boloniako Batzarrean aipamentxo bat egiten du herri zapalduen askapenari buruz, klase herrikoien askapenaz ari delarik.

(103) Baina alde zuretik konturatzen da nonbait SAK, arazo honetaz ez duela sakontasun handirik, eta bere burua zuritu nahian edo, zera dio: "Politikari gagozkiola, CPS-n jokabidea sektore eta zatikakoa da, eta berez, helburu berezi eta mugatu honetarako base arrunt bat jarri nahi da.

CPS ez da arazo hau sakon-sakon politikoki eztabaidatzeko lekua eta ezin da CPS-n plataforma politiko uniforme bat egiten entseiatu. Hortarako daude erakunde

b) Euskal SAKen jokabidea. Azterketa eta kritika honen oinarri nagusizat darabilkigun azken agiri nagusi (C.O.B) honen helburua hau da: "Ekintza baterako berehala behar ditugun abiaburu batzuek jarri nahi ditugu orain eta Euskal Herriko nazional arazo biziaren aurrean zenbait oinarri, teoriak eta batez ere, guzientzat argi utzi" (104). Eta hau batez ere SAKeko beraien batasuna lortzeko: "CPS-an, nazional prolema klase burru-karekin nola lotzeari buruz gutxienezko batasun, batera heldu behar dugu. Batasun puntu hauek dirake beharrezkoak, CPS-en ideologi burruka eta sozial eraginean, estrategia bakar bat eramateko" (105). Beraz, ikus ditzagun Bizkaiko SAKek aipaturiko arazoari buruz zein irtenbide ematen duen.

Teori mailan, eta sozialismo ezberdinak aparte, edozein sozialismo moduk oso gogotan hartu behar duela diote Euskal Herriaren herri arazoa (106). Areago, sozialismoaren ikuspegitik bakarrik har daiteke jatorri herri arazo hau, alde batetik, eta horri erantzun egoki bat ematen ez dion sozialismo bidea ez da onartzekoa: "Euskal Herriko nazional arazoa sozialista ikuspuntutik begiratu behar dugu eta, era berean, nazional arazoari behar

politikoak eta CPS-k ez dauka zertan haien ordezkari" (C.O.B., 3. c). Esan dezadan aurrenik, puntu hau oso iluna gertatzen zaidala, esamoldeagatik eta mamiagatik ere bai. Zer adierazi nahi da barnean? SAKen eginkizuna ideologi mailakoa dela, eta erlijiozkoa bereziki? Honelako zerbait agertzen da beste hizkuntzetako agirietan ere. Ala beste hau adierazi nahi ote da: hots, klase eta herri arazoak elkartzeko politikazko era eta bide ezberdinak daudela, eta SAK politik alderdi bat ez denez, ez dadukala politikazko soluzio bat bakarrik ematerik? Bizkaiko SAKen eta agiri oso honen inguruari begiratzu gero, bigarren adiera hau bidezkoago iruditzen zait. Orduan teoriak abiaburutan gelditu nahi du SAKek. ●

Baina agiriak berak aitortzen duenez, arazo hau larria eta nagusia da gaur, eta bestetik, SAKeko asko politikagintza konkretuan ihardungo dira. Beraz, aski ote da abiadura teoriakoen mailan gelditzea? Ez ote hori nolabaiteko ihesbide bat? Gaurko Euskal Herriko politikazko indar ezkeriarretan eta sozialistetan bi arazo horiek elkartzeko ematen diren soluzio guztiak ontzat eman ote litzake SAKek? Ez ote da hau, Eliza ofizialaren politikazko "neutraltasun" delako horretara erortzea? Baina berehala ikusiko dugu zein bide nagusi eta zabal aurkezten duen SAKek teoriak eta ekintza mailan. (104) C.O.B., O. b.

(105) C.O.B., 3. b. Halere, ez dut uste -eta honetan sinetsi beharra dago beraiek agiriaren esan dutena ematen dituzten abiadurak eta agiri guzti hau SAK bera barneko etenduratik zaintzeko, eta, beraz, taktika hutsez ematen direnik. Baina, barnean zera dago: abiadura hauek pentsabide ezberdinen arteko konponbide bezala eman direla.

(106) "En nuestras circunstancias concretas es necesario que las opciones socialistas tengan muy en cuenta el problema nacional del pueblo vasco" (Cristianos para el socialismo, in: Liaisons Internationales, 1, 12. or.).

bezelako erantzuna ematen ez dion egitarau sozialistak ez du balioko" (107). Benetan abiaburu hutsetan gelditzen da guzti hau, herri arazoaren eta klase arazoaren arteko harremana sakondu ez delako, hain zuzen ere (108).

Teoriazko baiezkuntza hauen teoriazko oinarria, sozialismoa bera gizonaren askapen osoaren asmo bezala ulertzean datza: "Sozialismoa gizon eta gizartearen askatasun osoaren asmo eta egitarau bat bezala pentsatzen dugu. Zapaldutako alderdi ezberdinen burrukak ongi lotu behar dira sozialismoaren barruan. Euskadin sozialista egitarauak erantzun askatzaile bat eman behar dio nazional arazoari" (109). Askapen asmo oro eta orokor hau SAKek beste hizkuntzetan ere sozialismoa ulertzeko duen moduari dagokiola esan daiteke. Egin nahi den iraultza ez da ekonomiazkoa eta gizartezkoa bakarrik, eta bai politikazkoa, ideologiazkoa eta kulturazkoa ere. Euskal Herriaren arazoaren berezitasuna kultur eta politik mailan dagoelarik, SAKek bilatzen duen askapen osoak kulturazko eta politikazko iraultza biltzen du. Iraultzaren alderdi guzti hauk eta askapenaren alor guztiok aurrera eramateko eta lortzeko, politikazko estrategiarik ez du eskaintzen, ordea, SAKek, hori aukerazkoa dela esanez, sozialismoaren aukera ezberdinen artean. Honela, gai honetan ere, sozialismo aukeren haniztasunari eutsi nahi dio euskal SAKek; baina bada honetan arriskurik sozialismoaren eta iraultzaren osotasunarentzat, alde batetik, eta baita herri arazoaren konpon-

---

(107) C.O.B., 3. g.

(108) Zerbait bederen zehatzagorik eman zuen Santiagoko Batzar nagusira joan ziren Quebec-eko ordezkariak: "El movimiento de liberación de Quebec se comprende teniendo presente la dialectica entre las fuerzas de liberación: la independentista y la socialista. Nosotros socialistas trabajamos en la izquierda y fuera del partido de Quebec (en las centrales sindicales y en los grupos populares), organizando la clase trabajadora para presionar al Partido de Quebec y obligarle a radicalizar su plataforma socio-económica y consentir una independencia, una liberación nacional que sea asunto de los trabajadores; en otras palabras, queremos que la independencia sea realmente un paso adelante que conduzca a la construcción del socialismo".

Quebec-ek 5.000.000 bizilagun ditu. Eta Quebec-eko independentzia eskatzen duen alderdia 1967an eratu zen. 1969an % 25 hautarki lotu zituen. Goiko aipamen horretan agertzen denez, Euskal Herrian eta Quebec-en berdintsu agertzen da herri eta nazio arazoan finkatzen diren eta klase arazoan finkatzen diren politik indarren arteko eztabaida eta burruka.

(109) C.O.B., 3. d.

bide jatorrarentzat, bestetik (110). Gainera herri arazoaren mami-mamia eta min-mina kultur arazoa delarik, ez da ulertzen nolatan SAKek ez luken alor honetan askapen bideak urratzeko argitasun handiagorik eta zehaztasun sakonagorik eman behar, abiaburu hutsetan gelditu gabe, halegia.

Baina teoriatzko abiaburu hauetaz gainera, zein da SAKen beraren jokabidea? SAKekoentzat egitaraurik ematen ez duenez, SAKen beraren barneko jokabidea zein izango den ikus genezake bederen, C.O.B. agiriak ere honetaz gauza handirik ematen ez badigu ere.

Euskal SAKen klase banaketa ez da langileriaren edo proletariaren eta burgesiaren edo kapitalisten artekoa soil-soilik. Honetan euskal gizarte oso bi klasetan bakarrik banatzea gainditua du SAKek. Klase *herrikoietaz* mintzatzen da, lantegietako langileak, nekazariak, arrantzaleak eta beste zenbait horien artera bilduz nonbait. Benetan ez du klase herrikoien definiziorik ez eta banaketarik ematen. "Beste zenbait aldiz esan dugu eta, derrigorrezko da kristau hautapen bat aurreratzea: ... —argi eta garbi herri eta klasearen alde hautatuko duena" (111); hau esaten duenean ez dakigu garbi zer adierazi nahi duen "herri" hitz horren bidez. Baina agiriaren inguru osoari begiratu, jende *herriko* edo "herriar" guztiak SAK osa dezakeela<sup>a</sup> esan nahi duela iruditzen zait. Honela, bada, proletal klaseari bakarrik ez, eta bai "herri" mailako klase guztiei atxekitzen zaiela, bere alorra nolabait zabaldu egiten du SAKek eta Euskal Herriko giro eta egoeratan, horren herri arazoari heltzeko bere klase hautapena egokitu (112).

---

(110) Sozialismoaren politikazko aukera edo estrategia ezberdinak SAKen barnean beti eta edonon onartuak dira. Baina galdetzekoa zera da: herri arazoa sozialismoari kanpotik bezala datorkiona delarik -klase arazoan irentsi beharrekoa edo horren argitan argitu eta zuzendu beharrekoa edo horrekin bateratu eta konpondu beharrekoa-, honetan haniztasun zabalak ez ote du esan nahi azkenik, sozialismoak ez duela herri arazoa determinatzen eta bideratzen?

(111) C.O.B. 2. f.

(112) Bere alorretariko bat honela aurkezten du Bizkaiko SAKek: "Langile klasearen eta herri-herriaren interesekin ados egon daiteken kristautasunaren sozial aurpegi bat aurretzeko" (C.O.B., O. a). "Herri-herri" hori zer den eta zeinek osatzen duen ez da agirian esaten, azken-azkenik, euskal gizartean sailketa edo mailaketa aztertzen ez delako, hain zuzen ere.

Baina horrezaz gainera SAKek nolabait euskal indar ezkertiarren eta sozialisten biltzaile izan nahi luke nonbait, SAK bera inola ere alderdi edo talde politikoa ez delarik. "Badakigu hau (euskal langileen eta euskal herri arazoaren ordezkarien arteko "etena" aitortzea eta salatzea?) ez dela aski auzia erabakitzeko ez teoriarik eta ez praktikan. Baina behin eta berriro diogu CPS ez dela nor lan hortarako, naiz eta uste badugu nolabait ere CPS-en lana laguntza bat izango dela Euskadiko ezker iraultzaileak aurrean daukan arazo nagusia erabakitzeko" (113). Asmo hau, bestalde, ez da berria; beste herrialdeetan ere SAKek, banatuta eta sarritan elkarren kontra dabiltzan talde sozialista, ezkertiar eta iraultzaileen bilgunea bezala agertu nahi du, edo elkartzeko eta biltzeko laguntza bat eman nahi du bederen. Euskal Herrian asmo horrek esanahi berezia ere badu, indar politiko ezkertarrak hain banatuta dabiltzan honetan. SAKek, bada, bi oinarri bezala ematen ditu batasun hori lortzeko: *sozialismoa* (era ezberdinetan noski) eta *euskaltzaletasuna* (hau ere definitu gabe politik nahiz kultur aldetik: abertzaletasuna? nazionalismoa? autonomia? helebidasuna? nolako helebidasuna? nolako eskola eta irakaskuntza? ikastola?) (114).

Bi asmo konkretuagoak ematen dizkigu Bizkaiko SAKek, aurrerantzean bere jokabidea bideratuko dutenak: bata euskal kulturari eta euskarari buruz; bestea euskal Elizari buruz.

SAKen barnean bertan, euskaldunak kondizio eskasagoetan daudela salatu ondoren, honela dio agiriari: "Horregatik bereziki beharturik gaude denok benetako ahalegin batera CPS-ko agerpen guzitan euskal kultura hartu dedin. Bide hau jarraiki, CPS-ko agiri guziak euskeraz agertuko dira Bizkaian eta menbruguziak euskeraz mintza ahal izango dute batzarretan" (115). Erabaki hau garrantzia handikoa da noski SAKentzat; batez ere oraingoz Bilbo aldean bereziki finkaturik dagoela gogoan edukirik. Baina erabaki hau onartzera iritsi baldin bada, Bizkaiko "euskara-

---

(113) C.O.B., 3. f.

(114) Ez dut uste aski denik Eliza ofizialak ikastolei eta Euskal Herriak dituen beste arazoei buruz duen jokabidea salatzea eta astintzea (Ik. C.O.B., 3. f); ez eta guzti horik sozialismoaren bidetatik bideratu behar direla esatea ere (ik. C.O.B., 3.g). Guzti hau zehaztu beharra daduka SAKek, bere barnekoen eta jarraitzaile guztien jokabiderako.

(115) C.O.B., 3. j.

dunak" eskatuta izan da. Horregatik, euskararen arazoa ez da ikusten kultura eta herri baten inguruan; norbere kontutzat hartzen da euskararena. Eta hau oso larria dela iruditzen zait.

Aurrenik, aipatu dugun esaldi horretan ez da zehazten euskal kulturak zer adierazten duen; eta SAKek ez du beste inon ere hori argitu. Baina ez da erraza definitzen, maila astratuan hartzen baldin bada behintzat; eta nolabait SAKek berak ere adierazten du euskara behintzat kultura horren funtsezkoetako bat dela. Baina zer esan nahi du "euskal kultura hartze" horrek? Zaire-ra doazen misiolariak hango kultura hartzen duten bezala egingo ote du SAKek Euskal Herrian? Orduan gutxienez adierazten dena zera da: SAK bera, barnetik, ez duela Euskal Herrian euskal kulturak "definitzen"; eta azkenik, Euskal Herria bera ez duela euskal kulturak definitzen. Beraz, sozialismoa nolabait egokitu egingo litzaioke euskal kulturari, hau kanpoko balu bezala. Horrela haseratik bereizkuntza jartzen da euskal kulturaren eta sozialismoaren artean.

Baina guzti hau nabarmenago gelditzen da, jarraian, euskarari buruz dioen horretan. Euskal kultura, euskal herri eta gizarteak —eta beraz euskal SAK— mamitzen duen zerbait bezala hartzen ez denez gero, euskeraren arazoa agiri batzu argitaratzearen arazoa bezala aurkezten da; edota, oraindik okerrago, euskara dakitenen eskubide bezala; ez, ordea, euskal herri osoaren eta euskaldun bakoitzaren askapen arazo bezala. Uste dudanez, Euskal Herriaren eta gizartearen askapen bidea hizkuntzarekiko askapenetik doa (edo hortik ere bai bederen). Askapen bide hori helebitasunetik joango balitz ere —eta honetan ez dadukagu luzatu beharrik hemen—, helebitasun horrek benetakoa izan beharko luke, ez gezurrezkoa. Eta helebitasuna ez da Herri baten askapen bide benetakoa, hizkuntza biak jakiteko nahi duenari aukera emanez bakarrik; beste askok hizkuntza bakarra dakiten bitartean, halebria. Euskal Herria helebikoa dela esatea gezurra dela uste dut; badira euskaldun batzu helebikoak; baina ez Euskal Herria, euskal Herriko askok ez bait dakite euskaraz. Orduan derrigorrez, euskara eta erdara dakitenak "behartuta" daude erdaldunekin erderaz egitera; eta hori zapalkuntza bat da, eta ez Herri libre bat herritar libreekin egitea. Guzti hau gogoan edukirik, SAKen benetako erabakiak beste honetatik joan behar lukeela uste dut: hau da, lagun guztiek euskara ikas dezatela.

Euskal Elizari buruz, puntutxo bat besterik ez dakar agiriak, eraiki nahi litzatekeen "Kristau gogoetaren eskola" delakoaren asmoen artean: "Eskola honen lanak zenbait arlo besarkatu behar ditu: biblia, teologia, historia —Eleizaren orain-oraingo historia Euskadin, batez ere—, soziologia, marxismoaren ezaguera, honek kristautasunarekin duen zer-ikusia..." (116). Benetan ez da "euskal Elizaz" ari, Elizak Euskadin egin duen historiak baizik. Eta honek badu bere garrantziarik, SAKek bere eginkizun nagusienetarikoa bat bezala, Eliza ofiziala agintarien mailetatik eta horik ezarririkoa ideologiatik libratzea hartzen du. Alde honetatik, Herri bati dagokion Eliza partikularren alde saiatzea SAKen eginkizuna izango litzatekeela uste dut. Baina Bizkaiko SAKek ez du "euskal Eliza" horri susmorik ere hartzen dionik ematen.

Azken puntuok, euskal harazoak jabetzean eta hori jokabidean ere onartzean urrats batzu ematea dela uste dut, SAKen aldetik. Baina benetan gizon osoaren eta herri osoaren askapena nahi duenak kontuz ibili behar du askapen hori okerreko bidetik joan ez dadin. Iruditzen zaidanez, hainbeste aldiz aipatu dugun agiri hau, arazo horri buruz SAKek egiten duen lehen gogoeta eta hartzen dituen lehen erabakiak emateko besterik ez da. Horregatik ezingo dugu horren azken hitza bezala epaitu. Baina, gogoeta horretan irauenez, bere jokabideen etengabeko kritikaz jokatu behar duela uste dut. Bide horretatik jarraituko gatzazio SAKi.

Agiri hori honela amaitzen da: "Ez dugu nahasi behar teori utseko eztabaidetan. Pratikak erakutsiko digu ekintzaren bidea eta adiraziko nazional arazoari zenbaiteraino ari geran erantzun egokia ematen" (117). Ekintza horietatik ikusiko dugu, bada, zein argiak diren eta zein egokiak agiri horretan ematen diren abiadurak eta hartzen diren erabakiak. Dena dela, pratika bera etengabeko teoriarekin batera egiteko dela iruditzen zait, hau baita haren etengabeko kritik indarra.

Baina oinarrizko ohar bat egin beharrean gara hemen: Euskal Herria badela eta euskal arazoa *berezia* dela, eta sozialis-

---

(116) C.O.B., 1. f.

(117) C.O.B., 3. k.

moak oso gogotan hartzekoa dela gainera, dio SAKEk. Honela baldin bada, kulturaren alorra nahiz erlijioarena Euskal Herri osoko arazotzat hartu beharko litzateke: hau da, Euskal Herria beronen osotasunean harturik, eta ez Bizkai aldetik bakarrik.

d) Zer da Euskal Herriko SAK? Nabari denez, ez da beste herrialdeetako SAK taldeetatik oso aldentzen, ez bere pentsabidez ez eta bere jokabidez. Baina badu arazo berezi-berezirik; eta kristau iraultzaile eta sozialisten oldea Euskal Herrian izan nahi duenez, badu beste herrialdeetan SAKEk egin duen gogoetari eta ekintzari zerbait eskaintzerik ere. Hiru puntu nabarmentzen ditu bereziki Bizkaiko SAKEk (oraingoz Bizkaikoa bait da Euskal Herriko SAKen gogoeta), bere izateari buruz; eta hauetxek agertuko ditut hemen: Zein da SAKEkoa? ; SAK kristau aukeratuena talde ote? ; zein marxismo da SAKena? Hiru galdera hauei erantzun nahia behin baino gehiagotan agertzen da Bizkaiko SAKen idazlan eta agirietan.

Beste hizkuntza eta herrialdeetako SAKengan agertzen ez dena da hauxe: SAKEkiko atxekipena neurri ezberdinekoa izan daitekeela, halebria. C.O.B. agiriko testu luzetxo bat aldatu behar dut honera: "... CPS-en maila bi gogoan hartu behar da: 1.- Oso-osorik eta ongi jakinaren gainean identifikatzen direnak, eta CPS-en lana —dela erlijioaren ikuspuntutik dela politika ikuspuntutik— interesgarri erizten dutenak. Bada prestutasunik lan egiteko fronte honetan, naiz denek ezin badute horretarako denbora bera eman. Behin eta berriro gure artean eta gure agirietan esan den bezala, beharrezko da jende honen artean izatea ekintzaile politiku eta langile base tinkoa, bide zuzena segurtatuko duena.

2.- Ageri dago badela talderik eta jenderik eleiz egituraren jokabide erdirakoiarekin ados ez datorrena; hauk, zerbait gehiago ikusten dutelarik ere, neketsu dabiltz CPS-en jokabidea argi ezin ikusiaz. Ez dute, agian, inoiz espresiki aztertu jokabide hori. Eldutasun batera iritxi ditezen ahaleginduko da CPS, berengan euki dezaken eragina ahaztu gabe" (118). Berezketa hau ez dut beste inongo SAKen agiritan aurkitu. Edonon daude SAKen

---

(118) C.O.B., O. k.

pentsabide, jokabide eta egitarauekin oso bat datozenak, eta beren atxekipen osoa eskaintzen diotenak, batetik, eta zalantzarik beterik begiratzen diotenak, bestetik. Alde honetatik, bada, ez nuke esango Euskal Herriko egoera, ez eta Bizkaikoa ere, berezia denik. Dena dela, ez da harritzekoa SAKek zalantzarik dabilten horik beregana inguratu nahi izatea, bere taldea zabaldu nahian, hain zuzen ere.

Bestalde, gogo hau SAKen asmo eta jokabide orokorraren bidetik dabil. Izan ere, SAKek ez du kristau *aukeratu*en (eliteen) taldea izan nahi; oso nabarmen jartzen du hau Bizkaikoak ere. "CPS-an kristau fedeko alkartasun eta Hautatze sozialista batean oinarriturik abiatzen gara", dio SAKek (119). Beraz, kristauen artean sozialismoaren hautapena egingo dutenen taldea hedatzen saiatu nahi du, kristau "jendeterian", hain zuzen ere. "CPS-ek kristau masetatik apartatuko duen edozein elitekeri saiestu behar du, haren barruan izan dezaken indarra galdu ez dezan. CPS jendeterian sartuta egon behar du, kristau bezala sentitzen diran langile klase eta herri maila eta CPS-en arteko lokarria, bangoardia eta masen arteko lokarriaren antzeko uste dugu. Bizi nahi badu, CPS eleiz herri basearekin lotuta egon behar du eta jokabide sozialista baten bitartez eldutasunera eramaten lan egin" (120). Pixka bat lehenago esandakoarekin bat dator hau: SAKi osorik atxikitzen zaizkionen artean gehiengoak langile eta politikari ekintzaile izan behar zuela esan da han; SAK kristauen oldea denez, kristau langileen eta herri-herritarren artean osatzen da bereziki. Horrela, kristautasuna sozialismora bideratzeko goiko mailetan landu beharrean, behetik hasita eraberritu —edo irauldu? — nahi du Elizaren jokabidea.

Baina zein sozialismo eskaintzen dio kristauari SAKek? (121). Esana dugu beste herrialdeetako SAKek ere galdera honi ez diola erantzun zehatzik eta bakarrik eman, eta ez politik aldetik sozialismo diferenteak onartzen direlako bakarrik, eta bai, sozialismo marxista onarturik ere, marxismoa bera era diferente-tan aditzen delako. Espainiako "Sozialismoaren aldeko kristauei"

---

(119) C.O.B., O. a.

(120) C.O.B., 2. e.

(121) Galdera honi erantzun beharrak jartzen du agian zalantzarik, oraindik oso-osorik SAKi atxeki ez zaion kristau sail hori.

buruz *Iglesia Viva* aldizkariko idazle kontseiluak dioena bera (122) esan gezake beharbada Euskal Herriko SAKi buruz ere. Azkenik, marxismoaren funtsezko puntu honek bakarrik batzen dituela dirudi "Sozialismoaren aldeko kristau" guztiak: hau da, klase hautapenak (honetan ere aldeak baldin badaude ere: proletal klasea bakarrik ala klase herrikoi guztiak?). Beste guztietan —eta Euskal Herrian, beraz, herri arazoa ulertzean eta argitzean ere bai— eritzi ezberdinak onartzen dira, eta nolabait biltzen ere bai SAKen barnean (123).

e) *Euskal SAKen teologia*. Orain arte esandakoari eutsiz, ezingo dugu hemen teologiazko metodu eta abiaburu berririk bilatu. Baina orain artekoari eutsiz ere, ez ote dugu Bizkaiko SAKengan teologiazko gogoeta berezirik bilatu behar? Euskal Herriaren arazoa berezia baldin bada, hori askatzeko bidea eta ekintza ere bereziak izango dira. Eta SAKen aldetik, ekintza berezi eta eguneroko horri dagokion teologiazko gogoeta eskatzen da.

Izatez, nekez aurkituko dugu horrelako gogoeta berezirik Bizkaiko SAKen idazlan eta agirietan. Halere, nere ustez, baluke hortarako biderik eta gairik. Bat edo beste aipatu besterik ez dut hemen egingo.

Euskal Herrian iraultza giro bat dagoenik ezin daiteke uka; eta iraultza horrek orokorra izan nahi du, hain zuzen ere: ez ekonomiazko, gizartezko eta politikazkoa bakarrik; eta bai kulturtazkoa ere. Ikastolaren inguruan ibili izan den iraultza bideak urratu beharra; euskal kulturak, biziko bada, eskatzen duen iraultzazko irtenbidea; politik indarren iraultza jokabide nabarmena... Guzti honek SAKi teologiazko eginkizun bat jartzen

(122) " 'Cristianos por el Socialismo' en España creemos que no ha clarificado suficientemente lo que entiende por marxismo. Mucho nos tememos que a juzgar por lo que se oye, su interpretación del marxismo no coincide en absoluto con la de los marxistas de las diversas tendencias" (*Luces y sombras de "Cristianos por el Socialismo"*, in: *Iglesia Viva* (1974, 52-53) 460. or.).

(123) "Este pluralismo (marxismoa ulertzekoan, halegia), por su puesto, no lo podemos entender fuera de una opción fundamental de clase. Desde este punto de vista CPS puede contribuir de alguna forma a la edificación de la unidad política del movimiento obrero" (*Cristianos por el socialismo*, in: *Liaisons Internationales*, I, 21. or). Berriz, batasuna egin SAKen egiteko aipatzen da.

diola esango nuke: iraultzari buruzko teologiazko gogoeta egitea, hain zuzen ere. Eta bere-berea duela uste dut, SAK kristau iraultzaileen olde bezala agertzen denez. Baina euskal herriari eta gizarteari aurkezten zaion iraultza bideak badu berezitasunik ere: biolentziarena, halebria. Beste inongo herrialdetan baino nabarmenago daduka Euskal Herriko SAKek bere aurrean eta bere dinamikan ere biolentziaren arazoa. Beraz, teologiazko gogoeta zintzo eta jatorrak oso kontuan hartu beharko du gai hau.

Baina SAKen teologia *askapen teologia* bezala ulertu dugunez, ez ote du euskal SAKek teologiazko gogoeta horri berekorik ematerik? Askapenaren mamia ez da berdina herrialde guztietan. Eta oso nabarmen jartzen du Bizkaiko SAKek berak, Euskal Herriaren askapenak ez duela ekonomiaren alorra bakarrik ukitzen, eta bai kulturarena ere, herri askapena ere. Alde honetatik askapenak mami hedatuago eta osoago bat daduka. Eta askapenaren teologiak askapen *oso* honen teologia izan behar du. Euskal Herriko SAKen teologiazko gogoeta ez da, beraz, jatorra izanen, askapen hori beronen osotasunean hartzen ez baldin badu. Uste dudanez, askapen honen teologia ez dago, Hego amerikarren "dependencia" delakoa soil-soilik abiaburutzat ezarrita egiterik.

Gai nagusia izango luke Euskal Herriko SAKen teologiazko gogoetak "Eliza partikularra" kontzetuaren esanahia eta ondorioak lantzea, herri arazoari oso lotuta dabilen gaia denez gero. Sozialismoaren aldetik ez ote dago "Eliza orokorraren" eta "Eliza bereziaren" arteko harremana argitzerik eta garbitzerik?

Baina batez ere alde honetatik uste dut izan beharko lukeela bere berezitasuna euskal SAKen teologiazko gogoetak: hau da, askapen teologia kulturaren teologiatik ikustea eta lantzea, kultur arazoak biltzen ditu Euskal Herriaren klase arazoa eta herri arazoa batean. Horregatik kultur askapena ez da askapen alorretako bat bakarrik. Ez luke izan beharko ere teologiazko gogoetaren alor soil bat. Euskal herriaren eta gizartearen askapenari kultur askapenak ematen diola uste beronen tankera. Horregatik sozialismoak kultur askapenean oinarritu eta mamitu beharko du. Eta bide honetatik, sozialismoaren argitan euskal SAKek egin nahi duen teologiazko gogoetak eta kritikak ere kulturaren teologia —hobe esan, kultur teologia— oinarritzat eta bidetzat hartu beharko lukeela iruditzen zait; kultura beronen

